

MEMORIA OROKORRA

2017ko abenduan



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

AURKIBIDEA

0. SARRERA	5
1. ETXEBIZITZA eta ENPLEGUA.....	7
1.1 GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA LANTALDEA.....	7
1.2. PERTSONA GAZTE BAT ETXE-KALERATZEN DUTEN KASUETARAKO PROTOKOLOA: Hausnarketa eta eztabaida.....	11
1.3. ENPLEGUA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA.....	14
1.4. ENPLEGU ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA.....	19
1.5. GAZTELABEL: GAZTERIA POLITIKA PUBLIKOEN KALITATE ZIGILUA.....	23
1.6. LAN EGOKIA KANPAINA.....	27
1.7. POSIZIONAMENDU PUBLIKOAK: LAN ISTRIPUAK.....	30
1.8. LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAN FORMAZIOA.....	32
1.9. EGUNEROKO LANA.....	34
2. HEZKUNTZA	37
2.1. ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA.....	37
2.2. ASTIALDIKO IKASTAROAK	40
2.3. ASTIALDIKO UDAKO EKINTZAK.....	42
2.4. ASTIALDI FOROKO WEBGUNE (WWW.ASTIALDIFOROA.ORG).....	43
2.5. ATERPETXEEN ATARIA: ATERGUNE.....	46
2.6. ASTIALDIKO ESKOLEN ETORKIZUNA.....	48
2.7. HEZITZAILEENTZAKO GIDAK.....	50
2.8. HEZKUNTZA FOROA	53
2.9. EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEEN MANIFESTUA.....	54
2.10. IKASLEEN NAZIOARTEKO EGUNA.....	56
2.11. GARRAIO GASTUEN ANALISIA.....	57
2.12. HEZKUNTZA ERAGILEAK: UPV/EHUrekin HITZARMENA.....	59
2.13. EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA	60
2.14. EGUNERO LANA.....	61
3. PARTE-HARTZEA.....	63

3.1. GAZTEOLINPIADAK.....	63
3.2. GAZTEOK ETA PARTE HARTZE POLITIKOA: #GAZTEZTABAIDA.....	66
3.3. GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENEKO HARREMANA.: AHOLKULARITZA ETA MATERIALEN LAGAPENA.....	70
3.4. HEZITZAILEENTZAKO GIDAK: ANIZTASUN FUNTZIONALAREN INGURUKO GIDA, DROGOMENPEKOTASUNAREN INGURUKO GIDA.....	75
3.5. ARABAKO GAZTEEN LURRALDE KONTSEILUA.....	79
3.6. PARTE-HARTZEA EUROPAN TXOSTENA.....	80
3.7. EUTOKIA. BELAUNALDIEN ARTEKO TOPAKETA.....	83
3.8. EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZA PROGRAMA.....	85
3.9. GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA.....	87
4. BAKEA eta BIZIKIDETZA.....	89
4.1. GIDA-LIBURUA+PROPOSAMENAK EUSKARAZKO BERTSIOA.....	89
4.2. GIDA-LIBURUA ETA DOKUMENTALAREN ZABALPENA.....	90
4.3. BAKE LANTALDEA.....	92
4.4. BAKE TEKNIKARIAREN LAN DEIALDIA.....	94
4.5. ALDUNDIEKIN ETA HIRIBURUETAKO UDALETXEEKIN HARREMANAK EGIN ETA LANKIDETZA SUSTATU.....	95
4.6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA ARLOAN IKERTZEN DUTEN ZENTROEKIN HARREMANAK EGIN ETA LANKIDETZA SUSTATU.....	96
4.7. NAZIOARTEKO BAKEAREN EGUNA EKITALDIA: #GAZTEOKBIZIKIDETZAN.....	99
4.8. GIZA ESKUBIDE ETA BIZIKIDETZARAKO EGUNGO ERRONKAK LANTZEKO EKINTZAK.....	103
4.9. IRAGAN HURBILAREN MEMORIA ETA GIZA ESKUBIDEAK.....	108
4.10. HITZARMENAREN BAITAN GARATUKO DIREN PROIEKTUEN PROPOSAMENA (2018-2020).....	111
4.11. PROTOKOLOA.....	112
4.12. EGUNEROKO LANA.....	114
5. BERDINTASUNA.....	116
5.1. SEXUALITATEAREN KOLOREAK GIDAREN AURKEZPENA.....	116
5.2. GAUR8 BERDINTASUN LAN-ARLOKO LANTALDEA.....	120
5.3. BERDINTASUN PROTOKOLOAK.....	122
5.4. EGKREN I. BERDINTASUN PLANA.....	125

5.5. GUNE ANITZA	127
5.6. BERDINTASUN EZARI... #GUKEZETZ! RECACCIONA – BIDEO LEHIAKETA	131
5.7. 'INDARKERIA MATXISTARI... #GUKEZETZ!' KANPAINA	131
5.8. #GAZTEOKBIZIKIDETZAN	139
5.9. SEXBERDIN HIRUBURUA.....	139
5.10. EGUNEROKO LANA.....	143
6. KOMUNIKAZIOA.....	150
6.1. RECACCIONA 'BERDINTASUN EZARI... #GUKEZETZ!'	150
6.2. PIZTU! HAMABOSTEROKO BULETIN DIGITALA.....	156
6.3. www.egk.eus WEBGUNEA.....	159
6.4. DISEINATZAILE GAZTEEN LAN-POLTSA BERRITU.....	163
6.5. TWITTER LEHIAKETA.....	165
6.6. SARE SOZIALAK.....	166
6.7. KOMUNIKAZIO KANPAINAK.....	172
6.8. BARNE KOMUNIKAZIO KUDEAKETA ETA BESTE BATZUK	177
6.9. IRUDI KORPORATIBOAREN GARATZE ETA BERRITZEA.....	179
7. PRESIDENTZIA.....	181
7.1. BATZORDE IRAUNKORRA.....	181
7.2. LANTALDE TEKNIKOAREN KOORDINAZIOA.....	183
7.3. BATZORDE EKONOMIKOA.....	185
7.4. BATZAR OROKORRA.....	187
7.5. LANKIDETZA ETA ORDEZKARITZA.....	189

O. SARRERA

Dokumentu honetan, EGK-k (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) 2017an zehar egin duen lana jasotzen da. Atalez atal, proiektu guztiak azaldu eta baloratu dira.

Martxoaren 11n EGK-ko 37. Batzar Orokorra ospatu zen. Bertan Batzorde Iraunkorraren aukeraketa egin zen eta Presidentzia Maialen Olabek hartu zuen. Horrekin batera beste 9 kide sartu dira. Gainera, Bake protokoloaren onarpena bezalako erabakiak hartu ziren.

EGKren irudi korporatiboaren aldaketarekin jarraitzeko triptiko berriak eta bideontzako kareta korporatiboak sortu dira. Gainera, bulegoetako leihoen eta ateen biniloak aldatuko dira.

Oro har, proiektu guztien gauzatzea arrakastatsua eta kalitatezkoa izan da. Aurreikusitako ekintza gehienak burutu dira eta denetatik ondorioak eta mamia atera da. Horiengatik ez balitz, Kontseiluak ez luke diskurtsoa osatzerik, ez eta erakundeei aholku ematerik.

Gazteengandik lortutako parte-hartzea esparru batzuetan baxuagoa izan dela nabaritu egin da; hori dela eta, parte hartze hori handitzeko estrategiak bilatu behar dira hurrengo urterako.

Berdintasun arloak izan du protagonismo gehien urte honetan zehar, aurreko urteko batzarrean onartu egin zen erasoen gaineko protokoloaren aktibatzearekin eta #GukEzetz! kanpainarekin; horrekin batera aurten Etxebizitza eta Enplegu arloan Enplegua, gazteria eta aniztasun funtzionala txostena argitaratu da eta Lan Egokiaren egunean manifestu bat plazaratu da. Gainontzeko arlo guztietan ekintza eta egitasmo ugari burutu dira: Bakea eta Bizikidetza lan-arloan, azken hiru urteetan burututako proiektuak jasotzen dituzten material pedagogikoen aurkezpen publikoa eta EGK eta EJKo Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetza-hitzarmena beste hiru urtetarako eguneratzea; Hezkuntzan Astialdiko eskolen etorkizuna eta lantaldeen koordinazioa; Hezkuntzako eragileen Foroa eta burututako aldarrikapenak; Mugarik Gabeko Aniztasuna Gida; Komunikazio lan-arloan Twitter lehiaketa; eta Parte-hartzean GaztEztabaida eta GazteOlinpiadak, batik bat.

Lantalde teknikoa momentu honetan 8 pertsonen osatzen dute. Haien kalitatea eta konpromisoa azpimarratzekoak dira. Ezaugarri eta gaitasun ezberdinak batzen dituzte denen artean, horrek EGK izugarri aberastuz.

Barne mailan, aurten lan arriskuen prebentziorako formakuntza saio bat burutu da. Izan ere, arlo honetan hutsune bat ikusi zen aurreko urtean. Modu honetan laneko istripuak ekiditea eta langileen osasuna hobetzea espero da.

EGKko langile eta kideek, zein administrazioetako arduradunek, oso positiboki baloratu dute 2017ko jarduna. Inoiz baino oihartzun handiagoa lortu da eta Kontseiluak egindako lana erakundeetako neurrietan islatu dela iritzi da. Datorren urteari begira aurrekoa hobetzea izango da asmoa.

1. ETXEBIZITZA eta ENPLEGUA

1.1 GAZTEAK ETA EMANTZIPAZIOA LANTALDEA

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzeak edo galtzeak suposatzen duen arazoa eta enpleguaren prekarietatearen arazoa orokortu da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahastuz.

Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta are lehenagotik ere pairatutako baldintzengatik ere.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko.

Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurten, ildo bera jarraitu nahi izan da, lan taldearen ekimenekin jarraituz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertu eta hausnartutako ondorioak administrazioari helarazi. Gazteriaren prekarietate egoeraren aurrean zein emantzipazio prozesuetan bizitegi-igarotze zuzenerako gazteriaren zailtasunen aurrean, gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu eta alternatibak eta hobekuntza-proposamenak sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak etxebizitza eta enpleguaren arloaren gainean batuko dituen eztabaida gune bat ezarri, gazteon prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak eraikitzeko.

- Administrazio gazteriaren artean enplegu arloan zubi-lana egin.
- Gazteriaren lan baldintzen eta emantzipatzeko arazoaren ondorioen salaketa publikoa egin, arduradun direnen ardura interpelatu.
- Eztabaida-gunean sortutako ekimenei jarraipena eman eta horren funtzionamendua kudeatu eta bultzatu gazte berrien parte hartzea lortuz.

Garapena

LANTALDEA:

Aurreko urtean Enplegua eta Etxebizitza arloan bi lantalde martxan jarri ziren, bata enplegukoa eta beste etxebizitzakoa. 2017ko plangintzan, aldiz, erabaki zen bi lantaldeak batzea gazte gehiago hurbiltzeko helburuarekin.

Emantzipa...Zer? lantaldeko bileretan gazteei zuzenduriko politika publikoez eta EGK-ko proiektu desberdinez hausnartu egin da, izan ere, honen funtzioa horien kontrastea egitea da. Horretarako parte hartzaileek proposamenak egiteko aukera izan dute. Gainera, enplegu eta etxebizitzako politika publikoen informazioa jaso dute.

Bilerak EGK-ko Bilboko eta Gasteizko bulegoetan burutu dira. Uda hasieran hilabetean behin batu da eta ostean bilerak egiteko zailtasunak direla eta, kantitatea jaitsi da. Lantaldearen bilera gehienak taldeka izan diren arren, batzuetan parte hartzaile bakoitzarekin bilera indibidualak egin dira eta beste batzuetan harremana emailen bitartez mantendu da. Momentu honetan lantaldean gazte gehiago parte hartzeko bide berrien hausnarketa ematen ari da.

LAN EGOKIAREN KANPAINA:

Aurreko urtean, enplegu lantaldeak urriaren 7an, Lan Egokiaren egunean, adierazpen bat egitea proposatu zuen. Hori dela-eta, aurtengo plangintzan, egun hori baliatuz, kanpaina bat egitea adostu zen. Kanpaina horri amaiera emateko, EGK-k, lantaldeak egindako proposamenak batzen zituen manifestua plazaratu zuen.

LAN OSASUNAREN MANIFESTUA:



2015ean Lan Osasunaren manifestua berreskuratu zen. Hori dela-eta, apirilaren 28rako manifestua landu eta atxikimenduak batu ziren. Azkenik, egunean, manifestua publikatu zen.

-Manifestua: enplegu lantaldean landu egiten da eta elkarteei proposamenak egiteko aukera ematen zaie. Aurtengo manifestuan lan istripuen eta gaixotasun profesionalen datuak eguneratu dira eta proposamen berri bezala lan osasuna genero ikuspegi batetik landu behar dela gehitu da. Gainera, EGK-ko diseinatzaile gazteen lan poltsa osatzen dutenen artean diseinatzaile bat aukeratu da manifestuaren irudia berritzeko.

Manifestua ikusteko: <http://bit.ly/2xZb45D>

-Atxikimenduak: aurreko urteetan bezala, manifestuan lan taldean landu eta gero beste elkarte, sindikatu eta gizarte mugimendu batzeko atxikimendu epea ireki zen. Guztira, 19 atxikimendu jaso ziren: EGK, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, ASVIAME, Pastoral Obrera de Bilbao, Gazte Abertzaleak, Ausartzen, Sare Antifaxista, Juventudes Socialistas de Euskadi (JSE-EGAZ), Acción Católica General (EKO-ACG), Berri Otxoak, Federación Vasca de Junior Empresa, Ezker Anitza, Aldarte, Kale Dor Kayiko eta CCOO, ESK, LAB, LSB-USO eta UGT sindikatuak.

POLITIKA PUBLIKOEN JARRAIPENA ETA INTERPELAZIOA:

Urtean zehar, hainbat administrazioak gazteei zuzenduriko eta gazteentzat interesgarriak diren hainbat etxebizitza eta enplegu programa eta plan aztertu eta horien hausnarketa egin da. Hausnarketa horien ondorioak kargu politiko eta teknikoekin egindako bileretara eraman dira.

-Bizkaiko Foru Aldundia: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak gazte enpleguari buruzko mahai-inguru bat prestatu zuen urriaren 3an eta horretan parte hartu zuen EGK-k. Bizkaian enplegu arloan diharduten hainbat erakunde eta entitatetako ordezkariak elkartu ziren, eta bileraren formatuak hausnarketa eta elkarlana izan zituen oinarri.

-Eusko Jaurlaritza: Alde batetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailarekin bilera maiatzaren 23an burutu zen, arduradun politikoak egon zirelarik. Bertan, EGK-ko Enplegu eta Etxebizitzako proiektuak eta proposamenak azaldu ziren.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetza 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana lantzen ari da. Datozen urteetako etxebizitza politika berriaren diseinua parte-hartzailea

izatea erabaki zen eta lantalde horietako batean parte hartu zuen EGK-k. Hain zuzen ere, Etxebizitzarako sarbideko formula berriak lantaldean. Lantaldea 2017ko urriaren 24an bildu zen.

Gainera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, 'Etxebizitza' parte hartzeko plataformaren bitartez sortutako Etxebizitza izateko Eskubide Subjektiboari buruzko inkesta bete da eta lantaldeko kideei bidali zaie.

-Gasteizko Udala: Gasteizko Udaletxearen proiektuetan lantaldeko proposamenak txertatu dira urtean zehar.

-Bilboko Udaletxea: Martxoaren 23an Bilboko Udaletxeko Etxebizitza sailarekin bilera bat egin zen. Izan ere, etxebizitzaren inguruko ikerketa bat egiten ari dira eta gazteriaren ikuspuntua txertatzea nahi zuten.

PROPOSAMENAK:

2015ean argitaratu zen **"Gazteentzako enplegu planak sukaldatzeko GAZTEON ERREZETAK"**. Aurten, prentsako albiste baten ondorioz, dokumentuan azaltzen den proposamen bat berreskuratu zen. Lantaldean garatu eta gero martxoaren 9an EGK-ko sare sozialetan adierazpen bat ateratu zen. Landu den proposamena 'Gizarte laguntzak lortzeko oztopoak kendu' da.



Ikusi albistea eta adierazpena hemen: <http://bit.ly/2l6V2Fz>

GAZTE IKERLARIEN LAN BALDINTZAK:

Gazte ikerlarien lan baldintzen aldaketen ondorioz, eta Euskal Herriko Aurre-Doktoreen Asanbladako ikerlari gazteek egin zituzten eskaerak ikusita, Hezkuntza lan-arloarekin batera, adierazpen publikoa egin zen martxoaren 15ean. Egoera horren aurrean EGK-k prestutasuna adierazi zuen bai laguntza eskaintzeko eta baita behar den bitartekaritza

GAZTE IKERLARIEN LAN BALDINTZEN HARIRA

AL HILO DE LAS CONDICIONES LABORALES DE LAS PERSONAS INVESTIGADORAS

GAZTE IKERLARIK HAIEN ESKUBIDEEN GAINIKO INFORMAZIO EGUNERATUA IZATEA.
QUE LAS PERSONAS JÓVENES INVESTIGADORAS TENGAN INFORMACIÓN ESPECÍFICA Y ACTUALIZADA SOBRE SUS DERECHOS.

420 KONTRATUA SINATU DUTEN GAZTEEI 401 KONTRATURA BUELATZETZKO AUKERA IZANGO DUTEN ARGITZEA.
ACLARAR A LAS PERSONAS JÓVENES QUE YA HAN FIRMADO UN CONTRATO 420 SI TENDRÁN LA OPCIÓN DE TENER UN CONTRATO 401.

ETORKIZUNEAN EGOERA HAU ERREPIKATUKO EZ DELA ETA IKERLARIEN LAN BALDINTZAK OKERRERA EGINGO EZ DUTELA BERMATZEA.
GARANTIZAR QUE EN EL FUTURO ESTA SITUACIÓN NO SE REPETIRÁ Y QUE LAS CONDICIONES DE LAS PERSONAS INVESTIGADORAS NO EMPEORARÁN.

UPV/EHU IKERLARI KONTRATATUEN LAN BALDINTZAK DUINDUKO DITUELA BERMATZEA.
GARANTIZAR QUE LA UPV/EHU DIGNIFIQUE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DE LAS PERSONAS INVESTIGADORAS CONTRATADAS.

HORRETARAKO DAUDEN AUKEREZ BALIATUZ UPV/EHU IKERLARIEN PREKARIETATE EGOERA HOBETZERA KONPROMETITU DADILA.
QUE LA UPV/EHU SE COMPROMETA A MEJORAR LA SITUACIÓN PRECARIA DEL PERSONAL INVESTIGADOR USANDO PARA ESE EFECTO LOS DISTINTOS MEDIOS DISPONIBLES.

lana egiteko.

Ikusi adierazpena hemen: <http://bit.ly/2xZsEX1>

Ebaluazioa

- EGK administrazioen erreferentea izaten jarraitzen du. Urtean zehar administrazio desberdinetatik hainbat programa, neurri eta proiektuen kontrastea eta gazteen ikuspuntua txertatzea eskatu da.
- Politikari eta administrazioek proposamenei harrera ona egin diete eta datorren urtera begira hauen txertatzearen jarraipena egingo da.
- Lan taldearen bideratzea eta bertan elkarleen parte hartzea ez da nahi bezain ona izan, hau lan karga handiarekin nahastuta urte bukaeran taldearen indarra galtzea ekarri du.
- Aurten etxebizitza eta enplegu arloak jorratu dira lantaldean eta proposatutako ekintzen bideraketa ematen ari da.
- Urtero Lan Osasunaren manifestuan proposamen berriak gehitzen dira, eta horietako batzuk elkarrekin egindakoak dira. Beraz, haien inplikazioa lortzen da manifestuaren bitartez.

1.2. PERTSONA GAZTE BAT ETXE-KALERATZEN DUTEN KASUETARAKO PROTOKOLOA: Hausnarketa eta eztabaida

EGKtik gazteriaren bizi baldintza prekarioak sortzen dituzten eta onartezinak diren egoera desberdinak salatu nahi dira. Etxebizitzaren arloan, gazte baten etxe kaleratze bat gertatzen den kasuetarako protokolo bat sortu nahi da, baina horretarako ezinbestekoa da lehenago hausnarketa eta eztabaida sakon bat egitea eta kasuak ondo aztertzea. Modu honetan, kezken zerrendetatik ia desagertutako gai hau mahai gainean jarri nahi da eta gazteen parte hartzearekin batera diskurtso bat eratu nahi da. Izan ere, gazteriaren egoera nabarmenki txarra da emantzipazioari dagokionez, tasa %20koa izanik (Observatorio de Emancipación).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Protokolo baten beharrari buruzko eztabaida eta hausnarketa sortu, pertsona gazte bat etxe-kaleratzen duten kasuetarako.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen etxe-kaleratzeen kasu eta egoerei buruzko analisia eta hausnarketa egin.
- Etxe-kaleratzeen datuak aztertu.
- Egoera desberdinak identifikatu eta protokoloaren barruan sartu ahal diren edo ez aztertu.

Garapena

HASIERA PUNTUA:

EGKn etxebizitzaren gaia duela urte asko lantzen da. Hala ere, justifikazioan agertzen den moduan, aurreko etxebizitzarekin lotura duen gai konkretu bat jorratu nahi zen. Hau da, gazte baten etxe-kaleratze duten kasuetarako protokolo bat jartzearen beharrari buruzko hausnarketa bultzatu nahi zen.

Gaiaren hausnarketa eta eztabaida emateko bideak aztertu ondoren bi bide desberdin jarraitzea erabaki zen. Alde batetik, bilera indibidualak burutu ziren interesa zuten pertsona gazteekin, eta bestetik, gaia jorratzeko deialdi bat zabaltzea erabaki zen.

Bestetik, Euskadiko egoeraren azterketa bat egin zen. Azterketa horretan datuen falta oztopo handi bat izan zen hausnarketa sakon bat egiteko. Gainera, etxe-kaleratzeen datuetan ez dira sartzen gazte asko bizi duten egoera. adibidez, alokairua edo kontratu gabeko kasuak. Gazteen Euskal Behatokiaren bitartez datuak lortzen saiatu arren, horrelako datuak ez daude haien datu basean. Ondorioz, aukera bakarra datuak izateko INE-a da eta bertan adina ez da kontuan izaten.

LANTALDEA SORTZEKO GONBITA ETA HONEN ANTOLAKETA:

Lantaldea eratzeak zailtasun handia zeukan, izan ere, aurreko urtean etxebizitza lantaldea martxan jarri zen baina urtean zehar indarra galdu zuen.

Hala ere, gai hau eta etxebizitzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko lantaldea eratzekeo deialdi bat sortu zen. Bertan ondorengo galderak planteatzen ziren:

- Zer arazo topatzen ditugu gazteok emantzipatzeko orduan?
- “Etxebizitzaren unibertsoa” gazteon behar eta nahientzako egokia al da?
- Zer eskatzen diogu gazteok ETXEBIZITZA DEKRETUARI?
- Beharrezkoa al da protokolo bat sortzea gazte baten etxe-kaleratze bat ematen den kasuetarako?

Gainera, lantaldearen deialdia zabaldu zenean 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren eta Etxebizitza Legea garatzen duen dekretuaren eztabaida ematen ari zen, beraz, oso momentu egokia zen bilera aurrera eramateko eta etxebizitzarekin lotutako hainbat gai jorratzeko. Deialdia EGK-ko elkarteen artean zabaldu zen, eta sare sozialetan zein web gunean jarri zen.

Bilera urriaren 18an egin zen EGK-ko Gasteizko egoitzan eta bertatik lortutako ondorioak EGK-ko diskurtsoa osatzeko baliagarriak izan ziren.

Deialdia osorik ikusteko: <http://bit.ly/2ARfX3f>

Ebaluazioa

- Ondorioak lantzen ari gara. Hala ere, bileretan lortutako hausnarketa asko EGK-ko diskurtsoan barneratuta zeuden.
- Lantaldearen deialdira gazte gutxi gerturatu ziren. Ondo aztertu beharko da ea gaia benetan interesekoa den edo zer egin daitekeen etxebizitzaren gaia erakargarria egiteko.
- Lortutako ondorioen artean etxe-kaleratzeen datuen falta agertu zen, eta hori gaia ondo lantzeko oztopo bat bezala ikusten da. Gainera, gazte gehienak alokairuan bizi dira eta horiek ez dira kontuan izaten. Are gutxiago kontratu gabe baldin badaude.

- Nahiz eta protokolo bat osatzea ezinezkoa izan den, hainbat ideia gehitu dira EGK-ko diskurtsora.

13. ENPLEGUA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA

Gazteria gizartea bera bezain anitza da. Edozein gazte enplegu politiketan aniztasun honi so egin eta gazteriaren barne dauden kolektibo ezberdinen behar zehatzen hausnarketa sakona bideratu beharko zen. Gainera, politika publikoetan proposatzen diren neurriak kolektibo horiekin adostuak eta kontrastatuak izan behar dira. Horietako kolektibo bat da aniztasun funtzionala duten gazteena.

2017an enplegua eta aniztasun funtzionala jorratuko duen jardunaldi bat prestatuko da, beti ere gazteriaren ikuspegitik. Jardunaldiekin aniztasun funtzionala duten gazteek lan munduan sartzeko eta lan munduan daudenean dituzten arazoak identifikatu eta azaleratu nahi dira, baina, batez ere, egoera hobetzeko proposamenak egitea eta administrazio ezberdinei helaraztea da helburua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Kontuan izanda gazteria anitza dela aniztasun funtzionaleko gazteak lan munduan dituzten arazoak eta egoerak aztertzea eta proposamenak sortu administrazioei helarazteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Enpleguari eta aniztasun funtzionalari buruzko jardunaldiak koordinatu beste eragile batzuekin.
- Enpleguaren arloan aniztasun funtzionala duten gazteen eskaerak eta hobekuntzarako proposamenak zabaltu, administrazioaren eta gazteriaren artean bitartekotza lana eginez.

- Behar espezifikoaren analisiaren bitartez politika publikoek aniztasunari arreta ipini behar diotela erreibindikatu, aukera-berdintasuna eta inklusioa bermatzeko.

Garapena

EGITURA ETA ANTOLAKETA LANA:

Jardunaldia egituratzeko eta dinamika antolatzeako ondorengo pausuak eman dira:

1. Jardunaldiaren egitura antolatu: Lehenengo pausua jardunaldiaren egitura pentsatzea izan zen.

Jardunaldi horren helburua aniztasun funtzionala duten Euskadiko gazteek lan bat aurkitzeko eta behin lan bat aurkitzen dutenean dituzten lan baldintzen problematikaren inguruko hausnarketa bat bultzatzea zen.

Jardunaldia hiru zatitan banatzea erabaki zen, guztira bi ordu eta erdiko iraupenarekin:

1) Mahai inguru bat (1 ordu): Bertan, gaia lantzen duten hainbat gizarte agentek parte hartu zuten,

2) Dinamika (1 ordu): Gerturatu direnen artean dinamika parte hartzaile bat burutu zen iritziak, beharrak eta hausnarketak plazaratzeko denbora izanik.

3) Plenaria (20 minutu): Mahai bakoitzeko ondorio eta proposamenak partekatuko ziren. Jardunaldiaren ondorioak jaso eta gero, lan egiten dugun administrazioei helaraziko dizkiegu haien politika publikoak egiterako orduan kontuan har ditzaten.

Bestetik, mahai inguruan agenteek erantzun beharko zituzten galderak ondorengoak izango zirela erabaki zen:

- Zein zailtasun dituzte aniztasun funtzionala duten gazteek laneratzekoan?
- Eta behin lana aurkitua, zein lan-baldintzekin egiten dute topo?

2. Agente desberdinekin bilerak:

Proiektua eta jardunaldia ezagutzera emateko gaia lantzen duten hainbat agenteekin bilerak burutu ziren prozesu osoan zehar. Gainera, mahai inguruan eta dinamikan parte hartzera gonbidatu zitzairen. Bestetik, jardunaldia hobetzeko asmoarekin haien proposamenak jaso ziren. Ondorengo elkarte eta agenteekin bilera presentzialak egin ziren:

- Juventudes de Unidad Progresista- ONCE.
- Comisiones Obreras sindikatua.
- Lantegi Batuak.
- EHLABE.
- Euskal Gorra.
- Urtxintxa Eskola.

Aipatu beharra dago sindikatu guztiei bidali zitzaizela gonbita. Gainera, Lanbideko Enpresarako Zerbitzuko Zerbitzuarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin telefonoz bilerak mantendu ziren.

3. Jardunaldia egiteko data zehaztu eta aretoa eskatu:

Jardunaldia maiatzaren 10ean egitea erabaki zen eta aukeratutako lekua Bolunta aretoa izan zen, izan ere, egokitutako leku bat da. Aretoaren eskaera otsailaren 21ean egin zen

4. Jardunaldiaren kartela egin:

Aurre aukeraketa prozesu baten bitartez, diseinatzaile lan-poltsatik diseinatzaileetako bat aukeratu eta proiektuaren ideia aurkeztu eta kartela egiteko aurrekontua eskatu zitzaion apirilaren 19an. Aurrekontua onartu zen eta behin betiko kartela apirilaren 22an jaso zen.



5. Jardunaldiaren deialdia zabaldu:

Apirilaren 24an jardunaldiaren zabalpena egin zen. Alde batetik, EGK-ko elkarteei emailaz bidali zitzairen gonbidapena. Bestetik, Komunikazio teknikariarekin batera berriaren hedapena egin zen

sare sozialen eta EGKren webgunearen bitartez. Gainera, parte-hartzaile potentzialei gonbidapena luzatu zitzaien.

Ikusi albistea hemen: <http://bit.ly/2p8B8bv>

JARDUNALDIA:

Maiatzaren 10ean jardunaldia hasi aurretik dinamikako dinamizatzailleak (EGK-ko Presidente, Parte-Hartzeko teknikaria eta Enplegu eta Etxebizitzako teknikaria) batu eta guztia antolatu zuten (aretoa egokitu eta antolatu, materiala erosi eta eraman eta hizlariak agurtu).

Jardunaldia 16:30etan hasi zen mahai inguruarekin eta hizlariak ondorengoak izan ziren:

- Marta Palenzuela (Lanbideko Enpresarako Zerbitzuko teknikaria)
- Maite Eguskizaga (Bizkaiko Foru Aldundiako teknikaria)
- Pablo Moratalla (EHLABE)
- Nuria Fernandez (Lantegi Batuak-Langilea)
- Santi Martinez (CCOOko Gizarte mugimenduko idazkaria)
- Estibaliz Perez de Beobide eta Jabier Rios (Juventudes de Unidad Progresista-ONCE)

EGK-ko presidenteak planteatutako bi galderei erantzun zieten, horretarako 10 minutu izanik.

Ostean, bertaratu zirenek galderak egiteko tartearen ondoren, hiru talde egin zituzten aipatutako gaiei buruzko eztabaida txikiak sortzeko. Planteatu zitzaien galderak ondorengoak izan ziren:

1) Zein arazo dute laneratzeko aniztasun funtzionala duten pertsonen? Eta behin lana topatu dutenean?

2) Zein hobekuntza proposamen egingo zenuke?



Azkenik, talde bakoitzeko kide batek gainerakoei bere mahaian eztabaidatutakoa laburtu zien, bai adostasunak kontatuz bai bidean landutako ideia, proposamen, zalantza, kezka eta bestelakoak mahai gainean jarritz.

Maiatzaren 11n berri bat altxatzen da EGKren webgunean jardunaldiaren laburpenarekin.

ENPLEGUA, GAZTERIA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA TXOSTENA:

Azaroan jardunaldiaren eta gaiaren lanketaren fruitu izan diren proposamenak txertatu dira txosten batean. Gainera, egun dauden datuen eta testuinguru arauemailearen atal bat sartu da. Txostenari amaiera emateko, aniztasun funtzionala duten gazteei zuzenduriko programa eta kontrataziorako laguntza ekonomikoen laburpen bat gehitu da. Txostena abenduaren 13an zabaldu da EGK-ko web gunean eta sare sozialetan.



Txostena ikusteko: <http://bit.ly/2z6G9YF>

Ebaluazioa

- Jardunaldia oso aberasgarria izan zen. Alde batetik, elkarte, administrazio eta gazte desberdinak harremanetan jartzeko baliagarria izan zelako, eta bestetik, gazteen iritziak eta hausnarketak jasotzeko.
- Jardunaldiaren partaidetza egokia bezala ebaluatzen da. Mahai inguruan agente desberdinek parte hartu zuten eta dinamikan 3 mahai osatu ahal izan ziren eta guztietan gazteak egon ziren.
- Txostena egiteko jardunaldian atera ziren proposamenak eta mugak kontuan hartu dira. Horien sakontasuna eta kalitatea oso egokia ikusten da, eta EGK-ko diskurtsoa osatzeko oso baliagarriak dira.

- Aniztasun funtzionala bezalako gaia lantzea oso interesgarria ikusten zen urte hasieran, izan ere, EGKn landu gabe zegoen gai bat zen. Urtean zehar egin diren ekintzen bitartez ideia hori berretsi da.
- Elkarre, administrazio eta gazteekin burutu diren bilerak baliagarriak izan dira jardunaldia prestatzeko eta EGK-ko barne prozedurak hobetzeko.

1.4. ENPLEGU ARLOAN LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEKIN HARREMANA

Bitartekaritza, aholkularitza, elkarren arteko lankidetzat eta hausnarketa oinarri hartuta, 2017an enplegu arloan lan egiten duten eragileekin harremana sendotzea eta harreman berriak sortzea funtsezkoa da EGKrentzat. Izan ere, aurrera eramango diren proiektuetan parte-hartzea sustatu eta indartu nahi da, EGK erreferente bihurtuz enplegua eta gazteria arloan. Era honetan, lan arloaren nondik norakoak errealitate desberdinetara iritsiko dira eta gazte gehiagoren parte hartzea bermatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta enplegu arloan lan egiten duten elkarre, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortu eta sendotu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat eman beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortu.

2017an zehar elkarte, agente eta administrazio desberdinekin harremana sortu eta mantendu da.

1) CENTRO UBA-ko GAZTEEI FORMAZIO IKASTAROA: Martxoaren 29an UBA zentroko gazteei formazio ikastaro bat eman zitzaien. Ikastaroa bi zatitan banatu zen eta Berdintasun eta Enplegu eta Etxebizitza teknikariek eman zuten..

Lehenik, zer den EGK, zein den bere funtzioa eta gazteek eta emakumeak enpleguarekin eta lan munduarekin duten harremana, besteak beste, kontatu genien 14 eta 16 urteko gazteei. Bigarren zatian, jardunaldian zehar ikasitako kontzeptu eta ezagutzak ebaluatzeko asmoz joko bat egin genuen emandako azalpenei buruzko galderekin.



2) CES VASCO: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak pertsona gazteen enplegarritasunari buruzko ikerketa bat prestatzen ari da. Haiek eskatuta, ekainaren 7an gazteriaren enplegarritasunari buruzko mahai inguru batean parte hartu zuen EGK-k. Gainera, lankidetza bat sortu zen gazte desberdinek osatutako focus group bat osatzeko asmoarekin. Focus group-a urriaren 16an ospatu zen eta 13 gazte parte hartu zuten. Horren helburua gazteen ikuspegia ikerketan txertatzea zen, eta horretarako galdera desberdinak planteatu ziren.

3) DEMA: DEMA-Enpresa Garapena Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen Enpresa Sorkuntza eta Garapenerako Agentzia da. EGKrekin harremanetan jarri ziren DEMAtik bertan egiten dituzten ekintzak azaltzeko eta horien zabalpenean laguntza eskatzeko. Izan ere, gazteria izaten da haien ekintzen publiko potentzial bat. Bilera uztailaren 18an egin zen.

4) LANTEGI BATUAK: Lantegi Batuak-eko ordezkari desberdinekin harremana sortu da. Alde batetik, "Enplegua, gazteria eta aniztasuna funtzionala" jardunaldia aurkezteko eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko, eta bestetik, EGK-k egiten duen lana aurkezteko. Gainera, haien eginkizuna ondo ezagutzeko aukera bat izan da.

5) JUVENTUDES DE UNION PROGRESISTA-ONCE: EGK-ko elkarte bat da. "Enplegua, gazteria eta aniztasuna funtzionala" jardunaldia aurkezteko eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko haiekin bilerak burutu dira. Gainera, haiengatik ekarpenak jaso dira EGK-ko baliabideak (webgunea, dokumentuak, txostenak, sare sozialak...) irisgarriagoak egiteko.

6) CCOO SINDIKATUA-GAZTEAK: EGK-ko elkarte bat da eta ordezkari bat enplegu lantaldean parte hartzen du. Urtean zehar hainbat bilera mantendu dira proiektu desberdinak kontrastatzeko. Bestetik, "Enplegua, gazteria eta aniztasuna funtzionala" jardunaldian parte hartu zuten.

7) EUSKAL GORRAK-GAZTEAK: EGK-ko elkarte bat da eta horren ordezkariekin harremana sortu da, alde batetik, "Enplegua, gazteria eta aniztasuna funtzionala" jardunaldia aurkezteko, eta bestetik, Lan Egokia kanpainan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko.

8) URTXINTXA ESKOLA: Urtxintxa eskola EGK-ko elkarte bat da. Bertako arduradun batekin bilera bat egin zen, EGK-ko enplegu eta etxebizitza arloko proiektuak aurkezteko.

9) EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarteak): EHLABE-ko ordezkari batekin bilera bat egin zen "Enplegua, gazteria eta aniztasuna funtzionala" jardunaldia aurkezteko eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko. Gainera, haien eginkizuna ondo ezagutzeko aukera bat izan da, izan ere, aniztasun funtzionala duten gazteei zuzenduriko enplegu programa zehatz bat daukate.

10) ORIENTA ZAITEZ FUNDAZIOA: Bilera bat egin zen otsailaren 17an, izan ere, EGK-ko parte hartzea nahi zuten PRESTIK azokan. Momentu horretako lan karga handiagatik ezinezkoa izan zen azokan egotea.

11) GASTEIZKO LEGELBITZARREKO EUSKAL HERRIA BILDU: Bi bilera egin dira 2017an. Lehenengoa (2017/04/06), Gazteriaren Legeari buruzko informazioa elkartrukatzea izan zuen helburu eta gainera, EGK-ko 2017ko eta aurreko urteetako proiektuak aurkeztu ziren. Bigarren bilera (2017/11/2), Lan Osasunari buruzko informazioa emateko eta gai horretan EGKren diskurtsoa azaltzeko bilera izan zen.

12) BILBOKO UDALETXEA: Bilboko Udaletxeko Etxebizitza sailarekin bilera bat egin zen. Izan ere, etxebizitzaren inguruko ikerketa bat egiten ari dira eta gazteriaren ikuspuntua txertatzea nahi zuten.

13) GASTEIZKO UDALETXEA: 2017an zehar hainbat bilera mantendu dira Gasteizko Udaletxeko Gazteria Zerbitzuarekin. Alde batetik, hitzarmenaren jarraipena egiteko eta bestetik, Gasteizko Udaletxeko Gazteria Zerbitzuko eta EGK-ko enplegu eta etxebizitza proiektuen lanketa egiteko. Esate baterako, Zirriboratu zure etorkizuna, Itzulera gida eta Enpleguako praktika onak proiektuak.

14) BIZKAIKO FORU ALDUNDIA: Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatuta dagoen hitzarmena dela eta, teknikariei GazteLabelean formakuntza emateko saio bat egin zen irailaren 22an. Formakuntza aurrera eramateko, telefonoz harremana mantendu zen Bizkaiko Foru Aldundiako Behatokiko teknikariekin. Bestetik, BFA-ko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak gazte enpleguari buruzko mahainguru bat prestatu zuen urriaren 3an eta horretan parte hartu zuen EGK-k. Azkenik, maiatzaren 5ean egindako jardunaldian sail horretako teknikari bat parte hartu zuen mahai inguruan, Bizkaiko Foru Aldundiako enpleguak neurriak azaltzeko. Jardunaldian bere parte hartzea adosteko harreman bat sortu zen telefonoz eta emailaz.

15) EUSKO JAURLARITZA:

Maiatzaren 23an bilera bat egin zen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailarekin. Bertan, EGK-ko enplegu eta etxebizitzako proiektuak eta proposamenak azaldu ziren. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzarekin lanketa bat eman da 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana diseinatzeko.

Ebaluazioa

- Gazteriaren datuak aztertzeke eta konpartitzeko modu bat da.
- EGK-k urte hauetan jasotako informazioarekin beste erakunde batzuei aholkularitza eman izan ahal zaie.

- EGKrekin harremanik ez zuten elkarte eta kolektibo berriekin harreman sortzea lortu da eta oso positiboki baloratzen da hori.
- Enplegu arloan erreferente den CES Vascorekin harremana eta lanketa bat egitea lortu da, haiek egiten ari diren ikerketa baten ondorioz. EGK erreferente izatea gazte enpleguan oso positiboa da.
- EGKren parte diren elkarteekin izandako bilerak oso aberasgarriak izan dira eta etorkizunerako errekurtsioak lortu dira. Guztietan hartu eman bat egon da, hau da, alde batetik EGKren lana azaldu egin zaie eta bestetik, haien lana EGKra hurbildu dute. Gainera, errealitate desberdinak ezagutzeko balio izan dute.
- Administrazioekin egindako bilerak emangarriak izan dira eta harremana mantentzeko oso baliagarriak bezala baloratzen dira.
- EGK-k enpleguan egiten duten lanaren irudia sendotzeko ezinbestekoa izan da.
- EGKren erronka handienetako bat gazte guztiengana heltzea da, Euskadin dauden errealitate eta behar guztiak identifikatu eta ondoren administrazio eta politikariei horiek helarazteko. UBA zentroko gazteekin batzea oso aukera baliagarria izan zen, euren bizipen, zalantza, ardurak eta bestelako ideiak entzun eta bildu ahal izateko. Gainera, haien etorkizunean erabili ahal izango dituzten baliabideak eman zitzaizen.
- Koordinazio lanaren garrantzia hain handia izanik honetan indarra jartzen jarraitzeko helburua mantentzen da.

1.5. GAZTELABEL: GAZTERIA POLITIKA PUBLIKOEN KALITATE ZIGILUA

2015ean gazteria politika publikoak gazteen perspektiba batetik ebaluatuko dituen sistema bat garatu zen. Arkitekturan Ziurtagiri energetikorako zigiluak, hezkuntzan Q kalitatea zigiluak edo elikagaietan EuskoLabel zigiluek haien eremuetan egiten duten moduan.

2016an GazteLabel martxan jarri zen proiektu pilotu gisa. Prozesuan zehar sistemaren indargune eta ahulgune batzuk identifikatu ziren eta horren ondorioz moldaketa batzuk egin dira. Gainera, prozesuan zehar sortu ziren oztopo batzuen ondorioz, ez zen posible izan proiektua bukatzea.

Urte honetarako GazteLabel proiektu pilotuarekin bukatzea espero da, eta bigarren neurri baten kontrastea egingo da, modu honetan ikusiz zein izan daitekeen GazteLabelaren etorkizuna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen perspektiba batetik eta administrazioarekin elkarlanean, gazteria politika publikoak ebaluatu eta kalifikatzeko sistema bat garatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- GazteLabel 2016 prozesuarekin amaitu
- Bigarren neurria aurkeztuko duen administrazioarekin harremanetan jarri.
- Bigarren neurriaren kontrastea egin.
- Kontraste agente berrien formazioa egin.
- Kontrastatuko neurrien jarraipena eta emaitzen zabalkuntza.

Garapena

GAZTELABELKO KONTRASTE AGENTEEN FORMAZIOA:

GazteLabel aurrera eramateko eta administrazioen politikak ondo ebaluatu ahal izateko ezinbestekoa da kontraste agenteen parte hartzea. Izan ere, GazteLabel metodologiaren barruan kontraste agente horien formazioa eta izendapena aurreikusten da. 2017an formazio saio bat egin da.

1) FORMAZIO SAIOAREN ANTOLAKETA:

1.1) Deialdia: Behin data eta lekua aukeratuta, formazio saioa zabaltzeko deialdi bat argitaratu zen EGK-ko webgunean irailaren 7an. Gainera, EGK-ko elkarteei emailaz bidali zitzairen gonbidapena eta deialdia. Bukatzeko, sare sozialetan formakuntzaren berri eman zen.

Deialdia ikusteko hemen: <http://bit.ly/2j5kR84>

1.2) Formazioaren antolaketa: GazteLabelaren formazioa egokia izateko ezinbestekoa da materiala izatea. Beraz, formazioa egin baino lehen beharrezkoa zen materiala prestatu zen. Horretarako, parte hartzaileei eman beharreko dokumentazioa prestatu, eguneratu eta inprimatu zen. Dokumentuak ondorengoak izan ziren:

- GazteLabelaren kontrastea egiteko ereduaren txostena.
- GazteLabelaren eskaera egiteko beharrezkoak diren dokumentuak.
- GazteLabelaren praktika egiteko dokumentua.
- Formazioa emateko Power Point-a.
- GazteLabelaren argibideak eta ereduaren txostena.

Sortutako dokumentuak alde teorikoa eta praktikoa jorratzeko prestatu ziren eta formazio-saioa ondo jarraitzeko Power Point bat egin zen.

2) FORMAZIO SAIOA:

2.1) Egitura: Formazio saioa bi ataletan banatu zen. Lehenengoa, teorikoa izan zen. Bertan, GazteLabelaren nondik norakoak azaldu ziren, besteak beste:

- GazteLabelaren helburuak.
- Kontrastatu beharreko proiektuen irizpideak.
- Kontrasterako talde pilotua.
- Kontraste prozesua.
- GazteLabelaren kontraste faktoreak.
- Diseinua.
- Nola egin kontrastea.

Azalpenak ematen ziren bitartean galderak egiteko aukera egon zen.



Formazioaren bigarren atala, kasu praktiko baten ebaluazioa egitea izan zen. Parte-hartzaileak taldeka banatu ziren administrazioko teknikariak eta gazteak nahastuz. Guztira lau talde sortu ziren. Talde bakoitzean Enplegu eta Etxebizitza teknikariak planteatutako kasu praktiko bat egin behar izan zuten. Kasu praktikoa aurrera eramateko banatutako dokumentuak eta aurretik emandako azalpenak erabili ziren. Azkenik, talde bakoitzeko bozeramaileak kasu praktikoa azaldu behar izan zuten. Gainera, kasu praktikokoaren ebazpena azaltzen zen bitartean taldeetatik ekarpenak jaso ziren.

2.2) Parte-hartzaileak: Guztira 25 pertsona parte hartu zuten, gazteak eta administrazioko teknikariak egon zirelarik. Parte hartzaileak ondorengoak izan ziren:

- Bizkaiko Foru Aldundiako Behatokiko hiru teknikari.
- Gipuzkoako Foru Aldundiako Gazteria Zerbitzuko bi teknikari.
- Arrigorriagako Gazteria Zerbitzuko koordinatzailea.
- Saturnino de la Peña BHIko (Sestao) Animazio Soziokulturala eta Turistikoko Saileko bi irakasle.
- Hamasei gazte.
- Azkenik, Enplegu eta etxebizitza teknikariak dinamizatzailerak lanak bete zituen.

2.3) Kontraste agente izateko ziurtagiriak: GazteLabelean formazio-saioa jasotzen duten pertsonen kontraste agente izateko eta formazioa jaso izanaren ziurtagiria ematen zaie. Beraz, behin formazio saioa bukatuta, parte hartzaile guztiei ziurtagiria bidali zitzaion.

GAZTELABEL 2016 PROZESU PILOTUA:

2016an, GazteLabelaren metodologia frogatzeko prozesu pilotua aurrera eraman zen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak bere gazteentzako enplegu politikak eskaini zituen eta prozesu pilotua Lehen Aukera 2015 programarekin garatu izan zen. Behin-behineko GazteLabel proposamen egin zen, eta arduradunek hori aztertzen ari dira.

GAZTELABEL 2017:

2017rako bigarren neurri baten kontrastea egitea adostu zen plangintzan. Horretarako, Gasteizko Udaletxeko Gazteriako Zerbitzuko arduradunekin adostu eta haien neurri bat aukeratu zen. GazteLabel prozesua 2018an zehar garatuko da, izan ere, neurri horren emaitzen zain daude.

Ebaluazioa

- Politika publikoak kontrastatzen eta ebaluatzen dituen sistema bat egotea oso garrantzitsua da, eta GazteLabela lan hori onarpen handiarekin bete izan du urtean zehar. Hala ere, EGK-k lan hori egiteko baliabide nahikorik ez dauzka, izan ere, oso prozesu luzea, konplexua eta lan handikoa da.
- GazteLabeleko kontraste agenteen formazio-saioa oso positiboki baloratzen da. Parte hartzea handia lortu zen eta gainera, administrazioko teknikariak eta gazteak elkarrekin lan egitea lortu zen.
- Formazio-saioan parte-hartu zutenen balorazioa oso ona da eta GazteLabelaren funtzioa ezinbestekoa bezala ikusten da. Gainera, politika publikoen ebaluazioak eta emaitzak bezalako atalen beharra indartzea azaleratu zen.
- Formazio-saioarekin kontraste agente berriak trebatzea lortu da. Hau ezinbestekoa da hurrengo GazteLabela aurrera ateratzeko.
- GazteLabel formazio-sarioaren deialdiaren zabalpena egin zenean interesa piztu zuen erakunde publikoetan eta pribatuetan.
- GazteLabel 2016 prozesu pilotua ezin izan da amaitu EGKrekin zerikusia ez duten hainbat arazorengatik.

1.6. LAN EGOKIA KANPAINA

Langabezia tasa altuez gain, gazteek gehien pairatzen duten arazoetako bat lan prekarietatea da. Hala ere, prekarietate hau krisi ekonomiko hasi aurretik bazegoen presente gazteen bizitzetan eta, azken urteetan, areagotu besterik ez da egin. Prekarietatearen baitan ematen

diren ekintzen artean, kontraturik gabeko langileak, autonomo faltsuak, lan postuak estaltzen dituzten beka eta praktikak, lan arriskuak, betetzen ez diren lan kontratuak, diskriminazioak, etab. aurkitu ditzakegu.

Aurten gazteentzako lan egokia zer den jakiteko kanpaina bat abian jarri da. Gazteek hainbat moduren bitartez azalduko ahal izan dute euren iritzia. Horrela ba, gazteriaren nahiak eta beharrak azaleratuko dira eta gazteen errealitatea islatuko da. Gainera, kanpainen zehar ateratzen diren proposamenak administrazioei helaraziko zaizkie.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gizartea gazteriaren enpleguaren kalitatearen garrantziaren gainean kontzientzia kanpaina baten bitartez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen lan baldintzak hobetu eta pairatzen duten prekarietatea murriztu lan egokia eta enpleguaren kalitatea sustatuz.
- Gazteentzako lan egokia zer den ezagutu.
- Urriaren 7an, Lan Egokiaren egunean, manifestu bat sortu eta zabaldu.

Garapena

KANPAINAREN FASEAK:

Lan Egokia kanpaina **3 fase** desberdinetan banatu da:

1) Eta, zuretzako...zer da lan egokia?

Maiatzaren 5ean Donostiako EHUko Campus unibertsitarioan eta irailaren 12an Gasteizko EHUko Campus unibertsitarioan goiz osoan zehar modu



ibiltarian gazteekin egindako ekintza da. Bertara joan eta gazteei zuzenean galdetu zitzaien ea zer zen haientzako lan egoki bat. Gainera, EGK ezagutzera emateko tresna bezala erabili zen.

2) Kanpaina: Zer da lan egokia? Zure ekarpenak bidali eta elkarbanatu

EGK-ko sare sozialen bitartez, *Zer da lan egokia Euskadiko gazteentzat?* galdera luzatu zen. Modu honetan edonor ekarpenak egitea eta hauek formatu zein gaietan askotarikoak izatea ahalbidetu zen. Gainera, modu pertsonalean edo elkarte bezala egin zitezkeen. Sare sozialetan kanpaina mugitzeko erabilitako traola #TrabajoDecente izan da.

Bestetik, EGK-ko elkartei emailez kanpainaren berri eman zitzaien maiatzaren 12an. Horrela, haien ekarpenak bidali zitzaketen irailera arte.

Bukatzeko, kanpainaren albistea EGK-ko web gunean eskegi zen.

Ikusi albistea hemen: <http://bit.ly/2qUwSQT>

Gainera, parte hartzea sustatzeko ekarpenak egin zutenen artean kanpainarako diseinatutako poltsak banatu ziren.

3) Urriak 7, Lan Egokiaren eguneko manifestua

Urriaren 7an, Lan Egokiaren Egunaren harira manifestu bat zabaldu zen ordu arte jasotako ekarpen guztiekin eta enplegu lantaldean garatutakoekin. Ekarpene hauekin administrazioen inplikazioa lortu nahi da, gazteentzako kalitatezko lan merkatu bat erdiesteko.

Bukatzeko, lortutako ekarpen guztiekin bideo bate egin zen eta EGK-ko sare sozialen bitartez zabaldu zen.



Manifestua ikusteko hemen: <http://bit.ly/2y3uhWP>

Kanpainaren bideoa ikusteko hemen: <http://bit.ly/2zMFOo2>

Ebaluazioa

- Positibotzat jotzen da kanpaina osoa.
- Unibertsitateko campusetara hurbildu izanak bi alde positibo izan ditu. Alde batetik, kanpaina ezagutzera eman da eta gazteek parte hartu dute haien ekarpen eta proposamenekin. Eta bestetik, EGK ezagutzera eman da, izan ere, gazteen artean oraindik askok ez dute EGK ezagutzen edo ez behintzat egiten den lan guztia eta parte hartzeko dauden aukera guztiak. Beraz, ekintza baliagarria, eraginkorra eta arrakastatsua izan da.
- Sare sozialen bitartez ez dira ekarpen asko jaso. Etorkizunean antzeko kanpaina bat aurrera eramanez gero, esfortzu handiagoa egin beharko da. Gazteria zuzenean interpelatu denean, hau da, campusetara hurbildu garenean, emaitzak hobeak izan dira.
- Lortu diren proposamenak gazteengatik sortutakoak dira eta haien errealitatea islatzen dute. Horiek administrazioei helaraziko zaizkie.

1.7. POSIZIONAMENDU PUBLIKOAK: LAN ISTRIPUAK

Urteak dira EGK-k baduela martxan posizionamendu publikoak egiteko protokoloa: lan istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzaren ostekoa, alegia.

Lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean, heriotza bera eta gazteon lan-heriotzen errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egitean datza protokolo hau. Batzorde iraunkor eta komunikazio teknikariarekin batera garatzen etorri da proiektua azken urteotan, baina gaur egungo egoerak testuaren zenbait aldaketa eta protokoloaren eguneratzea eskatzen du, ahal izatekotan lantalde orokor baten barruan garatuta.

Gainera, aurten, apirilaren 28an Lan Osasunaren Nazioarteko eguneko manifestua berrituko eta zabaldu egingo da EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez. Modu horretan gazteriaren duintasun sozioekonomikoaren oinarriak aldarrikatu dira, lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeko helburuarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Maiztasunez gertatzen diren eta gazteoi bereziki jotzen diguten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan ipini gazte bat lan istripu bat izan duenean EGKri jakinarazteko.
- Arazoaren aurrean EGKren errefusa postura argia gizarteratzea.

Garapena

LAN ISTRIPUEN PROTOKOLOA:

Laneko istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzarekin aktibatzen den protokoloa da hau.

Protokolo hau azken urteetan garatutako enplegu arloko diskurtsoari egokitu zaio eta martxan jaritzen duten egoerak gehitu dira, hala nola, heriotza bat sortzen duten istripuez gain, zauri larriak sortzen dituzten lan istripuak gehituz.

Urtean zehar, protokoloari jarraipena egin izan zaio, lau aldiz martxan jarri da.

- 2017ko urtarrilaren 11n: Gazte baten heriotza.
- 2017ko maiatzaren 31n: Gazte baten heriotza.
- 2017ko ekainaren 6an: Gazte bat larriki zauritua.
- 2017ko ekainaren 14an: Gazte bat larriki zauritua.

Bestetik, Eusko Legebiltzarreko EH Bildu taldea EGKrekin harremanetan jarri da lan osasunaren inguruan agerraldi bat eskatzeko, izan ere, azken aldian lan istripuen gorakada eman da. Gazteen ikuspegia txertatzeko eta proposamenak helarazteko helburuarekin egingo den agerraldi bat izango da.

Ebaluazioa

- Protokoloa lau aldiz aktibatu da, bi kasuetan heriotzagatik eta beste bietan gazte bat larriki zauritua izan delako lan istripu baten ondorioz. Zifra hau protokoloa martxan jarri zenetik altuena da, beraz, nahiko kezkagarria da.
- Agerraldi batean lan osasunaren inguruan gazteriaren ikuspuntua azaltzea eta proposamenak helarazteko aukera izatea oso positibotzat hartzen da.
- Zoritxarrez, oraindik, protokoloa martxan jartzeko beharrezkoa diren datuak oso eskasak dira, eta normalean prentsan agertzen direnean egiten da.
- Protokoloa eguneratzea beharrezkoa ikusten da, izan ere, kasu batzuk ez daude jasota.

1.8. LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAN FORMAZIOA

Lan arriskuen prebentzioa EGK barneko talde teknikoaren funtzionamenduan presente egon behar da. Izan ere, EGKtik aspaldi aldarrikatzen da enpresetan ez dela behar bezain beste informazioa ematen eta geroz eta errekurtsu gutxiago daudela lan osasunaren alde lan egiteko. Ordea, hutsune bat ikusi da arlo honetan, horregatik, formazioa emango duen entitate batekin lan egingo da aurten talde tekniko guztia lan arriskuen prebentzioan formazioa jaso dezan. Modu honetan laneko istripuak ekiditea eta langileen osasuna hobetzea espero da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK barneko talde teknikoak laneko arriskuen prebentzioan duten ezagutzak handitu lan istripuak eta gaixotasunak aurreikusteko eta ekiditeko helburuarekin.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK barneko talde teknikoari zuzenduriko lan arriskuen prebentzioan formazioa emango duen eragilearekin harremanetan jarri eta horren bidez eman.

FORMAZIOAREN ANTOLAKETA

Legeak ezartzen duen moduan enpresak babes-betebeharra betetzeko haien langileak formazio egokia eta nahikoa jasotzen dutela bermatu behar du. Formazioa lanpostuan betetzen diren funtzioetara egokitua egon beharko da eta arriskuen bilakaerara moldatu beharko da.

Lehenengo pausua izan zen ikerketa bat egitea jakiteko zeintzuk ziren lantaldearen beharrak arlo honetan. Horretarako, gainera, EGK-ko lan arriskuen prebentziorako plana eta ebaluazioa aztertu ziren.

Behin bi dokumentu horien analisia eginda, EGK-ko prebentzioa eramaten duen enpresarekin hitz egin zen. Izan ere, haiek dira enpresako arriskuak hobeto ezagutzen dituztenak.

EGK-ko lantaldeko beharrak eta nahiak azaldu zitzairen, eta ondoren, presupuesto bat eskatu zen.

FORMAZIO-SAIOA

Formazio saioa uztailaren 10ean egin zen eta 4 orduko iraupena izan zuen. Bertan, lantaldeko kide guztiak parte hartu zuten (EGK-ko presidentea, Berdintasun teknikaria, Komunikazio teknikaria, Bake eta Bizikidetzatza teknikaria, Hezkuntza teknikaria, Parte-hartze teknikaria, Enplegu eta Etxebizitza teknikaria eta administraria).

Bulegoaren arriskuak eta jarreraren higiearen/bizkar-ardura formazio saioaren edukia ondorengoa izan zen:

- Prebentzioaren kudeaketa.
- Prebentzio/Mutuaren zerbitzuaren funtzioak.
- Gaixotasun/Istripu profesionalak.
- Osasunaren zainketa.
- Bulegoko lanpostuaren arriskuak.
- Inguruneko arriskuak.
- Lanpostuko arriskuak.
- Jarreraren higiea eta bizkarraren zainketa.

- Ohiko lesioak eta beren fisiologiakoak.
- Prebentzio-neurriak.
- Luzaketa eta indartze ariketak.
- Enpresa Osasungarriko zutabeak.
- Arrisku Psikosozialak: Estresa.
- Larrialdiko plana eta suteak itzaltzeko plana.

Bukatzeko, asetze inkesta bat bete zen. Gainera, formazio saioan parte-hartu izanaren ziurtagiri bat eta gorputzeko jarrerak hobetzeko informazio txosten bat jaso zen.

Ebaluazioa

- EGK-ko lan arriskuen prebentziorako plana eta ebaluazio aztertzerako orduan zaharrak zirela ikusi ziren. Beraz, horiek berritzeko beharra sumatu da.
- Lantaldeko kide guztiek parte-hartu ahal izan zuten eta hori oso positibotzat hartzen da.
- Formazioa ez zen izan espero zena. Lanpostura ez zegoen guztiz egokitua eta eskatu zena ez zen guztiz bete. Gainera, alde praktikoa nahiko eskasa izan zen.

1.9. EGUNEROKO LANA

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatu beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanaz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.
- Lan taldearen formazioan parte hartu.
- Lan arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egin.
- Batzorde Iraunkorarekin eta lankideekin harremana/lankidetzak.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartu.

Garapena

EUSKO JAURLARITZAKO IV GAZTE NAHITAEZKO TXOSTENA: IV Gazte Planako Enplegu eta Etxebizitza atalak aztertu dira eta hobetzeko ekarpenak zein proposamenak egin dira

BESTE ARLOEKIN LANKIDETZA: EGK-ko eguneroko lana aurrera ateratzeko ezinbestekoa da arlo guztietako arduradunen lana, bai bakoitzaren arloan eta baita besteen arloetan gauzatzen diren ekimenetan zeharka edo zuzenean ere.

2017an esate baterako, Berdintasun arlotik prestatutako LGTBI+ hiriburuan parte hartu da, dinamikaren antolatzaile eta moderatzaile lanak eginez. Hiruburu hau EGK-k eta Gasteizko Udalak burututako laugarrena izan da. Bakoitzean gai desberdinak jorratu dira eta kasu honetan LGTBI+ gazte kolektiboaren egoera, zailtasunak eta erronkak izan dira eztabaidagai.

Bestetik, lantalde teknikoaren koordinazioan lagundu da eta beste lan arloetako proposamenei baliogarriak diren balorazioak eman eta ekintzetan parte hartu da.

JARRAIPEN BILERAK: Jarraipen bilerak lantalde teknikoarekin burutu dira, batzuetan Skype bidez eta beste batzuetan fisikoki EGK-ko bulegoren batean. Gainera, Batzorde Iraunkorarekin egin dira bilerak.

PLANGINTZA: Urtero bezala, urteko plangintza prestatu da urte hasieran.

MEMORIA: Urtero bezala, urteko memoriak prestatu dira urte amaieran.

EGOITZAKO KUDEAKETA LANAK: Materiala eta bulegoa txukun mantentzea, telefonoa artatu, ezustekoak, bulegoko mantenuaz arduratu (informatikaria, elektrikaria, margolaria...), etab.

AGERPEN PUBLIKOAK: Prentsarekin lan egin da horrela eskatu izan denean EGK-ko enplegu eta etxebizitza diskurtsoa zabaltzeko.

AHOLKULARITZA: Aholkularitza eman izan zaie eskatu duten pertsona eta elkarteei gazte gaien inguruan.

ORDEZKAPENA PRESTATU:

2018 urte hasieran Enplegu eta Etxebizitza arloak teknikari aldaketa izango du baja bat estaltzeko. Hori dela eta, lan-deialdiaren dokumentua eta lan-arloaren ordezkapen-dokumentu bat argibide guztiekin prestatu da.

Ebaluazioa

- Gasteizko bulegoa aholkularitza gehien ematen duen bulegoa izanik, lan hori ondo bete da, eta beharrezkoa zen kasuetan toki egokietara bideratu da jendea.
- EGK-ko enplegu eta etxebizitza diskurtsoa ondo oinarrituta dago, eta gero eta gehiago kontuan izaten dute administrazioek. Gainera, gai berriak jorratu dira eta diskurtsoa aberastu da.
- Aurten barne aldaketa nahiko eman dira lantalde teknikoan eta horrek egunerokotasunean nabaritu da. Hala ere, egoerei aurre egin eta lana aurrera atera da.

2. HEZKUNTZA

2.1. ASTIALDI FOROEN KOORDINAZIOA

Astialdi Foroa EAEko hainbat elkarte eta eragileren elkarlanerako gunea da eta lurralde bakoitzean talde autonomo bezala funtzionatzen du. Lantalde honek,



Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio-bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sensibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Une honetan astialdiaren esparruan ematen ari diren aldaketak direla medio, garrantzitsua da eragileen arteko sendotasuna eta koordinazioa indartzea instituzioen aurrean iritzi eta posizionamendu bateratua izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdian lan egiten duten elkarte eta eragileekin batera esparru honen garapenerako aurrera eramaten diren ekimen eta proiektuak babestu, sustatu eta ezagutzera eman administrazioen arteko bitartekaritza bideratuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi Foroko lantaldea sendotu eta eragile gehiagoren parte-hartzea sustatu.
- Eragile eta elkarleen arteko esperientzia eta beharrak trukatu.
- Elkarte eta erakunde publikoen arteko zubi-lana bideratu.
- Astialdiaren eta boluntariorzaren zabalpena eta aldarrikapena.

Garapena

Hiru Astialdi Foroen arteko koordinazioa burutzeko, hilabetero, jarraipen bilerak burutu egin dira lurralde bakoitzean bertako elkarte eta eragileekin. Foro bakoitzean astialdiko eskolak, federazioak eta taldeak bildu egiten dira.

Lurralde bakoitzean eragile kopurua ezberdina da:

- **Arabari,** 7 elkartek hartzen dute parte jarraitutasunez: Atsedean eskola, Arduradun eskola, Gazteen Gurutze Gorriko astialdiko eskola, Atsedean taldeak, Euskalerriko Eskautak Araba, Arabako Eskaut Laikoa eta Azterlariak.
- **Bizkaian,** 12 elkartek hartzen dute parte jarraitutasunez: Urtxintxa eskola, Itaka Escolapios fundazioa, Gaztetxo eskola, Aisiola eskola, Kurkudi, Bizkaiko Gaztetxoen Koordinakundea, Bosko Taldea federazioa, Euskalerriko Eskautak Bizkaia, Kiribil sarea, Amarauna sarea, Aisi-hezi fundazioa eta EDE fundazioa.
- **Gipuzkoan,** 7 elkartek hartzen dute parte jarraitutasunez: Larrunarri eskola, Urtxintxa eskola, Hezkide eskola, Mundo Nuevo, Eziko, Gipuzkoako Gazteen Gurutze Gorriko astialdi eskola eta Gaztetxo eskola.

2017 urtean zehar burutako ekimen nabarmenak lurraldeka zehaztuta hurrengo hauek izan dira:

a) Arabako Astialdi Foroa:

2017an aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Aurten **Gasteizko udalarekin** elkarlana mantendu izan da Gazte Plan berrian zehaztutako Astialdiko lan-ildoak jasotzeko eta nola aurrera eraman zehazteko. Horretaz gain, eraikitako harremanarekin lanean jarraitu egin da.
- 2017an ere, astialdi taldeen **udako kanpaina** www.astialdiforoa.org webgunean jaso egin da. Honekin batera, iaz sortutako informazio triptikoa ere zabaldu da eta PDF-an jasotako informazioa ezagutzera eman da. Aurten 10 taldek antolatutako 10 egonaldi plazaratu dira.
- **Kualifikazioek** sortuko duten eszenatoki berriari aurre eginez, eskolen arteko elkarlana sendotu da, foroko kezka nabarmena bilakatuz. (Astialdiko eskolen etorkizuna atalean garatua)

b) Bizkaiko Astialdi Foroa:

2017an aurrera eraman diren ekintza eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzak** www.astialdiforoo.org atarian azaldu izan dira 2017an bigarren urtez. Informazio hau buletin eta helbide ezberdinetara bidali egin da. Aurtengo Bizkaiko udako kanpainan, 39 elkarte burututako 77 kanpaleku agertu dira.
- Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) udako ekintzak antolatzeke ematen dituen **diru-laguntzak** izan dira hizpide. Aurrekontu proiektuan jaso ez izana eta ondorengo aurrekontu murrizketen egoerak boluntariotza arloko eragileak batu egin ditu Astialdiko programen indarra eta gizarteari egiten dion ekarpenak zeintzuk diren aldarrikatzeko asmoarekin.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera **koordinaziorako lan-mahai** bat sortu egin da Astialdiarekin harremana duten gaiak lantzeko eta aurrerapausoak emateko. Helburua, Astialdiko marko eguneratua sortzea izan da, nahiz eta sentzu horretan aurrerapauso handirik ez eman. Hala ere, elkarren berri izateko aukera izatea instituzio eta eragileen arteko hartu-eman hurbiltzeko aukera eman du.
- Nazioarteko boluntariotza eguna izanda, iazko BFArekin batera hedatutako #IzanZuAldaketa kanpainaren bizipenak oinarri hartu dira urte osoan zehar boluntariotzari protagonismoa emateko, boluntariotzaren esperientziak eta eragile ezberdinen ekarpenak jaso ahal izateko. 2018an jarraitutasuna izango duen proiektu honek topaketa bat antolatuko du gai honen garrantzia azpimarratzeko.
- Eskolei eragiten dieten gaiak beste Astialdi Foroetan bezala bilera guztietan azaldu egin dira. Koordinazio eta aholkularitza lanak burutu izan dira urte osoan zehar.

c) Gipuzkoako Astialdi Foroa:

2017an aurrera eraman diren ekintzak eta koordinazio lanak:

- Astialdi taldeen **udako ekintzen zabalpena** iaz bezala, Astialdi Foroko atarian izan da. Oraindik ere PDF formatuak mantendu izan dira. Horrekin loturik, aurtengo Gipuzkoako datuak hauek izan dira: Gidan, 11 elkarte burututako 22 kanpaleku agertu dira.
- Gipuzkoako Astialdi Foroaren **parte-hartzea** eskolena izaten jarraitu izan du baina parte-hartzea egonkortu egin da. Aurtan ez da lortu elkarte berrien parte-hartzea izatea.
- Foroan protagonismoa hartu duten gaiak **eskolen etorkizuna** izan da, bereziki 2017/2018 ikasturteari begirako trantsizio prozesuan burutu beharreko aldaketak eta gestioak. Koordinazio bilerez gain, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin bilera pare bat burutu dira urtean zehar aurrerapausoak emanez.

2.2. ASTIALDIKO IKASTAROAK



Astialdiko begirale, zuzendari edota gizarte animatzaile izateko ikastaroen eskaintza zabaltzen dute EAEko astialdiko eskolek. EGK-k informazio horren jasotzea eta difusioa burutu du. Iaz bezala, informazioa irailean soilik zabaldu beharrean, uztailean ere deialdiaren aurrerapenaren albiste txiki bat sortu da. Aurtengo trantsizio prozesuak eragindako aldaketen berri ematea izan da ardatza.

Helburuak

- Astialdi eskolek eskaintzen duten formakuntza-lana hedatzea.
- EAEko eskolen kalitatezko-hezkuntza aldarrikatzea.
- Modu bateratu eta globalean Astialdi Hezitzailearen esanahia plazaratzea.

Garapena

Urtero bezala uztailean ikasturte berriaren ikastaroen eskaintza ezagutzera ematea da asmoa. Aurtun gauzak berandutu egin dira eta 2017/2018 ikasturteko ikastaroak nahiko berandu antolatu eta itxi egin dira.



Astialdiko ikastaroaren aurre-kanpaina:

Egoera zein zen ikusita, EGK-k gazteak ardatz izanik, astialdiko ikastaroen arloan aldaketak ematen ari diren aurrerapenak zabaldu egin dira. Horretarako hurrengo albiste hau burutu da:

<http://bit.ly/2AKOLDq>

Astialdiko ikastaroen zabalpena:

Ondoren, irailean, matrikulazio garaiarekin batera beste albiste bat sortu egin da emango diren aldaketak azpimarratuz. Esteka honetan albistea aurkitu daiteke: <http://bit.ly/2xfRO7g>

Albistearekin batera, Astialdi Foroko webgunean eskolen ikastaroen eskaintza zabaldu egin da hauek informazioa helarazi izan duten unean.

Astialdiko ikastaroei lotutako aholkularitza kudeatu:

Astialdiko formakuntza eskaintzaren zabalpenarekin batera, gai honi lotutako zalantzen kudeaketa proiektu honen beste atal bat da. Astialdiko webgunearen bitartez, gazteek haien zalantzak plazaratzeko aukera izan dute bertan azaltzen den “buzoia” erabiliz.

Horretaz aparte, ematen ari diren aldaketen zabalpenen informazioa beste modu batzuetan ere zabaldu izan da. Biderik ohikoenak, telefono deien bitartez, email bidez edo zuzenean albistearen azpiko iruzkinen bidez informazioa eskatzea izan dira, momentuko zalantzei erantzuna ematea ahalbidetuz.

Ebaluazioa

Zabalpenak, urtero bezala, hainbat gazteren aholkularitza erraztu du. Aurten, hala ere, trantsizio-prozesua dela-eta ez da ikastaro-kopuru zehatza lortu. Eskola askok azken unera arte ez dituzte haien taldeak itxi, berandu jaso dira ikastaroen gaineko xehetasunak eta beste eskola batzuk ez dute ikastaro berririk eskaini. Datorren urtera begira, bi helburu zehaztu dira: eskolekin batera zabalpen kanpaina hobeto koordinatzea eta ikastaroen datu zehatzak jasotzea.

23. ASTIALDIKO UDAKO EKINTZAK

Urtero bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetako astialdi taldeetako boluntarioek urtean zehar egin duten lanari esker, 54 elkartek antolatuta 109 ekintza; hau da, guztira 10.000 plaza inguru eskaintzen dituzten udaleku, topaketa eta bestelako jardueretan parte hartzeko hainbat aukera egon dira.



Aurten ere, formatu digitala erabili izan da zabalpenerako, www.astialdiforooa.org webgunean informazioa txertatuz.

Araban 10 elkartek 10 ekintza prestatu dituzte; Bizkaian, 39 taldek 77 txanda diseinatu dituzte; eta Gipuzkoan, 11 erakundek 22 plan proposatzen dituzte.

Helburuak

- Astialdi taldeetako udako ekintzen zabalpena egitea.
- Lurraldeko astialdi taldeak ezagutzera ematea.
- Boluntario gazteen lana aintzat hartzea.

Garapena

Udako ekintzen zabalpena Astialdi Foroko webgunearen bitartez zabaldu egin da. Alde batetik betiko PDF-ak mantendu egin dira. Lurralde bakoitzeko eskaintza jasotzen dituztenak informazio zehatza (udaleku mota, hizkuntza, adina, astialdi taldea, etab.) eta harremanetarako bideak erakutsi dituzte.

Horrekin batera, udako ekintzen bilatzailea osatu egin da ekintza bakoitzeko miniatura sortuz eta informazioa dinamikoagoa eginez. Hona hemen gai horren inguruan webgunean publikatutako albisteak: <http://bit.ly/2Br2lxz>

Ebaluazioa

2017an udako kanpaina soilik on-line formatuan burutu da. Aldi berean, hainbat aholkularitza burutu dira informazio eske telefonoz eta emailaz galdetzen zuten gazteei eta beraien gurasoei. EAEko hainbat astialdi talderen informazioa ezagutzera ematea da erronka. Boluntario talde askok azpimarratzen duten bezala zailtasunak daude apirilean informazio zehatza eskaintzeko. Datorren urtera begira, urte honetako helburu berdina zehaztuko da: eskaintza ahalik eta handiena zabaltzea eta urte osoan zehar dauden astialdi taldeekin harremana osatzea. Bestelako zabalpen aukerak ere aztertuko dira.

Udako ekintzen zabalpenean 2017an ez da lortu hiru Aldundiek zabaltzen duten eskaintzan boluntariotza-taldeei aipamen berezia egitea. 2018an Astialdi Forotik eskaera berdina luzatu da, egiten diren ekintzak jakin ditzaten, hauek zabaltzen lagun dezaten eta boluntarioek urte osoan zehar egindako lana ezagutu dezaten.

2.4. ASTIALDI FOROKO WEBGUNEAK (WWW.ASTIALDIFOROA.ORG)



Astialdi Foroko webgunea, astialdiko eragile, boluntario eta gazteen artean astialdiko gaien bilgunea eta tresna da. 2014ko irailetik martxan dago eta

denbora tarte honetan zehar webgunearen kudeaketa eta hobekuntza lanak burutu izan dira ahalik eta informazio eguneratua ezagutzera emateko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astaldiaren arloko informazio eta proiektuen inguruko zabalpena indartzea eta gune erreferentea bilakatzea arloko gazte eta elkarten artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi elkarteak ezagutzera ematea.
- Astialdi Foroko eragileen lana jendarteratzea.
- Atari dinamiko eta erabilgarria izatea.

Garapena

ASTIALDI FOROKO WEBGUNEA:

Hiru urte daramatza Astialdi Foroko webgunea martxan eta aurten, aurreko urteetan bezala, emaitza onak jaso dira. Astialdiko erreferentziazko ekimenetan, udako ekintzetan eta astialdiko ikastaroen aholkularitza eta informazioa bideratzerakoan tresna baliogarria dela berretsi da. Era berean, gazteen zalantzak jasotzeko eta astialdiko edozein gairen gaineko informazioa hedatzeko baliabide erreferentea da arloko eragileen artean.

WEBGUNEKO BISITA MUGIMENDUAK:

Aurten Google Analytics tresnaren bitartez Astialdi Foroko webgunearen erabiltzaile eta bisita kopurua neurtu egin da egunero. Horri esker atariaren jarraipen erreala egiteko aukera izan dugu.

2017	Bisitak	Erabiltzaileak
Urtarrila	957	906
Otsaila	1067	1025

Martxoa	1061	991
Apirila	836	776
Maiatza	1159	1057
Ekaina	948	900
Uztaila	819	766
Abuztua	396	369
Iraila	1112	1010
Urria	764	690
Azaroa	567	530
Abendua	-	-
GUZTIRA*	9686	9020

**Abenduko datuak jaso gabe.*

2016ko emaitzekin alderatuta, guztira 12852 bisita egon ziren urtean eta 2017an abenduko bisitak kontuan hartu gabe 9617 bisita jaso dira.

NATURA SEXUALEKO AURREKARI PENALEN ZIURTAGIRIA:

Boluntariotza legean azpimarratzen den bezala, hurrekin lan egiten duen pertsona orok natura sexualeko aurrekari penalik ez daukala egiaztatzen duen ziurtagiria behar du. Hasiera batean, gai honen gainean zegoen informazioa oso nahasia zen eta ziurtagiria lortzeko ordaindu beharra zegoen. Astialdiko eragileentzako lagungarri bezala eta gazteen artean aholkularitza egokia bideratzeko asmoarekin, 2016an albiste bereziak sortu ziren EGK-ko webgunean eta baita astialdikoan ere.

Argitalpena egin zen unetik hainbat kontsulta jaso dira, bai astialdiko boluntario zein gazteenak. 2017an zehar ehunka galdera jaso dira telefonoz, emailaz, webgunean iruzkinen bitartez eta astialdi foroko webguneko mezularitza zerbitzuaren bidez. Azalpenak modu gertuko eta errazean azaltzea asko eskertu dute.

Ebaluazioa

Aurten inoiz baino eduki gehiago sartu dira webgunean hilabeteko egun berezien aipamenak eta sortu izan diren sarrerak kontutan hartuta. Aurreko urteko datuekin konparatuz, urteko bisita eta erabiltzaile kopurua 2000 puntutan handitu egin da. Abenduko azken asteko datuak kontutan izan gabe hauek dira datu ofizialak: 12766 bisita eta 11683 erabiltzaile 2017 urtean zehar.

2.5. ATERPETXEEN ATARIA: ATERGUNE

ATERGUNE Euskal Autonomia Erkidegoko eta inguruko aterpetxe, kanpin eta landen erreferentziazko bilatzaile birtuala da. Boluntariora-arloan jarduten duten elkarte, gazte, aisialdi talde nahiz gainerako elkarteek beren ekintzak burutzeko tresna erabilgarri bat izateko sortu zen 2016ko abenduan.



Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko aterpetxe, landa eta kanpinen erregistro eguneratua burutu, urtez urte espazioen kopurua handituz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilatzaile dinamikoa txertatu.
- Gipuzkoako Aldundiak dituen aterpetxeak txertatu.

Lehenengo urtean ataria osatu eta gorpuzten joan da. Hauek dira burututako ekintza zehatzak:

BILATZAILEA TXERTATU:

Otsailean, EGK-ko eta baita Astialdi Foroko webgunean iragarri zen bezala, bilatzaile bat txertatu da. Ezinbesteko tresna bilakatu da atariaren erabilerraztasuna bermatzeko.

Hurrengo albistean dago jasota bilatzailearen iragarpena <http://bit.ly/2kNwu2l>



ESPAZIO BERRIEN ERREGISTROA:

Atariaren garapenerako Donostiako Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren gazte aterpetxeen erregistroa burutu egin da hurrengo hauek txertatuz:

- Zarauzko aterpetxea.
- Orioko aterpetxea.
- Segurako aterpetxea.
- Hondarribiko aterpetxea.
- Ondarreta Gazte Aterpetxea.
- Ulia Gazte Aterpetxea.
- Artikutzako Aterpetxea.

Atariaren helburua gazteok zein astialdiko eragileek erabiltzeke dituzten espazioak atari bakarrean txertatzea eta bertako informazioa eguneratua izatea da.

ATARIAREN JARRAIPENA ZENBAKIETAN:

Astialdi Foroaren webgunearekin egiten den bezala, atariaren jarraipena Google Analytics zerbitzuaren bidez egiten da. Besteak beste, bisitarien eta bisita-kopuruaren zenbakiak jasotzen dira. Ebaluazio irizpide honen bitartez urtez urteko egoera neurtzen da.

2017an zehar (abenduko datuak kenduta) 576 bisita izan dira.

Ebaluazioa

Urtebeteen eguneraketak apurka-apurka izan dira. Harrera ona izan du eta 2017an jasotako bisita kopurua 576 ingurukoa izan da. 2018ra begira bisita kopurua handitzea izango da helburua. Horretarako zabalpen ekintzak zehaztuko dira eta, aldi berean, espazioen erregistroa osatzen jarraituko da.

2.6. ASTIALDIKO ESKOLEN ETORKIZUNA

Aurreko urteetan jorratutako bidea jarraituz, eskolen etorkizunari jarraipena egin zaio, baita hainbat aholkularitza eta laguntza eskaini ere. Besteak beste, trantsizioak eragingo dituen aldaketei nola aurre egin eta zer nolako proposamenak egin.

Helburuak

- Astialdiko formakuntza dekretuaren berrikuntzaren jarraipena burutu.
- Institutuzio eta astialdiko eskolen arteko koordinazio mantendu.

Garapena

Astialdian ematen ari diren aldaketek egunerokotasunean izan dute eragina. Bai Eusko Jaurlaritza eta eskolen arteko informazio trukean eta baita Aldundien koordinazioan ere.

Prozesuaren nondik norakoak zehaztu eta zabalpen-kanpaina bateratua egiteko Eusko Jaurlaritza eta Lanbiderekin bilera egitea lortu da. Bertan, astialdi eskolek bilera informatiboa eskatu dute. Jarraian zehazten dira datak:

Koordinazio bilerak:

- Apirilak 12: Hiru lurraldeetako eskolen, Eusko Jaurlaritzako ordezkarien eta Lanbideren arteko bilera.
- Urriak 9: Eusko Jaurlaritza, Lanbide, EGK eta hiru lurraldeetako eskolen ordezkariekin bilera.

ESKOLEN PROPOSAMENAK ETA HORIEN ERANTZUNAK:

Lakuan egindako apirileko bileraren ostean, Astialdi Foroetako eskolak maiatzaren 3an bildu ziren argitzeko zeuden zalantza eta proposamenen dokumentua osatzeko. Lan hori egin ostean, Eusko Jaurlaritzari eta Lanbideri helarazi zitzaion. Erantzuna jaso bitartean eskaera eta kontsulta zehatzak egin dira. Urrian jaso da idatziz Eusko Jaurlaritzak eta Lanbidek adostutako erantzuna. 2017a trantsizio-urtea izanda, paperean jasotakoa praktikara eramatea erronka zaila izan da. Horren adibidea Eusko Jaurlaritzak IVAC-EEI-rekin (Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua) hasitako aholkularitza da, titulazioen arteko homologazioen aukerak aztertzeke.

2018RAKO LAN ILDOAK:

2017/2018 ikasturtean zehar eman diren egoera, zalantza eta kezkak zeintzuk izan diren aztertu eta horietatik abiatuz aurrerapausoak eman, hobekuntzarako ildoak proposatuz eta adostuz. Trantsizio-unetik igaro eta egoera egonkortzea izango da helburua.

Ebaluazioa

Urte honetan zehar aurrerapausoak eman dira. Izan ere, elkarlanean jasotako proposamenak batu, idatzi eta Eusko Jaurlaritzak zein Lanbideren erantzunak jaso dira. Epeak luzatu dira eta horrek eskolen kanpainaren zabalpenean atzerapenak sortu ditu. Pixkanaka-pixkanaka

koordinazio ekintzak zuzenagoak eta eraginkorragoak bihurtzea izango da asmoa trantsizio-egoera igarotzeko eta egoera egonkortzeko.

2.7. HEZITZAILEENTZAKO GIDAK

Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, astialdiko hezitzaileentzako eta gazteentzako erabilgarriak eta erreferenteak izan nahi duten gida-bildumak sortu izan dira. Guztira 3 ale dira. Horietako 2 jada argitaratuak daude: 'Sexualitatearen koloreak' eta 'Mugarik gabeko aniztasuna' gidak; azkenekoa, drogomenpekotasunaren gaia jorratzen duena, 2018an zabalduko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Astialdiko hezitzaileentzako eta gazteentzako oro har hezkuntza baliabideak sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aniztasun funtzionala duten pertsonekiko jarrera barne-hartzailea bereganatu eta lantzeko baliabidea sortzea.
- Gazte elkartegintza kontzientziatu eta droga-mendekotasuna prebenitzeko arrisku txikitze logika barneratua izatea.

Garapena

MUGARIK GABEKO ANIZTASUNA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, 2017an Mugarik Gabeko Aniztasuna gida argitaratu du. Honen helburua Aniztasun Funtzionalaren gaia gizarteratzea eta hezkuntza ez-formalean aritzen diren hezitzaileei baliabideak eskaintzea da.

Metodologia

Gida hau Aniztasun Funtzionala duten pertsonekin lan egiten duten eragileekin batera sortu da: APDEMA, APNABI, Autismo Bizkaia, ASpace Bizkaia, ASpace Gipuzkoa, Atzegi, Bizkaiko Urtxintza Eskola, EDEKA, Euskal Gorraak Gazteak, Euskal Herriko Down Sindromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioa, FEVAS, FEVAS. Plena inclusión Euskadi, Gautena,



Gorabide eta Juventudes de Unidad Progresista de la ONCE elkarteak. Eragile hauekin izandako elkarriketek gaur egungo errealitatera hurbiltzea, erronkak ezagutzea eta astialdiko eragileek arlo honetan duten garrantzia eta egitekoa aztertzea baimendu dute.

Gidaren nondik norakoak

Alde batetik, gaian murgiltzeko marko teoriko bat eskaintzea da helburu nagusia; eta, bestetik, egunerokotasunean baliagarriak diren gomendioak jasotzen dituen atal praktikoa sortzea, Aniztasun Funtzionala duten pertsonekin hitz egiterakoan kontutan izan beharko liratekeenak. Hezitzaileen paperaren garrantzia ezagututa, bere egunerokotasunari ere atal berezia eskaini izan zaio; egoera berrien aurrean beharrezkoak diren gaitasunak aipatuz eta egoera bakoitzak eskatzen dituen beharrei erantzuteko horiek nola kudeatu azalduz.

Guzti honetaz gain, gaia modu erakargarrian lantzeko hainbat baliabide nabarmendu dira gidaren amaieran. Besteak beste: dokumentalak, film laburrak, liburuak, etab. Honetaz gain, arloko elkarten direktorioa ere azaltzen da.

Aurkezpena

Gida, urriaren 4an aurkeztu egin zen prentsaurreko baten bitartez Bilboko Errekalde aretoan. Bertan medio ezberdinek hartu zuten parte. Ondoren, elkarte ezberdinetako eragilarekin batera gidaren aurkezpena burutu egin zen gakoak gaineratik azalduz eta amaitzeko, taldeko dinamika ezberdinak burutu egin ziren esperientziak eta proposamenak elkartrukatze asmoz.

Ondorengo hau da gidaren aurkezpena jasotzen duen albisteak: <http://bit.ly/2xToZOF>



DROGOMENPEKOTASUNA GIDA

Drogomenpekotasuna gizartearen egunerokotasunean aurrez aurre dugun fenomeno bat da, baita gazteen artean ere. Hori dela eta, ezinbestekoa da bizitzako lehenengo faseetan drogamenpekotasunaren gaineko prebentzioan oinarritutako heziketa bat jasotzea. Beharrezkoa da gazteek gai honen inguruan lehenesten dituzten plazerren aurretik, horiek ekartzen dituzten arriskuak ezagutzera ematea.

Behar honi erantzuna emateko BFArekin batera sortutako giden bildumaren hirugarren alea izango da hau. Gida, hezkuntza ez formalean biltzen diren eragileei esku hartzeko, baliabideak eskaintzeko eta inguruko agenteekin (irakasleak, familiak, lagunak, etab) nola jokatu behar duten laguntzeko pentsatua dago.

Metodologia

Gida guztien oinarria izanda, elkarrekin ezberdinekin elkarriketak burutu egin dira, besteak beste: Gizakia Fundazioa, Etorkintza Fundazioa, Ai Laket, etab. Bertan galdera irekien bitartez informazioa jasotzeaz gain gidarako ezinbesteko baliabide, termino edota elementuen bilketa burutu egin da.

Gidaren aurkezpena

Gida honen prozesua 2018ra luzatuko denez, proiektuaren garapena BFArekin batera koordinatuko da metodologian zehazten diren pausoak ondo emateko. Behin zehaztapenak

eginda daudenean, zabalpena burutuko da eta ondorioak aterako dira, betiere eragileen feedback-a jaso ondoren.

Ebaluazioa

Lan karga handia suposatu du proiektu hauen egituraketa. Hala ere, esperientzia aberasgarria izan da hezitzaileei bideratutako gida hauek osatzea. Bide berriak zabaldu dizkio EGKri eta, kasu honetan, harreman berriak sortu ditu bai drogomenpekotasuna, baita aniztasun funtzionala lantzen duten elkarteekin ere.

Datorren urtera begira, gida hauen zabalpenean jarriko du indarra EGK-k, ahalik eta gazte gehiagotara eta baita esparru berrietara heltzeko asmoarekin. BFArekin hitzartutako proiektua izanda ere, hiru lurraldetako eragileekin sortu da harremana eta zabalpena EAE mailan egin izan da.

2.8. HEZKUNTZA FOROA

Urteak dira Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan ikasle elkartez, kontseiluz eta hainbat gaztez osatutako Hezkuntza Foroa martxan dagoela. Lantalde honek Hezkuntza Formalaren arloan gazteon eskubideen alde lan egiteko helburua du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek hezkuntza-arloan bizi dituzten egoerak, arazoak eta kezkak ikusarazi, proposamenak jaso eta gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eztabaida pizteko bideak erraztu eta guneak sortu.

- Instituzioekin harremana bideratu

Garapena

Hezkuntza arloko ikasle-elkarte, kontseilu eta maila indibidualean datozen gazteekin batera hilabeteen behin bildu eta bilerak koordinatzen dira. Landutako gaien artean hurrengo orrialdeetan aipatzen diren proiektuak daude, besteak beste: euskaraz ikasteko aldarrikapena, garraio gastuen proiektua eta lan-aholkularitza eta formakuntza.

Ebaluazioa

Urtean zehar hainbat proiektu garatu dira eta eragileen parte-hartzea jarraitua izatea lortu da. Datorren urtera begira, lurralde historiko bakoitzeko unibertsitateetako ikasle kontseiluekin harremana sendotzea izango da helburuetariko bat, eta bide batez, ikasle-elkarte eta gazteen parte-hartzea handitzea lantaldean.

2.9. EUSKARAZ IKASTEKO ESKUBIDEEN MANIFESTUA



Urteetan zehar, Hezkuntza Foroak jasotako kezka da unibertsitate mailan %100ean ikasteko oztopoak daudela. Hori dela eta, gauza gizarteratzea proposatu da iazko manifestuaren jarraipen modura.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EHU mailan %100ean euskaraz ikasteko zailtasunak daudela ezagutzera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egun ezagutzen diren oztopoak ezabatzea.
- Unibertsitatean euskararen egoera zein den aztertzea era eguneratzea.

Garapena

Aurten ere, Euskararen Nazioarteko egunean, gazteok euskaraz ikasteko dituzten zailtasunak hizpide izan dira. Iazko manifestua oinarri hartuta, Hezkuntza Foroko lantaldean egunerokotasunean bizi diren zailtasunak jaso eta horiek ekiditeko proposamenak eztabaidatzeko xedearekin manifestua berriro ere kaleratu da.

Gauzak horrela, iazkoarekin alderatuz, aurten EHUrekin sinatutako hitzarmena ere hizpide da manifestuaren amaieran. Elkarlan horrek hainbat hezkuntza gaitan aurrerapausoak ematea ahalbidetuko du. Horretarako, gazteei zuzendutako Hezkuntza Foroak edo EGK-k dituen parte-hartzeko plataforma ezberdinak kontuan hartuko dira.

Manifestuaren zabalpena egiteko data abenduaren 3a izan da, Euskararen Eguna dela medio. Sare sozialetan zabaldu dira dokumentua eta aldarrikapena. Esteka honetan zabaldutako manifestua irakur daiteke: <http://bit.ly/2iNkoUN>

Ebaluazioa

Aurten aurrerapauso nagusia UPV/EHUrekin sinatutako hitzarmena izan da. Hala ere, euskararen egoerari dagokionez, hurrengo 2018an zehar gai horretan sakontzea izango da Hezkuntza Foroaren ardatzetariko bat.

2.10. IKASLEEN NAZIOARTEKO EGUNA

2017ko azaroaren 17an, Ikasleen Nazioarteko Eguna ospatu egin du EGK-k. UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin batera lanean, ikasleek egunerokotasunean dituzten erronkak azpimarratzeaz gain, ikasle gazteek dituzten konpromisoak eta aurrera ateratzen dituzten proiektuak goraipatu nahi izan da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ikasle mugimenduek duten garrantzia goraipatu eta bertako gazteek egiten duten lana ezagutzera eman.

Garapena

Ikasleen parte-hartzea sustatzea

EGK-k eta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak indarrak batu dituzte ikasle mugimenduek duten garrantzia goraipatzeko. Honekin batera, manifestu txiki bat osatu egin da Ikasleen Nazioarteko Egunaren berri emateko eta aldi berean aldarrikapen hori gauzatzeko. Hurrengo estekan albistea eta zabaldutako manifestua daude: <http://bit.ly/2zaKxHW>

Gogoratu beharra dago ikasleak hezkuntza-komunitateko kide aktibo eta parte-hartzaileak direla, eta ikasketaz aparte, hainbat motatako egitasmoak izaten dituztela. Horrela, mota desberdinetako elkarte eta taldeetan konpromiso hartzen dute, gazteriaren interesekoak diren proposamenak bideratuz. EGK-k horrelako gazteek sortzen dituzten elkarteei informazioa eta laguntza emateko prestutasuna azaltzen du, betiere gazteriaren intereserako positiboak diren jarrerak bultzatuz.

Ebaluazioa

2017an lehenengo aldiz EGK-k Ikasleen Nazioarteko eguna ospatu izan du. Egun honen garrantzia ikusita eta kontutan harturik Hezkuntza Foroarekin duen harremana osoa dela, hurrengo urteetara begira ezinbesteko data bihurtuko da. Benetako protagonista diren ikasle mugimenduei aitorpena emateko aukera, eta aldi berean, EGK elkarlanerako eta laguntzarako bidelagun dela azpimarratzea bideratzen du.

2.11. GARRAIO GASTUEN ANALISIA

EGK-ko Hezkuntza lan-arloak 2016an martxan jarritako Garraio Gastuen analisia proiektuak jarraipena izan du 2017an. Hezkuntza Foroan bilduta dauden gazte eta eragileekin lurraldean arteko desoreka azaleratzea eta hau konpontzeko proposamenak egitea adostu zen.



Datuak aztertzeaz gain, garraio arloari lotutako diru-laguntzak eta deskontuak zeintzuk diren jaso dira gazteei informazio hori hurbiltzeko eta erraztasunak emateko asmoarekin. Txostenaren zabalpena eta gaiarekin lotutako jarraipenak izan dira protagonista.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lurraldean arteko garraio-gastuen analisia burutu eta hobekuntzarako proposamenak jaso.

Garapena

Txostenaren zabalpena:

2017ko otsailean ikerketa eta gazteen proposamenen emaitza, “Garraio-gastuak aztergai” txostena zabaldu da. Bertan hainbat datu jasotzeaz gain, hobekuntzarako proposamenak nabarmendu dira. Txostenaren zabalpena hurrengo albistearen bitartez burutu da: <http://bit.ly/2m1SJzf>

Infografiak:

Txostenean jasotako informazioa gazteei helarazteko hainbat infografia sortu dira azpimarratu nahi izan diren datuekin. Horiek sare sozialetan zabaldu dira.

Zabalpena eta jarraipena:

Instituzioekin harreman berriak sortzeko asmoarekin eta bide batez txostenaren zabalpenean eragiteko, Garraio Plangintzaren Zuzendaria den Janire Bijueskarekin bilera bat burutu zen 2017ko uztailan. Proiektuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak garraio arloa dituen ekimenen berri ematea zen xedea.

Honetaz gain hurrengo albisteak sortu dira EGK-ko webgunean garraio gaia hizpide izanik:

- Martxoak 9. Bizkaian txartel multimodalak dakartzan aldaketen argi-itzalak <http://bit.ly/2m2hkTY>
- Ekainak 14. Mugi, BAT eta Barik #ZergArraio!: <http://bit.ly/2ruOtuk>

Ebaluazioa

Proiektuak bere garapenean erantzun positiboa izan du eta ezagutzera ematean EGKren diskurtsoa esparru berrietan zabaltzea baimendu du. Honekin batera, garraio arloko hainbat sindikaturekin hartu-emanak izan dira, gazteei bestelako esparruetan ere protagonismoa emanez. 2018ra begira, gaiarekin lotutako albiste eta ekimenen jarraipena burutuko da EAE mailan txartel bakarraren aldeko apustua eginez.

2.12. HEZKUNTZA ERAGILEAK: UPV/EHUrekin HITZARMENA

Hezkuntza formala bere osotasunean hartuta, arloko eragileak ezagutzea eta horiekin elkarlanean aritzea izan da urte askotan EGKren helburu. Horietako eragile garrantzitsu bat UPV/EHU da eta beharrezkoa da harreman sendo bat lortzea eta indarrak batzea. Aurten aurrerapausoak eman dira bide horretan elkarlanerako hitzarmen bat sinatuz.

Helburuak

- Hezkuntza arloko eragile zein instituzioekin harremana sendotzea eta elkarlanerako pausoak zehaztea.

Garapena

Nekane Balluerka errektore berria izendatua izan zenean, EGK-k bien arteko harremana sustatzeko asmoarekin aurrerapausuak eman zituen. Helburua argia izan da: indarrak batu eta EGKren interesak zein gazteon beharrak mahai gainean jartzea elkarlanerako bide berriak aztertzeko.

Hartu-eman ezberdinen ostean elkarlanerako hitzarmen bat sinatzeko erabakia hartu egin da bi aldeen adostasunez. Hauek dira zehaztutako lan-ildo nagusiak:

- Urtero, bi eragileen artean aurrera eramateko ekimen zehatzen zerrenda bat egitea, betiere gazteen intereserako izanik.
- EHUK zein EGK-k elkarren arteko ekimenen zabalpenean laguntzea eskura dituzten medioez baliatuz (mailing-ak, webguneak, sare sozialak, etab).
- EHUKo espazioen eta materialen erabilera erraztea EGKri, gazteentzako burutu nahi diren jarduerak erraztasunez antolatzeke.
- EGK-k aholkularitza zerbitzua emango du EHUK egun duen ikasleen parte-hartze planean.
- EGK-k burutzen dituen ekintzetan (lantaldeetan izan ezik) parte hartzeagatik kreditu askeak jasotzeko aukera aztertzea.

Hauek izan dira webgunean gazteoi elkarlanaren berri emateko zabaldutako albisteak:

- Maiatzak 19. UPV/EHUrekin elkarlanerako pausoak zehazten: <http://egk.eus/eu/upvehurekin-elkarlanerako-pausoak/>
- Urriak 23. Hitzarmena sinatu dugu UPV/EHUrekin: <http://egk.eus/eu/hitzarmena-sinatu-upvehurekin/>

Ebaluazioa

Hitzarmen hau sinatzeak etorkizunari begira aukera berriak sortzen ditu. Batetik, ikasle gazteen errealitatera hurbilpen handiagoa izatea eta, bestetik, aholkularitza beste esparru berrietara eramateko aukera ematea. Hezkuntza Foroko eragileen bitartez hitzarmenaren jarraipena burutuko da eragina izango duten proposamen berriak plazaratuz eta ikasle elkarteak modu zuzenean inplikatur.

2.13. EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA



Euskadiko Eskola Kontseilua unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo goren da. Bere Funtzioen artean, hauek dira aipagarrienak: EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arauetako buruzko irizpenak egitea, irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorra burutzea eta txostenak egitea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluan gazteon ahotsa; kezkak eta ekarpenak plazaratzea.

Garapena

Aurten ez dira Eskola Kontseiluko bilera asko burutu eta burutu izan direnean ezinezkoa izan da parte-hartzea bermatzea presidentziako ordezkarietatik ezta hezkuntza arlokotik.

Emailen bitartez deialdi eta dokumentuen berri du EGK-k eta ahal den heinean Hezkuntza Foroko eragileekin batera kontrastea burutuko da.

Ebaluazioa

2018ra begira hezkuntza arloko ordezkari bezala, EGKren presentzia bermatzea komenigarria izango litzateke burutzen diren koordinazio bileretan. Gainera, Hezkuntza Foroko eragileen inplikazioa lortu nahi da, nahiz eta askotan unibertsitatez kanpoko gaiak ez diren hainbeste kontutan hartzen.

2.14. EGUNERO LANA

Arlo bakoitzaren lan zehatzaz gain, teknikariek beren egunerokotasunean egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dute: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denaren arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; material, dokumentazio, eskutitzak, emailak, etab. jaso, artxibatu eta

deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Garapena

Egunerokotasunean aurreikusitako proiektuak aurrera eramateaz gain, beste hainbeste funtzio eta ekimen burutzen dira. Hauen laburpena ondorengoa da:

- 2017ko plangintza.
- 2017ko memoria.
- Bulegoetako aholkularitza.
- Lantalde teknikoaren koordinazioan lagundu: erreleboak, bajak, etab.
- Barne formakuntza ikastaroak.
- Ez-ohiko koordinazio bilerak: bai instituzio, lantalde tekniko edo bestelako eragileekin.

Ebaluazioa

Aurten EGKren barne nahiko aldaketa eman dira eta horrek egunerokotasuneko lan-karga handitzea ekarri du zentzu askotan. Hala ere, lantalde teknikoak egoera guztiei aurre egiteko lanak egin ditu eta urtero bezala gauzak aurrera atera.

3. PARTE-HARTZEA

3.1. GAZTEOLINPIADAK

Kirolarekin zerikusia duen gazteen elkartegintza nabarmen handitu da azken urteetan. EGKren Parte-hartze lan-arlotik burutu zen “Gazteak eta parte-hartzea Euskadin” ikerketaren ondorioen arabera, gazteen partaidetza handiena kirolean ematen da. Egun gazte gehienak kirol elkarte baten bazkide, jokalaria edo boluntarioak dira. GazteOlinpiadak parte-hartzea eta kirola elkartzeko bokazioarekin sortu zen ekimena da.

2015tik GazteOlinpiaden ospakizunaren bitartez, kirola, gazteen partaidetza eta ongizatea sustatzeko tresna paregabea dela ikusarazten saiatu da EGK.

2016ko ereduari jarraiki, gazteek ekimenean parte-hartzeaz gain ekimena bera antolatzen laguntzeko prozesu bat bultzatu da. Gazte elkarreez gain, Donostiako Udalarekin ere elkarlana sustatu da. Ekimena burutu nahi zen gunearen inguruko informazioa eta aholkularitza jasotzeko ezinbestekoa izan da Donostiako Udalaren laguntza.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

GazteOlinpiadak kirolaren bidez gazteen parte-hartzea bultzatzea du helburu. Horretarako kirola tresna gisa erabiliko da, jolas eta dinamika desberdinen bitartez kirolak dituen balio parte-hartzaileak sustatuz. Modu honetan gazteen inklusioan eta integrazioan sakonduko da.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kirola parte-hartzeko beste modu bat dela ikusaraztea.
- Kirolaren bitartez balio parte-hartzaileak bultzatzea.
- Dinamiken baitan, gazteen iritziak eta proposamenak jasotzea, parte-hartzearen inguruko ondorioak eta gomendioak proposatu ahal izateko.
- Gazte mota guztientzako ekitaldi barne-hartzaileak izatea.
- EGKren sozializazioan laguntzea.

Garapena

Antolaketa lantaldea:

Balio parte-hartzaileak sustatzen eta gazteon integrazio eta inklusioaren alde diharduten elkarteak identifikatu eta EGKren asmoen berri emateko bilera erronda bat burutu zen ekaina eta uztaila bitartean.

Balore guzti hauek lantzeko kirol nagusi bezala pilota aukeratu zen. GazteOlinpiadak Donostiako Antigua auzoko pilotalekuan antolatzeko asmoa genuela ere aipatu zitzairen, ekimena kalera irekitzeko asmoz. Bilera horietan bertan EAEko hainbat elkarterekin harremanak sakontzeaz gain, GazteOlinpiadetan parte-hartzeko asmoa eta beronen antolaketan laguntzeko asmoa helarazi zuten elkarrekin lantalde bat osatu zen.

Aurtengo GazteOlinpiadetan balio parte-hartzaileez gain, integrazioa eta inklusioa lantzeko asmoa zegoen. Bide horretan egunaren antolaketa bideratzeko balore horiek lantzen dituzten gazte elkarteen presentzia indartu eta bermatu zen lantaldean. Bide batez hainbat funtzio banatzeko saiakera ere egin zen. Horrela egunaren antolaketan parte hartu zuten Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioak (GKEF) eta beronen barruan dauden zenbait elkartek, Real Sociedad Fundazioak, Gipuzkoako Esku Pilota Federazioak (GEPF) eta Donostiako UBA Aterpetxeak tartean.

Horrela, egunaren egituraketa bideratzeko bilera desberdinak egin ziren:

- Ekainak 13: GKEFeko kideekin bilera.
- Ekainak 20: Real Sociedad Fundazioko zuzendaria den Andoni Iraolarekin bilera bat egin zen.
- Uztailak 18: Elkarte eta hainbat eragilarekin lantaldearen bilera egin zen.
- Abuztuak 4: GEPFeko arduradunekin bilera.
- Abuztuak 28: Elkarte eta hainbat eragilarekin lantaldearen bilera bat egin zen.

Egunean zehar:

Egitarau anitza borobiltzea lortu zen. GazteOlinpiadak irailaren 16an ospatu ziren Donostiako Antigua auzoan dagoen pilotalekuan. Ekimenari hasiera emateko aulki egokituarekin egiteko pilota jolasak landu ziren eta hauen amaieran txapelketa inklusiboa egin zen. Ostean, Gipuzkoako Pilota Federazioko partaideekin esku pilota oinarrian zuten taldekako joko eta jolasak landu ziren. Hainbat elkartetako gazteak nahasirik aritu ziren jolasean eta elkarlanean.

Hamaiketakoaren ostean, egindako jolas eta bizitako esperientzien inguruko parte-hartze dinamika bat egin zen. Bertan kirolak, inklusioak eta integrazioak komunean dituzten ezaugarriak identifikatu eta guztion arteko harremanetan sakontzeko dinamika bat burutu zen.

Ospakizunari amaiera, Denis Itsaso Gipuzkoako Gazteria, Kirol, Kultura eta Lankidetzak diputatuak, eta Martin Ibabe, Donostiako Udaleko Gazteria zinegotziak eman zien sari banaketarekin. Bertan Real Sociedad Fundazioak emandako material desberdina banatu eta zozketatu zen bertaratu ziren guztien artean.

Ebaluazioa

GazteOlinpiadetan 30-35 pertsona inguru biltzea lortu zen. Kirola ardatz izanda zenbait kolektiborekin gazteen integrazioa, inklusioa eta parte-hartzea hobetzeko saiakera bikaina izan zen. Aniztasun funtzionala kirolean lantzen duten Gipuzkoako hainbat elkartetatik (Kemen, Ortzadar, Dordoka) etorritako gazteen parte-hartzeak ekintza oraindik anitzagoa bilakatu zuen.

Bestalde, EGK ezagutzera emateko ekimen ona izan zen, esan bezala 30-35 gazte elkartzea lortu zelako goiz bakarrean eta horretaz gain, bertako bizilagun dezente gerturatu ziren Antiguako pilotalekura ekimenaren inguruan galdetu eta jolasak ikustera.

Ekimen honen bidez pilota eta, batez ere, kirola gazteen inklusioa eta integrazioa lantzeko tresna paregabeak direla ikusaraztea ere lortu zen.

Hobetzekorik ere egon zen hurrengo urtera begira. EGK-k parekidetasunaren alde lanean diharduen elkarte bezala, bere ekimenak ahal den parekideenak izatea du helburu. Aurtengo GazteOlinpiadetan gizonezkoen presentzia handiagoa izan da emakumeena baino, eta

hurrengo urteko GazteOlinpiadei begira erronka bezala jarri da gizon eta emakumeen arteko oreka lortzea. EGKrekin elkarlanean jardun zuten elkarte eta gazteekin egindako ebaluazioan, orokorrean ekimenaren balorazio oso positiboa egin zen. Gainera, elkarte desberdinetako ordezkariak harremanetan jarraitzeko asmo sendoa adierazi zuten.

Egunaren laburpen bideoa ere zabaldu zen sareetan, [hemen ikusgai](#).

Egunaren laburpena egiten zuen argazki galeria ere zabaldu zen sareetan, [hemen ikusgai](#).



3.2. GAZTEOK ETA PARTE HARTZE POLITIKOA: #GAZTEZTABAIDA

#GaztEztabaida

Alderdien bidezko partaidetza politikan aritzeko aukera bat da. Hala ere, ez da bide bakarra, gizarte eragileetatik edo interese propioetatik ere posible da erabaki politikoetan zeresana izatea. #GaztEztabaidaren bidez hori lortu nahi da EGKn, politika gazteei gerturatzea eta bertan parte hartu edo iritzia emateko aukera eskaintzea.

2016ko formatua errepikatu gabe, aurtengo #GaztEztabaidan gai bezala gaurkotasun politikoaren lehen mailara igaro den erabakitzeko eskubidea jorratu da. Ordezkaritza politikoei entzun ostean gazteei parte-hartzeko aukera desberdinak eskaini zaizkie.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Parte-hartze politikoa sustatzea gazteen artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Alderdi politikoek gazteei euren proposamenak eta erantzunak emateko testuinguru aproposa eraikitzea.
- Gazteen eta ordezkari politikoaren arteko elkarriketa sustatzea.
- Erabakitzeko eskubidearen inguruan alderdiek duten iritzia jakitea.
- Gazteek erabakitzeko eskubidearen inguruan dituzten proposamenak, kritikak edo galderak plazaratzeko eszenatoki bat eskaintzea.
- Erabakitzeko eskubidea bezalako gai batekin, politika gazteengana hurbiltzea.

Garapena

Euskal gizartean demokrazia ulertzeko gero eta modu gehiago daudela ikusi da azken urte hauetan. Agertoki honetan erabakitzeko eskubidea, Euskadiko gazteriaren zati batentzat, aldarri bihurtu da. Horretarako Eusko Legebiltzarrean dauden alderdi desberdinetako ordezkariak elkartu ditu EGK-k guztien artean erabakitzeko eskubidearen inguruan eztabaidatzeko asmoz.

#GaztEztabaidarako hautagaiak lortzeko EGK-ko Parte-Hartze Teknikaria alderdi desberdinetako arduradunekin jarri da harremanetan. Azkenean, Eusko Legebiltzarreko alderdi guztien presentzia bermatzea lortu da. Hauek izan ziren #GaztEztabaidan parte hartu zuten alderdi desberdinetako ordezkariak:

- Joseba Egibar (EAJ/PNV)
- Rebeka Ubera (EH BILDU)
- Lander Martinez (ELKARREKIN PODEMOS)
- Jose Antonio Pastor (PSE-EE)

- Anton Damborenea (PP)

Bide horretan #GaztEztabaida Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko auditorioan burutu zen. Bertako gazteen presentzia handia baliatuz, ahalik eta oihartzun handiena lortzeko. Bestalde, ekimenaren antolaketarako EGK-k EHUren eta Ikasle Kontseiluaren laguntza jaso du.

Eztabaidak bi ordu inguru iraun zuen eta ordezkari politikoei moderatzailearen hiru galdera nagusi erantzun behar izan zituzten. Erabakitzeko eskubideaz gain, Gernikako Estatutuaz eta martxan jartzekotan den Autogobernu ponentziaz ere hitz egin zuten hautagaiek. EGK-ko Bakea eta Bizikidetzatza lan-arloko teknikariak egin zituen moderatzaile lanak.

Hautagaien txandaren ostean gazteen txanda etorri zen. Bertaratu ziren gazteei mikrofono baten bidez parte-hartzeko aukera eskaini zien EGK-k. Etorri ezin izan zuten gazteei mugikorretatik Whatsapp bidez edo sare sozialen bidez eskaini zitzaizkien parte-hartzeko aukera. Sare sozialen kudeaketa EGK-ko Parte-hartze teknikaria eta Komunikazio teknikariaren artean kudeatua zen.

Eztabaida streaming bidez jarraitzeko aukera ere egon zen EGKren youtube-eko kanalean edo EHUren webgunean. Pertsona guztiek eztabaida jarraitzeko aukera izan zezaten EGK-k zeinu hizkuntza interprete bat kontratatu zuen.

#GaztEztabaida ikusteko sakatu [hemen](#).

Ebaluazioa

#GaztEztabaida aurtengo EGK-ko ekintza arrakastatsuen artean kokatzen da. Alde batetik edukia interesgarria eta kalitatezkoa izan da. Gainera, eztabaida burutzeko aukeratutako lekuarekin ere asmatu da. Izan ere, politikari eta gazteen artean lortu nahi zen gertutasuna lortu da. Bertaratutako gazteen aldetik parte-hartze handia egon da. Asko izan dira hautagaiei galderak egitera animatu diren gazteak.

#GaztEztabaidara fisikoki bertaratutako gazteez gain, asko izan dira mugikor zein sare sozialen bidez parte-hartu duten gazteak. EGK-k mugikor bidez eta sareetan #GaztEztabaida traolaren bidez jasotako galdera edo ekarpenak kontuan hartzen badira ehun inguru lirateke. Horrez gain, ia momentu oro 50-60 pertsona inguruk jarraitu zuten #GaztEztabaida streaming bidez.

Medioetan izandako oihartzunari erreparatuz, EGK-k bere helburuak bete ditu. EITB, Hamaika TV eta TVE telebista bertaratu dira #GaztEztabaidaren jarraipena egitera. EGK-k gazteen alde burutzen duen ekimen batek Euskadiko komunikabide handien artean interesa piztea lortu du.

Hobetzekoan artean parekidetasunaren gaia jartzen da berriz mahai gainean. Orokorrean publikoan zein hautagaien artean ez zen lortu parekidetasuna bermatzea. Errealitate honek EGKri arlo honetan lanean jarraitzeko arrazoiak ematen dizkio. EGK-k parekidetasunaren alde diharduen entitate bezala bere ekimen guztietan parekidetasuna sustatzen jarraituko du.



3.3. GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENKO HARREMANA: AHOLKULARITZA ETA MATERIALEN LAGAPENA

3.3.1. MATERIAL ETA GELEN LAGAPENA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren material eta gelen lagapen zerbitzua eskaintzen zaie gazte talde eta parte-hartzeko ekimen ezberdinei. Zerbitzua hobetzeko prozedura estandarizatua 2014an abiatu zen eta ordutik Parte-hartze arloak koordinatzen du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren elkarteei eta beste eragileei gelak eta materialak maileguan eskaintzea, gazte elkartegintzarekin eta eremu parte-hartzaileekin harremanak sortuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko materialak eta gelak lagatzea.
- Indarrean dagoen prozedura estandarizatua jarraitzea.
- Egindako lagapenei jarraipena egitea eta zerbitzua bultzatzea.
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekiko konfiantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

Garapena

Zerbitzuaren onuradunak EGKren parte diren elkarteak zein EGKren parte ez diren elkarteak izan dira. Materialak edo gelak maileguan hartzeko gazte eragileek edota gazteek webgunean dagoen formularioa ([ikusi webgunean](#)) bete behar dute. Behin hori eginda EGK-ko Parte-hartze teknikaria harremanetan jartzen da eskatzailearekin lagapena zehazteko.

Webgune berrian formularioaz gain, materialen katalogoa, gela edota materialak eskatzeko jarraibideak eta fidantzen zerrenda eskuragarri daude.

2016ean bezala, maileguan ematen diren materialak eta gelak jarraipen orri batean apuntatzen dira eta Parte-hartze teknikariak guzti honen koordinazioa eramaten du. Prozedura estandarizatu honi esker zerbitzuaren kalitatea hobetzea lortu da. Honekin batera, beharrezko aldaketak eta hobekuntzak egin dira.

2017an elkarte hauen eskaera erantzun du EGK-k:

- 30/01/2017 AMEDI elkarteari bideo kamara laga zaio.
- 13/02/2017 AVIEN elkarteari proiektorea laga zaio.
- 14/02/2017 Gazteok Zutik! elkarteari Bilboko bulegoetako gela txikia laga zaio.
- 25/02/2017 Gurutze gorria elkarteko gazte taldeari soinu ekipoa laga zaio.
- 25/04/2017 Bizigura elkarteari proiektorea laga zaio.
- 27/04/2017 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoetako gela handia laga zaio.
- 17/06/2017 Bizigura elkarteari proiektorea laga zaio.
- 17/06/2017 Ekintza Katoliko Orokorra Bilbo elkarteari proiektorea laga zaio.
- 12/09/2017 Euskal Interkultura elkarteari Bilboko bulegoetako gela handia laga zaio.
- 20/10/2017 ARES MPSP (MIR) medikuntzako elkarteari Donostiako bulegoetako gela laga zaio.
- 23/11/2017 Euskal Interkultura elkartekoei Bilboko bulegoetako gela handia eta gela txikia laga zaio.

Ebaluazioa

2015 martxan jarritako prozedurari esker zerbitzu honen kudeaketa ona izan da, bai EGKrentzat, bai eskatzaileentzat. Zentzu honetan, lagapen guztietan fidantzak jaso eta itzuli dira. Lan hau Idazkaritzarekin elkarlanean egin da.

Hemendik aurrera helburuak hurrengoak izango dira: prozedura mantentzea eta eguneratzea, mailegu zerbitzua ezagutzera ematen jarraitzea eta lagapenak eragile gehiagorengana heltzea.

3.3.2 GAZTE ERAGILEEI AHOALKULARITZA ETA PARTE HARTZEAREN SUSTAPENA:

2017an gazte ezberdinei aholkularitza eskaini zaie. Ekimen eraginkorra izateaz gain, gazteei aholkularitza emateko gaitasunak zentzu praktikoa eta ulergarriagoa ematen dio EGK bezalako erakunde bati. Lan hau gauzatzeko teknikari guztiak inplikatu dira.

Gainera, Parte-hartze lan-arlotik parte-hartzearen inguruko galderak eta berau sustatzeko asmotan zebiltzan zenbait elkartek laguntza eskatu ostean hauekin bildu eta aholkularitza lana egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Parte-hartzearen arloan edo beste gai baten inguruan gazte elkarte edo norbanako bakoitzak izan ditzaken galdera edo eskaeren inguruan aholkularitza lana egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte zein eragilek parte-hartze arloaren inguruan dituzten galdera zehatzen inguruan aholkatzea.
- Gazte zein eragileek antolatu nahi dituzten ekimen edo hitzaldietako parte-hartze dinamika edo dinamizazioan laguntzea
- Parte-hartzearen garrantzia gazteen artean sozializatzea

Garapena

EAEn hainbat gazte elkarte eta gazte eragileek EGK-ko lantaldearen aholkularitza jaso dute. Gai desberdinen gaineko informazioa eskuratu dute honi esker, besteak beste, astialdia, enplegua, berdintasuna, etxebizitza eta parte-hartzea.

Gazteek EGKra jotzen dute hainbat zalantzekin. Zalantza batzuk, betiko zerbitzuen gainekoak dira, hala nola, astialdiko ikastaro eta udako ekintzen gainekoak. Beste batzuk ordea, EGK-k lantzen dituen gai berriei dagokie. Zentzu honetan, azpimarratzekoa izan da adingabekoekin lan

egiteko aurrerapen penalen ziurtagiria edo natura sexualeko delituen ziurtagiriaren inguruan informazioa eskatu dutenen kopurua.

Guztira EGK-k hiru bulegoetan 40 eragile zein norbanakori eskaini die aholkularitza zerbitzua teknikari desberdinen bidez. Esan bezala, galdera gehienak hezkuntza arlokoak izan dira. Parte-hartzearen arloan laguntza eskatu diguten elkarte edo norbanakoek batez ere parte-hartzea jardura bezala nola finkatu edo parte-hartze dinamika berrien bidez gazteak beraien elkarteetara edo ekintzetara nola erakarri galdetzeko jarri dira gurekin harremanetan.

EGK-k Medicus Mundi Araba-rekin harremanak mantendu ditu urritik abendura bitartean. Beraien erakundera gazteak erakartzeko parte-hartze dinamiken inguruan lanketa bat egiteko.

EGK-k Eusko Jaularitzak Bilbon Urriaren 10ean bere IV. Gazte Planaren egikaritze prozesuan buruturiko World kafea dinamizatzen lagundu zuen Eusko Jaurlaritzako Gazteria teknikariek elkarlanean.

EGK-k Bilboko Udalak Maiatzaren 17 eta 18rako antolatu zituen GazteTalk jardunaldietan parte hartu zuen. Jardunaldian parte hartu eta gazte eragile bezala ekarpenak egin zituen EGK-k.

Ebaluazioa

Jaso ditugun aholkularitza guztien ondoren esan dezakegu EGKren lana ezaguna dela eta zenbait gaitan erreferente bihurtzen ari dela. Gizarteko eragile desberdin, teknikari, zein norbanakoek jo dute EGKrengana. Bestetik, EGKren lana gazteak ez direnengana ere gero eta gehiago iristen da.

3.3.3 EGKREN KIDE IZATEKO AHOLKULARITZA:

Parte-hartze teknikariaren funtzioetako bat gazteen elkartei EGKn sartzeko aukera helaraztea da. Horretarako bi bide daude, elkarteak eskaera egitea edota EGK-k elkartearen garrantzia identifikatu eta gero EGKn sartzeko eskaintza egitea.

Elkartei begira kide izateko bi modu daude:

- Eskubide osoko kide izatea edota kide sogilea izatea. Eskubide osoko kidea den elkarteak Batzorde Iraunkorreko kide izateko eskubidea dauka baita Batzar Orokorrean hitz egin eta bozkatzeko eskubidea.
- Sogilearen kasuan, batzarrera joan eta hitz egin dezake baina ezin du bozkatu ezta Iraunkorraren parte izan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ahalik eta eragile gehien erakarri EGKra eta horrekin EGK gero eta anitzagoa eta eraginkorragoa bihurtu euskal gazteriaren erronkei erantzuteko tresna bezala

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK arlo desberdinetako gazte elkarteetara zabaldu.
- EGKren lana zabaldu eta elkarten arteko harremanak indartzen lagundu.

Garapena

EGKn aholkularitza jaso eta gero kide diren elkarten zerrenda [webgunean dago](#). 2017an EGKn sartzeko aholkularitza jaso duten elkarteak hurrengoak dira:

- Atara Zarata gazteen antzerki taldea.
- Gasteizko Egibide Fundazioa.
- Gazte Moreak gazte mugimendua.
- Nuevas Generaciones.
- Asamblea Eusko-Saharau.

Ebaluzioa

Atara Zarata elkarteak eta Egibide fundazioak EGKren kide izateko asmoa azaldu dute. Prozesua aurrerora badoa martxoan burutuko den Batzar Orokorrean erabakiko da bi elkarte hauek onartzea. Bestalde, Nuevas Generaciones-ekoekin buruturiko bileraren ostean, elkarlanerako bidea ireki da. Beste elkarteekin harremanetan jarraitzen du EGK-k.

3.4. HEZITZAILEENTZAKO GIDAK: ANIZTASUN FUNTZIONALAREN INGURUKO GIDA, DROGOMENPEKOTASUNAREN INGURUKO GIDA

3.4.1 ANIZTASUN FUNTZIONALAREN INGURUKO GIDA:

Aniztasun funtzionala duten gazteen integrazioa ez da erabatekoa, eta elkarteek hezitzaileen formakuntza gabezia nabarmentzen dute. Aniztasun funtzionalen bat duten gazte gehienek ez dute ohiko kanpalekuetara joan nahi, ezta ohiko astialdi jardueretara ere, ekintzak ez daudelako behar bezala



egokituta eta ez direlako burutzen diren dinamiken partaide sentitzen. EGKren zutabeetako bat da barne-hartzailea izatea, hortaz, egoera eta behar desberdinak gogoan izaten duten proiektuak diseinatzea eta burutzea ezinbestekoa bilakatzen da.

Jarrera barne-hartzailea desiretatik ekintzetara pasa ahal izateko, EGK-k Bizkaiko Foru Aldundiarekin duen hitzarmen markoaren barruan, “Mugarik Gabeko Aniztasuna” Aniztasun Funtzionalarekiko buruzko gida burutu du. Hartzaile nagusiak gazte elkartegintzan murgildutako hezitzaileak dira.

Gida EGK-ko Hezkuntza eta Parte-hartze lan-arloek elkarlanean buruturiko lan bat izan da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Jarrera barne-hartzailea ekintzetan islatu ahal izateko gida egin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Jarrera barne-hartzailea ohiko bilakatzea.
- Proiektu orok barne-hartzailea izateko behar dituen gehigarriak ezagutzera eman.
- Elkarreek aniztasun funtzionalarekiko arretan zentratutakoak ez izaterakoan ere lan-tresna bat izatea.

Garapena

Aniztasun Funtzionalaren gaia gizarteratzeko eta hezkuntza ez-formalean aritzen diren hezitzaileei baliabideak eskaintzeko garatu den “Mugarik Gabeko Aniztasunaren” Gidaren eratze prozesua lau pausu nagusiez osaturiko prozesua definitu izan da:

- BILAKETA BIBLIOGRAFIKOA
- GAZTE ETA BESTELAKO ERAGILEEN KONTAKTUA
- GIDAREN EGITURAKETA ETA DISEINUA
- GIDAREN AURKEZPENA ETA ZABALPENA

Urriaren 3an aurkeztu zen lehenik prentsaurreko bat eginez eta ostean, eragile eta foru aldundira bertaratukoei hitzaldi baten bidez. Honen ostean aniztasun funtzionalaren gai zuen parte-hartze dinamoka bat egin zen jendearen erakarpen eta iritziak jasotzeko.

Gidaren eraketa prozesuaren nondik norakoak jakiteko EGKren Hezkuntza lan arloaren atala kontsultatu.

Ebaluazioa

Prozesuan zehar jasotako ondorioak nagusia Aniztasun funtzionala duten pertsonen inklusioa bermatzeko oraindik ere asko egiteke dagoela da. Horretan, hezitzaileak dute paper nagusia, baina gizarteko norbanakoek duten garrantzia ahaztu gabe. Pertsona bakoitzak dituen ezberdintasunak errespetatu behar dira, eta aldi berean, horietatik ikasi, pertsona guztiek ditugun eskubideak ahaztu gabe.

3.4.2 DROGOMENPEKOTASUNAREN INGURUKO GIDA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) arlo garrantzitsu bat hezkuntza da, hezkuntza formala eta ez-formalarekin harremana duten gaiak aztergai dituen. Drogomenpekotasunaren inguruan hezitzaileak duten materiala aztertutik eta gaur egungo gizartearen beharrak kontutan hartutik, gai hura lantzeko baliabideen gabezia aurkitu zen. Hori guztia kontutan hartuta, Bizkaia Foru Aldundiarekin (BFA) batera gai horren inguruan hezitzaileentzako informazioa eta prebentziorako tresna eraginkor bat sortzea erabaki zen. Gida EGK-ko Hezkuntza eta Parte-hartze lan arloek elkarlanean buruturiko lan bat izan da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gida, drogomenpekotasunaren arloan hezkuntza ez-formalean biltzen diren eragileei esku hartzeko baliabideak eskaintzeko eta inguruko agenteekin (irakasleak, familiak, lagunak, etab.) nola jokatu behar den laguntzeko gidaliburu izatea du helburu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Drogomenpekotasunaren prebentzioak sakontzea
- Drogomenpekotasunaren aurrean hezkuntza alternatibak egikaritzea
- Elkarrekin eta hezitzaileek gaian sakontzeko lan-tresna izatea.

- Erpin desberdinetatik abiatuta sustantzia desberdinen arriskuez informatzea

Garapena

2018an “Plazerrak eta Arriskuak Zentzuz Jokatu” argitaratu du drogomenpekotasunaren gaia gizarteratzeko eta hezkuntza ez-formalean aritzen diren hezitzaileei baliabideak eskaintzeko.

Era honetara, ondoko lau pausu nagusiez osaturiko prozesua definitu izan da:

- BILAKETA BIBLIOGRAFIKOA
- GAZTE ETA BESTELAKO ERAGILEEN KONTAKTUA
- GIDAREN EGITURAKETA ETA DISEINUA
- GIDAREN AURKEZPENA ETA ZABALPENA

Gidaren eraketa prozesuaren nondik norakoak jakiteko EGKren Hezkuntza lan arloaren atala kontsultatu.

Ebaluazioa

Proiektua oraindik bukatu gabe dago, gida eraketa prozesuan egonda. Proiektuaren garapena BFArekin batera koordinatuko da garapenean zehazten diren pausoak ondo emateko. Ondorioak eta ebaluazioa behin Gida burutu eta eragileen feed-back-a jaso ostean egingo da.

Nahiz eta gida oraindik bukatu ez egon, bere eraketaren prozesuan argi gelditu zen hezitzaileen papera berebizikoa dela drogomenpekotasunaren prebentzioan. Elkarriketatutako erakunde edo elkarte guztiek azpimarratu zuten ezinbesteko eragileak direla eta garrantzitsua dela gai honen inguruan haien formakuntza osatzea. Agente hauek esku-hartzeari dagokionez duten erantzukizunaz ohartzea beharrezkotzat azpimarratu zen.

3.5. ARABAKO GAZTEEN LURRALDE KONTSEILUA

Arabako Foru Aldundiaren eskaerari erantzunez, Arabako Gazteen Lurralde Kontseilua sortzeko proposamena egituratu du EGK-k. Proposamen hori Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren (helburuak, eraketa, funtzioak, maiztasuna, etab.) oinarriak finkatzen ditu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Arabako Foru Aldundiak garatzen dituen gazteria politikak kontrastatuko dituen Lurralde Kontseilua sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen ikuspegitik Arabako Foru Aldundiaren politika publikoak aztertu, landu eta doikuntzak proposatu.
- Administrazioarekiko gertutasuna sustatzea.
- Gazte elkarte eta administrazioaren arteko elkarlana sustatzea.
- Profil anitzeko pertsona gazteek osatutako kontseilu bat sortzea.

Garapena

Ekainaren 22an EGK-ko Presidenta, Maialen Olabe, eta Parte-hartze teknikaria Arabako Foru Aldundiko Gazteria saileko teknikari batekin bildu ziren. Biler horretan, EGK-k egin beharreko Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren egituraketa proposamena egiteko irizpide eta jarraibideak zehaztu ziren.

Proposamenaren egiturtzean emandako pausoak hurrengoak izan dira:

1.- Lurralde Historikoko gazteriaren eta gazteekin lanean diharduten elkarte eragile eta fundazioen diagnosi bat egin da. Hau gazteria sailak utzitako dokumentazioaren laguntzarekin

egin da. Arabako Foru Aldundiko elkartearen erregistroa aztertu da, egun Arabako gazte elkartearen errealitatea ezagutu eta aztertzeko.

2.- Elkartearen gaineko informazioa batuta, EGK-k Foru Aldundiarentzat eta gazte arabarrentzat benetan baliagarria eta praktikoa suertatuko den kontseilu bat eratzeke proposamena jasotzen duen txostena egin du.

3.- EGK landutako proposamenaren gainean Arabako Foru Aldundiak Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren arautegia izango dena helarazi zion EGKri azaroaren 29an. Ostean, proiektuaren gaineko azken ekarpenak egiteko bilera adostu zen abenduaren 13rako.

4.- Abenduaren 13ko bileran Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren gaineko arautegiaren inguruko azken ekarpenak aztertu ziren Arabako Foru Aldundiaren eta EGKren artean. Bilera horretan, Arabako Gazteriaren Institutu Foraleko zuzendari-gerentea den Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbígano-k hartu zuen parte. Gazteria Saileko 3 teknikari ere egon ziren. EGKren izenean Parte-hartze teknikaria joan zen. Bilera horretan Arabako Gazteen Lurralde Kontseilua izango denaren sorrera prozesua martxan jarri zen.

Ebaluazioa

EGK Arabako Gazteen Lurralde Kontseiluaren eraketarako prozesu honetan, Arabako Foru Aldundiarekin harremanak indartzea lortu du. Arabako gazte eragileen errealitatea ezagutu eta sare berriak sortzeko ere balio izan dio prozesuak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari.

3.6. PARTE-HARTZEA EUROPAN TXOSTENA

Parte-hartze arloa 2013ko uztaillean sortu zen, EGK-ko batzar orokorrean onartutako “Indartzen” plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izaki, parte-hartze arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen parte-hartzea sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez parte-hartzea modu praktikoa sustatzeaz gain, gazteriaren parte-hartzearen errealitatea jaso, horren inguruko hausnarketa egin eta hobekuntza proposamenak egingo dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioa eta gazteen parte-hartze eta antolakuntzarako Europar dauden eredu desberdinak aztertzea. Euskadin eredu berriak proposatze aldera.

HELBURU ZEHATZAK:

- Parte hartzea sustatzeko modu desberdinak ezagutarazi.
- Hemen dugun parte hartze eredu Europako eredu desberdinekin alderatu.
- EGKren etorkizuneko ekimenetan hauetako eredu berritzaileak txertatzen joatea.

Garapena

Instituzio zein hainbat erakundek gazteengana iristeko duten beharraren aurrean, beharrezkotzat jo da gazteengana iristeko parte-hartze eredu inguru hausnarketa lan bat egitea. EGK-k gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubi-lana egiten du. Euskadin eredu berriak proposatze aldera, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Europako parte-hartze eredu eta esperientzia berriak barnebiltzen dituen txostena argitaratuko du 2018an.

Lehenik eta behin, txostenaren oinarria eraikitzeko nahiz beste adibide batzuk ezagutu ahal izateko bilaketa bibliografiko bat burutu da.

Era honetara, parte-hartzearen inguruko diskurtso eta molde berriez egituraturik egongo den txosten baten aurre-diseinua egin da bere hiru zutabeak ondokoak izanik:

- Administrazioaren beharrak, abiapuntu gisa.
- Gazteen parte-hartzearen inguruko egungo diagnosia eta berauen parte-hartzea zailtzen duten faktoreen identifikazioa.
- Parte-hartzearen inguruko oinarri teorikoa, eta honekin batera Europako parte-hartze eredu berritzaileen esperientzia eta praktika egokien adibideak.

Gaiaren konplexutasunaz jabeturik, Gazteriaren Kontseiluak parte-hartze arloan adituak diren pertsona jakin batzuekin elkarriketak burutu ditu. Horrela, oinarri teoriko eta iturri bibliografiko egokien inguruan informazio egokia jasotzea lortu da.

ELKARTEA edo ENPRESA	IZEN-ABIZENAK edo DEITURA	AURKEZPEN LABURRA
Elhuyar	Jon Abril	Elhuyar-eko Parte-hartze arloko koordinatzailea.
Elhuyar	Imanol Azkue	Elhuyar-eko Parte-hartze teknikaria.
Sinnple	Iñigo Benedicto	Sinnple-ko Parte-hartze teknikaria eta parte-hartzean aditua.
DecideMadrid	Bertako ordezkariekin	Parte-hartze eredu berrietan sakontzeko sorturiko plataforma.
INJUVE	Bertako teknikariekin	Espainiako Gazteriaren Institutua.
European Youth Portal	Bertako ordezkariekin	Europako gazteen behar izanen lanketa egiten duen plataforma. Tartean parte-hartze eredu berrien inguruan lanean dihardute

Gidaren egituraketarako aurretiaz aipatutako pausoez gain, aurten parte-hartze eredu berrien inguruan Euskadin eta Espainiar Estatuan burutu diren jardunaldien jarraipena ere egin da. Bertan agerturiko iritzi ekarpen eta esperientziekin txostena borobiltze bidean jarri nahi da. Parte-hartze ereduen gainekeo jardunaldi desberdin hauek aztertu dira:

- **2017-ko martxoaren 6an** DecideMadrid plataformak antolatuta Madrilén burutu zen “Democracia directa en Madrid”.
- **2017-ko ekainaren 28an** UEU-k antolatuta Iruñean burutu zen “Gazteak parte-hartze politikotik boteretzera”.
- **2017-ko Azaroaren 23 eta 24an** Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta Donostian burutu zen “Gipuzkoako I Partaidetza kongresua”.

Ebaluazioa

Nahiz eta hasiera batean 2017an aurkezteko pentsatua zegoen, azkenean lanaren konplexutasuna eta lan-karga arrazoiak direla medio, txostenaren aurkezpena 2018an egingo da. Lanaren ondorio izan den txostena aurkezteko ekimenak administrazio desberdinekin koordinatuko dira.

3.7. EUTOKIA. BELAUNALDIEN ARTEKO TOPAKETA

EGKrentzat garrantzia handia hartzen du belaunaldi desberdinen arteko transmisioak. Belaunaldi desberdinen arteko hartu-eman eta komunikazioa ez da duela urte batzuk bezain indartsua. Hori horrela, EGK-k Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Eutokia proiektua burutu du. Bertan belaunaldi desberdinek elkar ezagutu eta Europaren etorkizunerako ekimenak proposatzeko dinamikak eraiki dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA

Maiatzaren 9a Europaren Eguna ospatzen dela baliatuz, hausnarketarako eta elkarriketarako gune bat sortzea, gazteek (18-30 urte) eta nagusiek (>65) Europar Batasuna hobeto ezagutu dezaten eta Europaren etorkizunerako ekimenak proposatu ditzaten.

HELBURU ZEHATZAK

- Belaunaldi arteko kontaktua eta jakintza trukea ahalbidetzea.
- Europar Batasuna hobeto ezagutzea.
- Gazte eta nagusiek etorkizunean nolako Europar Batasuna nahi duten hausnartu eta zehaztea.

Garapena

Gipuzkoako Foru Aldundiak, besteak beste, Euskadiko Gazteriaren Kontseilurekin elkarlanean, EUTokia tailerrak prestatu ditu 2017ko otsaila eta maiatza bitartean. Guztira 7 aldiz Bildu da EGK Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ekitaldiak prestatzeko.

Ekitaldien sorreran zenbait agentek hartu dute parte: EGK-k, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaz gain, GEUZ-ek (metodologia garatu eta ekitaldiak dinamizatu), Gestores Europeos-ek (ekitaldien edukia diseinatu), eta HASITAGO-k (diseinatzaile grafikoak).

Helburua belaunaldien arteko hausnarketarako eta elkarriketarako gune bat sortzea izaki, eta ahalik eta parte-hartze zabalena bilatzeko, guztira 5 ekitaldi burutu dira proiektuaren barruan. Bakoitza Gipuzkoako eskualde edo akzio-gune batean. Esperotako harrera lortu da jardunaldi bakoitzean, orokorrean ia jardunaldi guztietan 50 pertsona inguru biltzea lortu da. Jardunaldiak egun hauetan burutu dira:

- Maiatzak 2, Arrasaten
- Maiatzak 3, Beasainen
- Maiatzak 4, Errenterian

- Maiatzak 8, Tolosan
- Maiatzak 9, Donostian

Guztira 150- 180 pertsona inguruk parte hartu dute. Orokorrean jardunaldiarekin lortu nahi ziren helburuak lortu dira. Izan ere, jasotako ondorioak asko eta baliogarriak izan dira. Gazte eta nagusiek egindako ekarpen eta eskariekin txosten bat osatu da, eta Europa Batasunari bidaliko zaio.

Ebaluazioa

Belaunaldi arteko topaketen irakurketa positiboa egiten du EGK-k. Jasotako ondorioak oso mamitsuak eta anitzak izan dira. Bestetik, EGKren Parte-hartze lan-arloan asko ikasi da jardunaldi hauetatik. Batetik erabili diren parte-hartze metodo dinamika berritzaileak barneratzea lortu da eta bestetik, EGKren lana Gipuzkako osoko orografiara zabaltzeko aukera egon da.

3.8. EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZA PROGRAMA

EGK-k Euskadiko gazteen parte-hartzea sustatzeaz gain, Euskadiko gazteriaren artean elkartasun balioak sustatzen dihardu bere sorreratik. Hau horrela Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailarekin elkarlanean “Euskadiko Gazteak Lankidetzan” programaren egikaritzean eta sustapenean parte hartu du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:


EGL-ren deialdian parte-hartu duten gazteen hautaketa egitea eta horiei herrialde txirotuetan lankidetzak lana burutu ahal izateko behar duten informazioa ematea. Kooperazio proiektuak burutu ostean, esperientziaren ebaluazioan parte-hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak hastea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Garapena

1993an sortu zenetik, Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak 2.000 euskal gaztetik gora bidali ditu munduko zenbait tokitara borondatezko lankidetzak lanak egitera. Aurten ere EGK-k EGL-ko aukeraketa batzordean parte hartu du. 2016an EGK-ko Bake eta Bizikidetzako teknikaria egon zen aukeraketa epaimahaian. Aurten Parte-hartze teknikariak hartu du ardura hori.



Aukeraketa prozesua:

- Martxoaren 3an bildu zen EGL hautaketa batzordea Eusko Jaurlaritzak Lakuan duen egoitzan. Bertan hasierako 440 hautagaietatik 220 inguru aukeratu ziren.
- Martxoaren 10 eta 11ean bildu zen hautaketa batzordea berriz Barriako aterpetxean. Asteburu osoan zehar parte-hartze dinamika desberdinak antolatzen lagundu zuen EGK-ko Parte-hartze Teknikariak, hautagaien jakintza eta gaitasunetan sakontze aldera.
- Martxoaren 25 eta 26an bildu zen hautaketa batzordea berriz ere Barriako aterpetxean. Hautatutako gazteei informazioa helarazi zitzaizen. Proiektuaren inguruan sakontzeko zenbait hizlari ere bertaratu ziren. Berriz ere parte-hartze dinamika desberdinak egiten lagundu zuen Parte-hartze teknikariak. Barriara gerturatutakoetatik 100 aukeratu zituen hautaketa batzordeak.

Asteburuaren amaieran aukeratutako gazteek arduradun guztiekin hitz egiteko aukera izan zuten, eta ostean zehazki zein proiektutan parte hartuko zuten jakinarazi zitzaien.

Ebaluazioa

Urrian egin ziren aurtengo Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren ebaluazioa jardunaldiak. EGK-ko Parte-hartze arloan izandako teknikari aldaketa dela eta, EGK-k ezin izan zuen ebaluazio bilera horietan parte hartu.

3.9. GIZARTE ALDAKETARAKO HERRITARTASUNA

Alboan gobernuz kanpoko erakundearekin elkarlanean EGK-k Deustuko Unibertsitateko “Gizarte aldaketarako herritartasuna” irakasgaiari laguntzaile moduan parte hartu du. Deustuko Unibertsitatean irakasten den “Gizarte aldaketarako herritartasuna” izeneko irakasgaiak gazteak herritar bezala heztea du helburu.

Deustuko Unibertsitateko Fakultate guztietako ikasleek aukeratu dezakete irakasgai hau bigarren lauhilekoan (otsaila-maiatza). Irakasgaiari izen emandako gazteak aholkatzeko ardura izan du EGK-k.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko 4 ikasle aholkatzea herritarren parte-hartzearen inguruko eragin plan txiki baten diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskal Herriko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.
- Parte-hartzearen garrantzia ikasleei helaraztea.

- EGKren sozializazioan laguntzea.

Garapena

Irakasgaia gainditzeko eragin plan bat diseinatu eta burutu behar dute talde guztiek. EGK-ko Parte-hartze teknikariak aholkatu beharreko lan-taldeak herritarren parte hartzea lantzeko ardura hartu zuen. Guztira 5 aldiz bildu zen Parte-hartze teknikaria taldearekin. Lehen bi bileretan eragin plana diseinatu zen. Hurrengo bi bileretan eragin plana martxan jarri aurretik azken ukituak zehazteko bildu zen taldea. Azken bilera bat egin zen emaitzak ebaluatu eta planaren inguruko ondorioak ateratzeko.

EGK-ko Parte-hartze teknikariak zuzendutako taldeak Deustuko Unibertsitatean irakasgai bakoitza bukatzean irakasleak ebaluatzen ikasleek betetzen dituzten inkestak aztertzea erabaki zuen. Taldeak Deustuko Unibertsitateko ikasleen artean aukeratutako 8 pertsonako lantalde bat sortu zuen; sexua, parte-hartze maila eta fakultatea kontuan izanik. Dinamika baten bitartez, inkestan hobetu beharrekoak detektatu ziren eta hobetze proposamenak egin ziren. Dinamikan parte-hartu zuten gazteei inkestak duen garrantzia azaldu zitzaientzen, inork ez zekielako zein zen bere erabilera.

Astebete geroago, aukeratutako ikasleei egindako elkarrizketetan jaso zen, galderetan etorkizuneko inkestak seriotasun handiagorekin egingo zituztela. Honekin taldeak ikasle zein Unibertsitatearentzat garrantzitsua den irakasleen ebaluazio galdeketen inguruko eztabaida sortu eta ikasleek ekarpenak egitea lortu zen.

Ebaluazioa

Aurten jarri da irakasgaia martxan eta EGK-k gazteen parte-hartzean eta huen motibazioetan sakontzea lortu du. Esperientzia oso aberasgarria izan da. Bestalde, Deustuko Unibertsitateko gazteen artean EGK, eta beronen lana ezagutarazteko aukera egon da.

4. BAKEA eta BIZIKIDETZA

4.1. GIDA-LIBURUA+PROPOSAMENAK EUSKARAZKO BERTSIOA

Lan hitzarmenaren baitan gazteekin garatutako proiektuetan lortutako ondorioekin gida-liburu bat egin da. Dokumentuaren luzera dela eta, 2016ean gaztelaniaz soilik egiteko denbora eman zuen. Beraz, aurten, eta martxoan egin den zabalpen publikoari begira, dokumentua euskaratzeko tartea hartu da.

Helburuak

- Bi urtetan bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinetan jasotako guztia gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.
- Beste erakunde edo eragileek B&B lantzeko orduan erreferentziazko txostentzat hartzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

Gaztelaniazko bertsioa itzultzeraz bidali eta berrikusi egin da. Ondoren maketazio burutu eta 300 ale inprimatu dira, 150 hizkuntza bakoitzeko.



Ebaluazioa

- Bi urtetan bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinetan jasotako guztia gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helarazi da.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotu da.

4.2. GIDA-LIBURUA ETA DOKUMENTALAREN ZABALPENA

Bi urte luze hauetan, lan hitzarmenaren baitan burututako proiektuetan gazteek egindako ekarpenak instituzioei, komunikabideei eta gizarteari helarazteko helburuarekin bi material pedagogiko prestatu dira: gida-liburua eta dokumentala. Material hauen zabalpena egiteko martxoan aurkezpena egin da. Honetaz gain, irailean liburuaren bertsio elektronikoa (euskaraz eta gaztelaniaz) webgunera igo da interesa duen edonork kontsultatu edo deskargatu dezan.



Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bake hitzarmenaren baitan garatutako proiektu desberdinak gizarteari, eragile desberdinei eta komunikabideei helaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteok bakegintza prozesuan protagonistak direla eta zer esan badutela sinetsaraztea.
- Ikus-entzunezko gazte-memoria bat sortzea.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

ANTOLAKETA:

Aurkezpena prestatzeko helburuarekin, lehenik eta behin dokumentala talde tekniko eta batzorde iraunkorrari aurkeztu zitzaientzen, ikustatu ondoren haien ekarpenak kontuan harturik, zabalpen plana burutu zen eta baita aurkezpena antolatu ere.

MARTXOAK 2:

Martxoaren 2an, Donostiako San Telmo Museoan, gida-liburuaren eta dokumentalaren aurkezpena egin zen. Bertara berrogei bat lagun gerturatu ziren, erdia baino gehiago gazteak. Ekitaldia hiru zatitan banatuta zegoen: lehenengo zatian Bakea eta Bizikidetza hitzarmenaren baitan EGK-k azken hiru urteetan burututako lanaren aurkezpen orokor bat egin zen. Liburu eta dokumentalak kontatzen dutena argi uztea zen helburua: gazteendako espazioak sortzea, zehazki jarreraren arteko gerturatzea eta irtenbide elkarbanatuak errazten dituzten elkarriketa-guneak erraztea. Era berean, islatu zen hiru urte hauetan helburu nagusia ez dela izan adostasunetara heltzea, baizik eta pentsamenduez, jokaerez, erlazioez, emozioez, oroitzapenez eta kontraesanez hitz egitea. Ekitaldiaren bigarren zatia dokumentalaren proiektzioa izan zen, 53 minutuko iraupena izan zuen. Azkenik, galdera eta gogoetak partekatzeko espazio bat sortu zen, non gazteek beraien ikuspuntuak banatu zituzten.

Aurkezpenak hainbat hedabidetan agerraldiak izan zituen.

- Bizkaia Irratian [elkarriketa](#)
- Diario Vascon elkarriketa eta [albiste](#)
- El Correon elkarriketa
- Onda Vascon elkarriketa
- ETB
- Berrian [albiste](#)
- Noticias de Álavan [albiste](#)
- Noticias de Gipuzkoan [albiste](#)

Honetaz gain, gida-liburua bakea eta bizikidetza gaiei lotutako interesa duen edozein pertsonak kontsultatzeko helburuarekin, materiala bertiso elektronikora pasa zen eta irailean liburua bi hizkuntzatan EGK-ko webgunera igo zen.

Ebaluazioa

- Parte-hartze handia egon zen eta dokumentalaren aurkezpen ostean publikoko jendeak hainbat galdera egin zituen.
- Aurkezpenean *Gazteak eta Bakea* Gida-Liburua banatzeko aprobetxatu genuen, bai EGK-ko ekintzetan parte hartu zuten gazteei, baita egun hartan bertaratu ziren beste eragile batzuei.
- Bakea eta bizikidetza lan-arloan burutako proiektuak gizartera zabaldu dira, bai gida-liburuaren paperezko bertsioaren bitartez, baita bertsio elektronikoaren bitartez ere.

43. BAKE LANTALDEA

2015ean sortutako lantaldeari jarraipena emateko, 2017an talde honetara gehitzeko hainbat deialdia zabaldu dira. Aurten lan hitzarmen berriaren helburuak eta lan ildoak zehaztear zedenez, lantaldeak gazteon artean bizikidetza eta giza eskubideetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeke dauden erronkak eta proposamenak identifikatu ditu.

Helburuak

- 2015ean sortu zen lantaldeari jarraipena ematea eta gazte gehiago gerturatzea.
- Gazteok bizikidetza eta giza eskubideen gainean dituzten proposamenak eztabaidatu eta identifikatzea.
- Gazteok bizikidetza eta giza eskubideekin lotutako esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.
- Gazteok bizikidetza eta giza eskubideen aldeko kultura zabaltzeko protagonistak direla eta zer esan badutela sinestaraztea.

Garapena

SAIOAK:

Bake eta bizikidetza arloarentzat aldaketa handiko garai bat izan denez (lan hitzarmenaren eguneratzea eta teknikari aldaketa), lantalde finko bat sortzea erronka bat izan da. Aurrera eraman diren saioak datozen hiru urteetan landuko diren gaiak eta lan ildoak identifikatzeko erabili dira. EJKo Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak apirilean aurkeztutako 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plan berriaren proposamena aurkeztu zen, egun bizikidetzarako erronka berriak zeintzuk diren azaleratzeko. Lantaldeak gai gatazkatsuak lantzen jarraitzeko interesa erakutsi du, dinamika ezberdinetan sortzen diren gogoetetatik ikasi eta haien ikuspuntua zabaltzeko asmoarekin. Aipatu beharra dago saio bakoitzeko batez besteko partaidetza ez dela oso altua izan. Beraz, hurrengo urtera begira, deialdi ahaltsuago bat antolatzea da helburua, gazte gehiagok parte har dezaten.

Ebaluazioa

- Aurten lan hitzarmen berriaren helburuak eta lan ildoak zehaztear zeudenez, lantalde finko bat sortzea erronka bilakatu da.
- Saioak egun, bizikidetza eta giza eskubieekin lotuta, gizartean dauden erronkak identifikatzeko erabili dira.

- Hurrengo urtera begira, lantaldeak lanean jarraitzeko prestutasuna aurkeztu du eta saioetan burutzen diren dinamika eta ekintzekin emaitza konketuak jasotzea eskatzen du.

4.4. BAKE TEKNIKARIAREN LAN DEIALDIA

2017an Bakea eta Bizikidetza teknikariak 30 urte dituenaz, lan deialdiaren kudeaketa, hautaketa prozesua eta lekukoa burutu dira. Martxorako teknikari berria hautatu zen eta erreleboa egin zen.

Helburuak

- Bake teknikaria ordezkatzeko lan deialdiaren kudeaketa egin.
- Lekukoa egiteko beharrezkoak diren materialak prestatu.

Garapena

Otsail hasieran lan deialdiaren zabalpena burutu zen eta idatzizko froga eta hainbat elkarrizketa burutu ondoren, hilaren amaiera aldera teknikari berriaren hautaketa burutu zen. Bakea eta Bizikidetza lan-arloan formakuntza eta lan esperientzia duen pertsona bat hautatu zen. Martxoan zehar teknikari ohiarekin batera, erreleboa aurrera eraman zen.

Ebaluazioa

- Martxoaren hasierarako bakea eta bizikidetza gaiekiko formakuntza eta lan esperientzia duen teknikari berri bat hautatu da.

- Bakea eta Bizikidetza teknikari ohiak teknikari berriari ordura arte egindako lanaren nondik-norakoak azaldu zizkion, baita datozen urteetan garatu beharreko proiektuak aurrera eramateko, EGK-k duen filosofia transmititu ere.

4.5. ALDUNDIEKIN ETA HIRIBURUETAKO UDALETXEEKIN HARREMANAK EGIN ETA LANKIDETZA SUSTATU

2017an EAEko erakunde desberdinekin lankidetza aukerak bilatzeko helburuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin harremana egin da.

Helburuak

- EGK-ko Bakea eta Bizikidetza arloari jarraipena ematea.
- Bakea eta Bizikidetza arloko proiektuak lurralde bakoitzeko errealitatera eta bertako gazteen egoera, ikuspegi, behar eta interesetara egokitzea.
- EAEko elkarte ezberdinekin gertuko elkarlana sustatzea.

Garapena

Ekainean, Gipuzkoako Foru Aldundiak gonbidatuta, EGK-k “Aniztasuneko Bizikidetzako Planaren” inguruan ekarpenak jasotzeko World kafean parte hartu zuen. Planaren proposamena aztertzeaz gain, EAEan bakegintzan lan egiten duten hainbat eragile ezagutu eta haien proiektuen berri jakiteko gunea izan zen World kafea.

Hortaz gain, uztaillean Bizikidetza eta Giza eskubideen foru zuzendariarekin bilera bat burutu zen, etorkizunean EGK eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren arteko elkarlana aztertzeko.

Ebaluazioa

- Lurraldeetako aldundiek Bizikidetza eta Giza Eskubideak lantzeko burutzen ari diren proiektuen berri izan du EGK-k.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetza eta Giza eskubieen zuzendariarekin elkarlanak bilatu dira, etorkizunean EGK-ko proiektuetan gazte gehiagok parte hartzeko aukera izateko.

4.6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA ARLOAN IKERTZEN DUTEN ZENTROEKIN HARREMANAK EGIN ETA LANKIDETZA SUSTATU

2017an EAEan Bakea eta Bizikidetza lan-arloarekin lotura izan dezaketen hainbat zentroekin harreman aukerak bilatu dira: bai UPV/EHUko unibertsitatearekin, baita giza eskubideen arloan ikerketak egiten dituzten zentroekin. Era honetara, EGK-k etorkizunean diseinatu beharko dituen proiektu eta ekintzetarako metodologia eta dinamika desberdinak aztertu eta barneratu dira.

Helburuak

- EGK-ko B&B arloan proiektu eta ekintza desberdinak diseinatzeko metodologia eta esperientzia berriak aztertu eta barneratzea.
- B&B proiektuak lurralde bakoitzeko errealitatera eta bertako gazteon egoera, ikuspegi, behar eta interesetara egokitzea.
- EAEko elkarte ezberdinekin gertuko elkarlana sustatzea.

Urte osoan zehar EGK-k Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak lanztzen dituzten hainbat elkarte eta zentruarekin harremana izan du, kasu batzuetan ekintzen antolaketan laguntzen eta beste batzuetan horietan aktiboki parte hartzen.

4.6.1 24th Euroclio Annual Conference: *Intersections. How can History Education Change Today?*



Apirilaren 2tik 7ra, Donostiako Carlos Santa María liburutegian, Eurocliok antolatutako konferentzian parte-hartu zuen EGK-k. Historiaren irakaskuntzak bake kulturaren jokatzeko duen papera aztertu zen bertan, iraganeko historiak orainean eta

etorkizunean gazteengan duen eragina landuz. Gai horrekiko aditu desberdinekin hainbat mahai-inguru antolatu ziren eta lanketa teoriko batzuen ostean, hainbat dinamika parte-hartzaileak egon ziren landutakoa praktikan jartzeko. Gazteen artean iraganaren ezagutza bultzatu behar dela oso ideia esanguratsua izan zen EGKrentzat. Baita hezkuntza eraldatzea gizartearen eraldatzeko.

4.6.2 Kultura eta Bakearen Jardunaldiak XXVII: *Mugak, Itzalak eta Edertasuna*



Apirilaren 25etik 28ra, eta CEAR Euskadik Jardunaldiak XXVII

Gernikan, Gernika Gogoratuz “Kultura eta Bakearen antolatu zituzten. Aurten

babes-eskubidea eta gerratik, indarkeriatik eta miseriatik ihesi datozen pertsonen joan-etorria mahai gainean jarri zen. EGKrentzat oso interesgarria izan zen bertaratzea eta parte hartzea gai hori lantzen duten aditu eta hainbat elkarte ezagutzeko aukera bilatu zelako. Hortaz gain,

datozen urteetan landuko diren lan-ildo berriak jorratzeko ikuspuntu kritiko bat garatzeko tresnak ere landu ziren.

4.6.3 Violencia Masiva, Fosas Comunes y Derechos Humanos. Perspectivas desde las Ciencias forenses y Humanas Uda Ikastaora

Irailaren 13tik 15era, UPV/EHUko Unibertsitateak urtero antolatzen dituen Uda Ikastaro baten parte hartu zuen EGK-k. Gure gizartean indarkeriak utzitako ondoriak giza eskubideen ikuspuntutik aztertu zituzten hainbat historialarik, antropologo eta zientzia forenseetako adituek.

4.6.4 Rap-aren balioak gazteen arteko bizikidetzan eta Giza Liburutegiak, Bakeolaren eskutik

EGK-k, Bakeolaren eskutik, bi ekitaldi berezi burutu zituen urria eta azaro bitartean:

Lehenengoa, urriaren 25ean, “Rap-aren balioak gazteen arteko bizikidetzan” ekitaldia izan zen. Ekitaldi honekin Rap-aren balioak suspertu nahi ziren, harremanetarako eta aisialdirako beste aukera eraikitzaile batzuk daudela ikusarazteko. Horrela, hiriko arteaz baliatuz eta bizikidetzarako klima egoki bat sustatuz, memoriaren inguruko gogoeta bat egin zen. AGROARTEko kide den eta Medellinako (Kolonbia) 13.Komunan bizi den mutil gazte bat eta Euskadiko neska gazte rapera baten arteko esperientzia truke bat egon zen, non bakoitzak indarkeriarekin eta bizikidetzarekin izan duen esperientziaren inguruan abestu zuten. Ekintza amaitzeko, raperoek parte-hartzaileekin dinamika bat burutu zuten, eztabaida eta hausnarketa sustatzeko. Ekintza honekin kulturartekostasuna landu eta sustatu zen, Kolonbia eta Euskadiko errealitatearen arteko puntu komunak aztertuz.

Bigarrena, azaroaren 9an, ‘Giza Liburutegiak’ espazioa izan zen. Giza Liburutegiak liburuen ordeztasuna emakume eta gizonen istorioak ‘irakurtzeko’ espazioak dira. Memoriaren eguna ospatzeko asmoz, Euskadin indarkeria politikoak sortutako hainbat biktimen testigantzak lehengo pertsonen ‘irakurtzeko’ aukera izan zuten parte-hartzaileek. Ekintza hasi aurretik bertaratuek jatorri ezberdineko biktimen zerrenda bat jaso zuten, aurkezpen labur batekin. Bi ordutan zehar, hainbat biktimekin topaketa eta elkarrizketa mantentzeko aukera egongo zen. Ekitaldiaren helburua biktimen testigantzatik abiatuta, hauek memoria eraikitzerako orduan jokatzen duten paperaz gogoeta bat egin eta bizikidetzarekin gazteok izan dituzten esperientzia pertsonalen inguruan lanketa bat egitea izan zen.

4.6.5 Tolosako Bizikidetza Foroa: *Gazteak eta Iragan hurbilaren memoria*

Azaroaren 22an, Tolosako Bizikidetza Foroak antolatutako mahai inguru baten parte hartu zuen EGK-k. Bertan landu zen gaia “Gazteak eta Iragan hurbilaren memoria izan zen”. Helburua, gazteek azken 40-50 urteetan gertatutakoa nola bizitu izan duten ezagutzea izan zen. Mahai inguru honetan, Deusto Unibertsitateko ikerlari batek: “Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa” ikerketa aurkeztu zuen eta ondoren, EGK-ko Bakea eta Bizikidetza teknikariak, teknikari ohiak eta bake lantaldean burutuko ekintza gehienetan parte hartu zuen gazte batek, EGK-k bakean egin duen ibilbidea eta etorkizuneko erronka berriak aurkeztu zituzten. Bukatzeko, publikoak hainbat galdera planteatu zituen eta belaunaldien arteko gogoetarako tarte interesgarri bat egon zen.

Ebaluazioa

- Aurten EGK-k bakea, giza eskubideak eta bizikidetza lantzen duten hainbat jatorritako elkartek eta ikerketa zentruetara izan du harremana.
- Gai gatazkatsuak lantzerako orduan metodologia eta esperientzia berriak landu dira harreman horri esker, ondoren EGK-ko errealitatera eta gazteengana egokitu daitezkeenak.

4.7. NAZIOARTEKO BAKEAREN EGUNA EKITALDIA: #GAZTEOKBIZIKIDETZAN



Irailean, Berdintasun lan-arloarekin batera, EGK-k Bilboko Udalarekin duen hitzarmenaren barruan #GazteokBizikidetzan ekintza burutu zen. Honen helburua Nazioarteko Bakearen eguna ospatu eta testuinguru honetan giza eskubideez gogoeta egitea zen. Bi lan-arloen elkarlanaren fruitu, Bizikidetza kontzeptua zentzurik zabalenean lantzea izan zen: Berdintasuna, Giza Eskubideen errespetua eta Aniztasuna kontuan izanda. Ekintzaren ondorioak baliagarriak izan dira ez soilik EGKren lan-arloetarako, baita Bilboko Udalak martxan duen 'Bilbo Balioen Hiria' proiekturako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Giza Eskubideei buruzko gogoeta bat egitea hauek Bakea eta Bizikidetza kontzeptuarekin harremanetan ezarriz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bakea Bizikidetzarako gako gisa aztertzea.
- Giza Eskubideen garrantziari buruzko gogoeta sustatzea.
- Etorkizunari begira Giza Eskubideekiko gazteon proposamen eta erronkak identifikatzea.

Garapena

Ekintzaren diseinu, aurrera eramate eta ebaluaziorako ezinbestekoa izan da, lehenago esan den bezala, bi lan-arloetako koordinazioa eta baita Bilboko Udalarekin burututako jarraipen eta koordinazioa.

- **Bilboko Udalarekin proiektuaren definizioa, diseinua eta koordinazioa:**

Maiatzaren hasieran Bilboko Udaleko Gazteria sailarekin bilera bat egin zen, #GazteokBizikidetzan ekintzaren helburuak eta hauek lortzeko nondik-norakoak definitzeko. Ekintzaren diseinuari begira, abiapuntu gisa honek estimulu artistiko bat izatea positibotzat jotzen da, adibidez, antzezlan batekin hastera gazteengan gaiarekiko interesa eta gogoeta pizteko.

Maiatza eta ekaina bitartean irailaren 21ean, Nazioarteko Bakearen egunean, lekua izango duen ekintza diseinatzen da Bilboko Udalarekin beharrezkoak diren kontrasteak burutuz: ekintzaren ordutegia eta honek izango dituen atal desberdinak, hala nola, erabiliko den espazioa zein izango den definitzen da. Bilboko Arriaga plazan burutzea erabaki zen, honek bat-batean gehitu nahi diren gazteek ere parte hartu ahal izatea erraztuko duelarik.

Ekintza zabaltzeko bi deialdi burutu ziren. Lehenengoa uda aurretik, uztailaren erdialdean lehenengoz ekintzaren berri emateko. Bigarrena iraila hasieran, ekintza burutuko dela gogorarazi eta jada eragile desberdinen artean adostutako ordutegia ezagutzera ematen da, ekintzak izango dituen atal desberdinak gehiago zehaztuz.

Deialdiaren hedapenean Bilboko Udalak ere izandako parte-hartze aktiboa azpimarratu beharrekoa da. Izan ere, hasierako koordinazio bileran EGK-k nahiz Bilboko Udalak ekintza interesekoa izan zezaketen kanpo-eragile desberdinak eta elkarteak identifikatu zituzten.

Azkenik, aipatu beharra dago ere beste hainbat ekintzetan egin ohi den bezala EGK-ko bi lan-arloek bakoitzaren lantaldeko kideak gonbidatu zituztela.

- **#GazteokBizikidetzan burutu:**

20 gazte baino gehiago bertaratu ziren #GazteokBizikidetzan ekitaldira. Plataforma Tianta kolektibo artistikoak CEAR-Euskadiren parte-hartzearekin sortutako “Tras la frontera” antzezlanarekin hasi zen ekintza. Dantza, musika eta antzerkia bateratuz, egungo asilo egoerara hurbildu zituen bertaratutakoak.

Antzerkiaren ostean, dinamika parte-hartzaile labur bat egin zen. Gazteek egindako irudi eta marrazkien bitartez bizikidetzarekiko hausnarketak partekatu ziren. Azkenik, hamabost minutuko tarte utzi ostean, partaide bakoitzak ‘desiren putzuan’ bizikidetzarekin lotutako desio bat utzi zuen.

Urriaren hasieran ekintzatik lortutako ondorioak biltzen dituen txostena, hala nola, ekintzaren hainbat irudirekin burututako bideo laburra aurkeztu eta partekatu zen EGKren webgunean: <http://bit.ly/2yzCIAj>

Ondorio guzti hauek aurrerantzean Bakea eta Bizikidetzaren eta Berdintasun arloetan giza eskubideen gaia lantzeko abiapuntu bat gehiago izango dira. Horrela, 2017an gazteek

islatutako Bizikidetzarekiko konpromisoak, nahiz etorkizunari begira dituzten proposamenak, aurretiaz lan-arlo bakoitzean garatutako diskurtsoaren gehigarri izatea lortuko baita.

Ebaluazioa

- **Koordinazioa:** EGK-k ohikoa du bi lan-arlo desberdinen arteko koordinazioa. Kasu honetan, Berdintasun lan-arloa berreskuratu zenetik Bakea eta Bizikidetzaren lan-arloarekin koordinazioan burututako lehen proiektua izan da. Honekin batera, EGK-k Bilboko Udalarekin izandako koordinazio prozesua ere badago bitartean.



Bi kasuetan koordinazioak proiektuaren garapenean lagungarria izan da. Ez soilik antolaketa ikuspegitik emandako erantzukizun banaketagatik, baita ekintzaren kontrastea eta honetarako deialdia gehiago zabaltzea bideratu ahal izan delako.

- **Ekintzaren garapena:** Klean burututako ekintza bat izateak ondorio positibo eta negatiboak erakarri zituen etorkizunari begira kontuan har daitezkeenak berriro ere ekintza bat kalean garatzea erabakitzen bada.

Zailtasunei erreparatuz, ingurugiroko zarata eta momentuan ager daitezkeen bat-batekoak dira kontuan izatekoak. Zailtasun mota hauek kalean ekintza bat burutzea erabakitzen bada zailagoak dira saihesten, hala ere espazioaren aukeraketan eta honen egokitzapenean etorkizun batean kontuan har daitezke.

Dena den, parte-hartze eta dinamizazio ikuspegitik, hainbeste muga fisiko ezartzen ez

dituen testuinguru bat erabiltzeak ere bere ondorio aberasgarriak izan zituen. Izan ere, adierazi den bezala, ekintzaren momentu bakoitzean gazte nahiz adin guztietako pertsonak gerturatzea eta beraien ekarpenak ere egin ahal izatea bideratzen du ekintza eredu honek.

- **Lortutako ondorioen balorazioa:** EGK-k lortutako ondorioak positiboki baloratzen ditu. Izan ere, talde kopurutsua izateaz gain, lortutako aniztasunak ere eragin zuzena izan zuelako amaieran islatu ziren ondorioetan. Jatorri kultural desberdinetako, LGTBI+ kolektiboetako emakume eta gizon gazteak gerturatu ziren egunean ekintzara eta horrek ondorioak aberasten ditu. Gainera, parte-hartzaileek ere ondorioak ekintza ostean helarazi izana eskertu zuten.

Proiektua orokorrean oso positiboki baloratzen da eta 2018ari begira ekintza diseinatu duten bi lan-arloen erronka berrien identifikaziorako baliagarriak izan daitezkeen proposamenak jaso dira.

4.8. GIZA ESKUBIDE ETA BIZIKIDETZARAKO EGUNGO ERRONKAK LANTZEKO EKINTZAK

Euskal gizarteak Giza Eskubide eta Bizikidetzaz arloan dituen erronka berriak aztertu eta haien inguruan gogoetako kritiko bat egiteko elkarriketarako eremuak ireki dira gazteei zuzenduta. Helburu honekin bi proiektu mota landu dira: bata, EGK-k Arabako SEADen Lagunen Elkartearen eskutik jasotako proposamen baten ondorioz, Saharako gazteei formakuntza bat; bestea, indarkeria politikoak sortutako giza eskubideen urraketak ulertzerako orduan, euskal literaturak joka dezakeen paperaz gogoeta egiteko ekialdi bat. Bi proiektu motak oso desberdinak diren arren, giza eskubideen errespetuaren sustapenean oinarriturik daude.

4.8.1 Saharako gazteei zuzendutako formakuntza

Helburuak

- Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen planak azaleratzen dituen bizikidetzarako erronka berriak hizpide hartuz, Saharako gazteei formakuntza bat ematea, gizartea eraldatzeko tresnak jaso ditzaten.
- Saharako gazteriaren parte-hartzea gizartean sustatzea, egunerokotasunean dauden bidegabekeriei aurre egiteko.
- Euskadiko eta Saharako gazteriaren esperientzien elkartrukea.
- Euskadiko Gazteriaren eta Saharako gazteriaren artean lan-ildoak identifikatzea.

Garapena

EGK urteak darama Arabako SEADen Lagunen Elkartarekin lanean. Elkarte honek harreman zuzena du Saharako kanpamentuekin. Duela urte bat proiektu berri bat sortu zen, non EGK-k, Nafarroako Gazte Kontseiluak, Kataluniakoak eta Espainiako Gazte kontseiluek, parte hartzen zuten. Proiektu honen helburua gazteok elkartegintzaren bitartez lantzen dituzten erronka, esperientziak eta ekintzak Saharako hainbat gazte elkarteekin elkarbanatzea da.

EGKo Presidentea eta Bakea eta Bizikidetzatza teknikaria azaroaren 27tik abenduaren 4ra arte Saharako errefuxiatuen kanpamentua bisitatu zuten, Tindouf probintzian kokatua. Formakuntzaren helburua EGK-k elkartegintzan eta parte-hartzean egiten duen lana Saharako gazteei helarazteaz gain, hango gazteak egunerokotasunean dituzten erronkei aurre egiteko tresnak ematea zen.

Kontseilu bakoitzak *wilaya* edo herri desberdin baten eman zuen formakuntza 4 egunetan zehar. EGK-ko bikoteak Auserden eman zuen formakuntza, eta egun haietan zehar bertan bizi zen.

Formakuntzako materiala prest izan arren, baita helburu teorikoak ere, bertako kontestura egokitzeak, denborak mugitu zituen. Talde handia zen, 47 pertsonakoa (42 emakume eta 5

gizonezko) eta hizkuntzaren gaiak, hainbat oztopo ezarri zituen formakuntza jariatortasunez ematerako orduan. Aldi oro itzultzaile bat zegoen arren, komunikazio arazoak sortzen ziren eta ez ziren beti nahi ziren edukiak helarazten.

Hizkuntzaren desabantaila formakuntzan egin ziren dinamika parte-hartzaileekin konpentsatu zen. Talde handia zen arren, oso aktiboki parte hartzen zuten eta ariketa praktiko horiekin teoriarik emandakoa argitu eta indartu egiten zela konprobatu zen.

Formakuntza honetatik ateratzen diren ondorio praktikoetako bat, hurrengo baten bidaia luzeago bat egitea da. Hau da, taldearekin konfiantza hartzen denerako amaitu egin bait ziren saioak. Bertan emango den material guztiz aldeztatik aurretik itzultzea beste ondorio erabilgarri bat da.

Ondorio teorikoei dagokionez, EGK-k lan egiteko duen modua Saharako kanpamentuetan praktikara eramatea zaila izan da. Bertako errealitatea guztiz desberdina denez, hemen funtzionatzeko duenak han beste era batetara ulertu daitezke edo ez du balio eta horrek erronkak planteatu zituen saioak aurrera eramaterako orduan.

Bertako gazteriak denbora librean kudeatzeko arazoak dituzte ez dituelako egin behar zehatzak aurkitzen. Formakuntza eta ekintza gehiagoren beharra azpimarratu zuten parte-hartzaile guztiek.

Bestalde, berdintasun arloan ere lan handia egin daitekeela ikusi zen. Emamuke eta gizonen arteko berdintasuna lantzeaz baitago eta hango gizartean aurrerapauso asko eman dituzten arren, formakuntza eskatzen zuten, bereziki, bertako emakumeek.

Bidaia honen ostean SEADen Lagunen Elkarteak Artiumen antolatu zituen “Saharako gazteriaren gaur egungo erronkak modu parte-hartzaile batean” jardunaldiak esker, Euskadin bizi diren Saharako gazte talde batekin harremanak egin dituzte EGK-k eta etorkizunean aurrera eramateko elkarlanak.



Ebaluazioa

- Saharako gazteriaren errealitatea gertutik ezagutu da.
- Euskadiko eta Saharako gazteriaren esperientzien elkartrukea egon da.
- Euskadiko Gazteriaren eta Saharako gazteriaren artean lan-ildoak identifikatu dira.

4.8.2 Indarkeria Politikoa eta Giza Eskubideak Literaturan



Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteak giza eskubideen inguruan irudikapen artistikoaren bitartez sentsibilizatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Giza eskubideak esparru publikora eramatea.
- Narraziotik abiatuz, indarkeria ikuspuntu kritiko batetik aztertzea.
- Giza Eskubide eta bakearekiko belaunaldi arteko elkarrikeria bat sustatzea.

ANTOLAKETA:

EGK-k Dar-Dar Produkzioak kooperatiba artistikoarekin batera ekitaldi bat antolatu du Ordizian, Hiri Hezitzaileen programa barruan. Urtero indarkeria politikoak utzitako ondorioak giza eskubideen ikuspuntutik lantzeko ekitaldi bat antolatzen da bertan eta aurten EGKren eskutik, “Indarkeria Politikoa eta Giza Eskubideak Euskal Literaturan” ekitaldia antolatu da.

ABENDUAK 11:

- MAHAI INGURUA:

Ekitaldiaren helburua literaturak indarkeria politikoak utzitako ondorioak ulertzeko eta kritikoki aztertzeke joka dezakeen paperaz gogoeta egitea da. Nola islatzen ditu literaturak indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketak? Gatazkatsuak diren gaiak lantzeko ahalmena al du? Euskadin indarkeria politikoak utzitako ondorioak ulertzen lagundu gaitezke liburu batek? Galdera hauek planteatu dira idazleekin ekitaldiaren lehen atalean.

Ekintza gonbidatu bereziz osatutako mahai-inguru batekin hasi da. Patxi Zubizarreta, Edurne Portela eta Iban Zaldia idazleak etorri dira jatorri politikoko indarkeriaren gaia euskal literaturan nola islatu eta landu den aztertzeke.

- DINAKIMA:

Mahai-inguru ostean dinamika parte-hartzaile bat burutu da ekitaldira bertaratu direnekin, non idazleek idatzitako liburuen pasarte batzuen irakurketak pizten duten gogoetak aztertu dira. Konkretuki, Zubizarretaren *Pikolo*, Portelaren *Mejor la ausencia* eta Zalduaren *Ese idioma raro y poderoso* liburuen pasarteak landu dira horien irakurketak sortzen duten emozioak eta iritziak partekatzeko. Bukatzeko, parte-hartzaileek idazleei zuzenean galderak egiteko aukera egongo da.

- Mahai inguruan literaturak giza eskubideen urraketak nola islatzen dituen landu zen.
- Idazle bakoitzak perspektiba desberdin bat eskaini zuen gaiarekiko eta horrek eztabaida interesgarri bat piztu zuen.
- Dinamika parte-hartzailean jende gazte gutxi zeudenez, belaunaldien arteko elkarriketa mugatua izan zen. Hala ere, parte-hartzea handi izan zen eta bertaratu zirenak indarkeriaren gaiari loturiko hainbat galdera planteatu zizkieten idazleei.
- Parte-hartzaileek elkarriketarako eremu eroso bat sortu izana positiboki baloratu zuten, etorkizunean antzerako ekintzak errepikatu egin beharko liratekela azpimarratuz.

4.9. IRAGAN HURBILAREN MEMORIA ETA GIZA ESKUBIDEAK

Gazteek iragan hurbilaren memoriari loturiko ikuspuntuak eta bizipenak partekatzeko guneak sortu dira. Pasadan urtean Memoriaren Egunerako grabatu zituzten bideoak berbidali zaizkie eta aurten bideo berri bat egin da, ekintzan parte hartu zuten gazteek gai honekiko dituzten kezka, proposamen eta konpromisoa ikustarazteko. Ekintza hau aurrera eramateko bi saio desberdin egin ziren: lehenengoa, Memoriaren Eguna oroitzeko asmoz, azaroaren 23an, Gernikan; bigarrena, abenduaren 14an, Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan.



Helburuak

- Gazteok iragan hurbilaren memoriaren inguruan gogoeta egitea.
- Gaur egun memoriak duen balioa gazteei hurbiltzea.
- Memoriak giza eskubideekin duen lotura landu eta azpimarratzea.
- Gazteok B&B esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.

Garapena

Gernikan:

Gazteok Iragan hurbilaren Memoriarekiko eta Giza Eskubideekiko dituzten testigantzak jasotzeko asmoz, EGK-k Gernikan “Iragan hurbilaren memoria eta Giza Eskubideak” ekintza burutu zuen abenduaren 14an.

Gernika oso leku esanguratsua da Euskadiko iragan gatazkatsuak ekarritako ondorioei buruz hitz egiteko, baita etorkizun baketsu baten inguruan gogoeta egiteko. Are gehiago, kontuan hartzen bada aurten bonbardaketaren 80.urteurrena ospatzen dela.

Gogoeta sustatzeko asmoarekin, Gernikan dauden leku sinboliko batzuk bisitatu ziren gazteekin: Gernikako arbola, Europako Herrien Parkea, baita Picassoren Guernica horma. Gazteok iragan hurbilaren memoriarekiko duten iritzia jasotzeko asmoz, ondorengo galderak planteatu zitzaizkien parte-hartzaileei:

Nola transmititu digute azken 50 urteetan Euskadin gertatutakoa? Zerbait faltan bota dugu? Nola hautematen dugu egungo Historia eta nola transmitituko genieke gertatutakoa hurrengo belaunaldiei? Zein da giza eskubideen papera egungo gizartean? Zein egoeratan ikusten ditugu islatuta eta zeinetan ez?

Azkenik, ibilbideari itxiera emateko Gernikako Bakearen Museoa bisitatu zen. Bertan Giza Eskubideei eta indarkeria politikoari zuzenduta dauden erakusketak ikusi ostean, museoko zuzendariarekin bildu zen taldea memoria lantzeko eta giza eskubideak sustatzeko museoak


izan dezakeen paperaz hitz egiteko. Egun hartan parte hartu zuten gazteen testigantzekin bideoaren zati bat grabatu zen.

Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan

Ekintza honen bigarren zatirako, Gernikan landutako ideia eta gogoetak abiapuntutzat hartuz, EGK-k Gogora, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua bisitatu zuen beste gazte talde batekin. Egun honetan landu ziren galderak antzerakoak izan ziren arren, bisitatu zen lekua oso desberdina zenez, gogoetak beste norabide bat jarraitu zuen. Hau da, Gernikan memoria eraikitze eta lantzeko arteak eta museoak jokatzen duten paperean zentrau bazen elkarriketa, Gogora Insitutuan biktimen testigantzek memoria horren eraikuntzan izan behar duten ezinbesteko papera mahai-gainean jarri zen.

Egun hartako bisita Institutoko zuzendariaren harrerarekin hasi zen. Berak Institutuaren helburua azaldu zuen eta bertan aurrera eramaten dituzten proiektuen nondik-norakoekin aurkezpen bat egin zien taldeari. Gogora Institutua Euskadiko memoria jaso eta transmititzeko helburuarekin sortu da. Memorien arteko elkarriketa horrek muga bat baino ez du: “memoria ezin da erabili gertaerak baztertzeko edo parekatzeko. Ez eta ezein terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa mota justifikatzeko ere”. Teorian konplikatu izan daitekeen ideia hori gazteek segituan ulertu zuten bertan ikusi genuen jatorri desberdinen biktimen testigantzekin egindako bideoa ikusi ostean.

Biktimen testigantzak entzuteak duen balio pedagogikotik abiatuz, ondoren gazteekin izandako elkarriketa oso emankorra izan zen. Haiek memoria egiteko lehendabizi ezagutu egin behar dutela esate zuten eta horregaitik, bideo labur baina esanguratsu horrek, asko irakatsi ziela aitortu zuten.



Ebaluazioa

- Egun iragan hurbilaren memoria eraikitzeke gazteok duten garrantzia erakutsi da.
- Museoak eta arte lanek memoriaren transmisiorako jokatzen duten paperaren garrantzia azpimarratu da.
- Biktimen testigantzak entzuteak duen balio etiko eta pedagogikoa probatu da.
- Bizikidetzarako klima egoki bat bultzatu da eta honek gazteen testigantza eta gogoetak grabatzea ahalbidetu du.
- Iragan Hubirlaren Memoria eta Giza Eskubideekin loturiko edukiak jasotzen dituen bideo bat jaso da.

4.10. HITZARMENAREN BAITAN GARATUKO DIREN PROIEKTUEN PROPOSAMENA (2018-2020)

EGK eta Elko Giza Eskubide, Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetzaren hitzarmena eguneratzeko helburuarekin, EGK-k Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen agenda berriari lotutako gai berriak jorratzeko plangintza bat landu du.

Helburuak

- 2017ko EJ eta EGKren arteko lan hitzarmena eguneratzea eta adostea. Hau da: irizpideak eta helburuak adostu eta 2018-2020 urteetan garatuko diren lan-ildoak, proiektu motak eta lan eremuak definitu.
- EGK bizikidetzaren lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea, eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortuta izatea.

Garapena

Hitzarmena eguneratzeko helburuarekin, Ejko Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin hiru bilera antolatu dira, lehenengoa maiatzean, bigarrena uztailan eta hirugarrena azaroan. Azken bileran datozen hiru urteetan garatuko diren proiektu eta ekintza motak zehazteko proposamenak aztertu ondoren, plangintza bat finkatzea lortu da.

Ebaluazioa

- 2018-2020 urteetan EGK-k Bakea eta Bizikidetzaren lan-arloan garatuko dituen lan-ildo nagusiak definitu dira.
- Bakea eta Bizikidetzaren lan-arloa mantentzea eta beste hiru urtetarako jarraipena ematea lortu da.

4.11. PROTOKOLOA

Protokoloaren xedea EGK-ko gazte-elkarte baten parte edota EAEn bizi diren gazteen kontrako erasoak identifikatu eta deitoratzeko balio izatea da. Betiere, pairatutako Giza Eskubideen urraketak gaztearen jatorria, kultura, erlijioa edo ideologia politikoa badu oinarri. Giza eskubideen urraketak deitoratzeko testu eredu desberdinak daude, kasuaren arabera adierazpen testu bat edo beste bat plazaratzeko.

Helburuak

- Edozein ideia politiko, erlijioso, kulturalen defentsan indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzea.
- Gazte-izaera anitza aldarrikatzea eta ondorioz eraikitzen gaituen edozein ezaugarri erasotzea, izateko dugun askatasuna erasotzea dela argi uztea.
- Bake eta giza eskubideen kulturarekin lotutako baloreak gazteen artean sustatzea: tolerantzia, errespetua, enpatia, etab.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortua izatea.

Garapena

Aurtengo Batzar Orokorrean, 2016an Batzar Orokorraren onespenearekin sortutako protokoloa onartu da eta hiru aldiz aktibatu da. Lehenengo kasuan, Giza Eskubideen urraketa gain indarkeria matxista ere agertu zen egoera bat izan zenez, Bakea eta Bizikidetzatza lan-arloko teknikariak gain, Berdintasun lan-arloko teknikariak ere parte hartu zuen protokoloaren aktibazioan eta sare sozialetan zabaltzeko prestatu zen adierazpenean.

Bigarren aldiz, gazteen ideologia politikoari lotuta dauden giza eskubideen urraketa salatzeke aktibatu zen protokoloa. Gazte batzuek EGK-ko elkarte den Arabako Nuevas Generaciones del PP taldean partaide izateagatik fisikoki eta hitz bidez mutil bat erasotu zutenean.

Hirugarren aldiz, Bilboko Aste Nagusian, EGIko gazte batek Bilboko txosna baten ideia politikoengatik jasandako Giza Eskubideen urraketa baten ondorioz aktibatu zen protokoloa.

Protokoloaren bitartez EGK-k indarkeriaren aurka lan egiten du, hau den formakoa dela ere (zuzena, zeharkakoa, estrukturala...). Hare gehiago, indarkeriak sortzen dituen Giza Eskubideen urraketa oro (ideia politikoekin lotuta egon ala ez) salatzeke aktibatzen da protokoloa, gizartean orokorrean eta gazteengan partikularrean.

Ebaluazioa

- Martxoan ospatu zen Batzar Orokorrean 2016an sortutako protokoloa onartu zen.
- Protokoloak Batzorde Iraunkorreko kide guztiak ados jartzea lortu du.
- Aurten hiru aldiz jarri da martxan: maiatzaren 12an, maiatzaren 25ean eta abuztuaren 29an.
- Protokoloari esker, gertatutako erasoaren aurrean erantzun arina eta sendoa ematea lortu zen. Beraz, protokoloaren eraginkortasuna frogatu eta baieztatu zen.

4.12. EGUNEROKO LANA

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanen artean, bilerak, aholkularitza, egoitzako kudeaketa lanak, urteko proiektuen justifikazioa eta plangintzak burutu dira.

Helburuak

- EGK-ko izaera eta funtzionamendua bermatzen duten eguneroko lanak burutu.

Ebaluazioa


- Jarraipen bilerak: talde teknikoarekin, Batzorde Iraunkorrarekin, Bakea eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkariarekin, hala eskatzen duten elkarteekin, etab.
- EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliogarriak diren balorazioak eman eta ekintzetan parte hartu.
- Barne formakuntza saioak: aurten lan arriskuen prebentzioak lantzeko formakuntza saio

bat egin da.

- Gazte gaien gainean aholkularitza eta informazioa erraztea, ziurtagirien kudeaketa, prestatzen diren ekimenen gaineko izen ematearen kudeaketa eta zalantzak argitzea, etab.
- Egoitzako kudeaketa lanak: gela eta materialen lagapenak, telefonoa artatu, ezustekoak, etab.
- Komunikabideen eskakizunei erantzuna eman eta EGK-ko gazte-bake diskurtsoa bertan zabaldu.
- Urteko proiektuen justifikazioa.
- 2017eko memoriak.
- 2018ko plangintza.

5. BERDINTASUNA

5.1. SEXUALITATEAREN KOLOREAK GIDAREN AURKEZPENA



2016an zehar EGK-k BFArekin duen Hitzarmenaren markoaren barruan 'Sexualitatearen Koloreak' gida eratzeko proiektua agertu zen. Proiektu honek aurretiaz Astialdi Foroak detektatutako behar bati erantzuten zion eta, kontuan izanda hau guztiz matxismoaren egitura zeharkatzen duen bizitzaren arloa dela, Berdintasun lan-arloan garatutako proiektua izan zen (<http://bit.ly/2pk8anT>).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

'Sexualitatearen Koloreak' gida aurkeztu eta ezagutzera ematea gazte, hezitzaile eta gizarte eragile desberdinen artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- 'Sexualitatearen Koloreak' gidari buruzko formakuntza eta aurkezpen saioak burutu.
- Berdintasun lan-arloko eta Gaur8ko elkarten beste proiektu batzuk ezagutzera eman.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasun testuinguruan sexismoaren beste hainbat efektu identifikatzen laguntzea eragile desberdinei.

Garapena

Gidaren aurkezpen honetarako BFArekin koordinazio bilera desberdinak burutu dira. Honetaz gain, Gurenduz Psikologia zentroaren posta elektronikoko bitarteko harremana izan da eta gidaren

aurkezpenak eragindako hedabideen interesari ere erantzuna eman zaio.

AURKEZPENAREN AURREKO KOORDINAZIO BILERAK:

Esan bezala, gidaren aurkezpen ekitaldiaren diseinurako nahiz diseinua bukatzeko bilera desberdinak burutu ziren 2017ko urtarrila eta martxoaren artean:

- Urtarrilaren 13a: gidaren diseinatzailearekin eta BFArekin burututako azken koordinazio bilera izan zen. Honetan adostu ziren baita ere BFArekin azken diseinu berrikuspena egiteko, gidak inprimatzeko eta hauek aurkezteko datak.
- Urtarrilaren 19a: hau izan zen EGK-k diseinatzailearekin izandako azken bilera, zeinetan azken zuzenketaren berrikuspena eta oniritzia eman zen.
- Otsailaren 10a: aurkezpen ekitaldiari eta honek dakarren koordinazioari buruzko bilera burutzen da. Gidaren proiektuan inplikazio zuzena izan duten teknikariez gain, bai EGK-ko nahiz BFAko komunikazio teknikarien koordinazio beharrak adosten dira. Honetaz gain, ekitaldia burutzeko espazio desberdinak mahaigaineratzen dira.
- Otsailaren 16a: bilera honetan baieztatzen da Euskalduna Jauregiaren E Aretoa erabiliko dela aurkezpen ekitaldientzat, martxoaren 22an lekua izango dutenak. Bilera honetan adosten da Bizkaiko lurralde historikoan lan egiten duten teknikariei zuzendutako ekitaldia BFAk kudeatuko duela eta EGK-k gazteei zuzendutakoa. Gauzak horrela, otsailaren 27a ezartzen da deialdi bidalketarako.
- Martxoaren 9a: aurkezpen ekitaldien koordinaziorako azken bilera bat ezartzen da, aurkezpena prestatzeko denborak adostuz eta momentura arte dauden izen-emateak komentatuz, eramatea beharrezkoak izango diren materialak adosteko. Bilera ostean, BFAko teknikariak eta EGK-ko Berdintasun teknikaria Euskaldunako E aretora jotzen dute, eguneko beharrak zeintzuk izango diren zehazteko.

AURKEZPENAREN EGUNA ETA EKINTZA DESBERDINAK:

Koordinazio bileren ostean, gida gizarteratzeko ekitaldiak dira aipatu beharrekoak, hala nola, hauen prestaketarako emandako beste pauso konkretuak:

- Otsailaren 27a: ohikoak diren kanalen bitartez (EGK-ko webgunea, posta elektronikoko bidalketa desberdinak, bestelako informazioaren hedapenerako baliabideak...) deialdia zabaltzen da.
- Martxoaren 22a: egun honetan goizez eta arratsaldean burutzen dira gidaren lehenengo

bi aurkezpenak. Lehena, goizean, Bizkaiko lurralde historikoko teknikariei zuzendua dagoena. Bigarrena, arratsaldean, gazteei zuzentzen dena. Guztira, egunean zehar 50 pertsona inguruk jotzen dute Gidaren aurkezpena.

- Apirilaren 24a: Gurenduz Psikologia Zentroarekin koordinazio bilera bat burutzen da adosteko nola burutuko den gidaren eta EGKren lanaren aurkezpena.
- Apirilaren 26an: Gurenduz Psikologia Zentroan gidaren lehen aurkezpena burutzen da ikasleen talde batekin. Adin eta profesionaltasun maila desberdinak dituzten pertsonak aurkitzen dira hemen, gazteak barne.
- Apirilaren 27a: Gurenduz Psikologia Zentroan gidaren bigarren aurkezpena burutzen da beste ikasle taldearekin. Berrito ere, adin eta profesionaltasun maila desberdinak dituzten pertsonak aurkitzen dira hemen, gazteak barne.



Guztira, gida atera eta lehenengo hilabetea 72 pertsonetara iritsi da aurrez-aurreko aurkezpenen bitartez. Honetaz gain, hainbat izan dira gida eskatu duten eragileak. Hauen artean azpimarra ditzakegu, alderdi politikoen lantaldeak edo EGK-ko Gaur8 lantaldearen partaideak. Tamalez, eta

ikusita gidaren aurkezpenaren ostean gelditzen ziren giden alea, ezin izan da paperezko gida bat eskatu duten guztiei helarazi. Izan ere, gidak argitaratu eta gutxira berriro ere aurrekontua eskatzen da eta ikusten da EGK-k ezin diola 2017an horrelako gastu bati aurre egin.

AURKEZPEN OSTEKO PAUSUAK

Aurrekoaz gain, azpimarratu beharra dago gida ere aipatua izan dela STEE-EILASen 'Ortzadar gara' izeneko unitate didaktikoan (<http://bit.ly/2u5KoOX>).

Gainera, esan beharra dago gida honen ibilbidea ez zela egindako aurkezpenen eta banaketan gelditu. Izan ere, irailaren 19an 'Sexualitatearen koloreak' gida aurkeztu zuen EGK-k Eusko Legebiltzarreko Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean. Honetaz gain eta urte bukaera dugun honetan, EGK-k gidaren beste 100 ale inprimatzeko erabakia hartu du, ez baitziren ia alerik gelditzen egoitzetan. Hau eragile desberdinek eskatzen jarraitzen duten material bat izan da, beste Autonomia Erkidegoetako eragileak eta salerosketa espazioak ere izanik

harremanetan ezarri direnak gida lortzeko.

Ebaluazioa

Bi bloke nagusitan bana dezakegu ebaluazioa. Alde batetik, gidaren aurkezpenerako egindako lana eta, bestetik, aurkezpen osteko ondorioak baloratuz.

Gidaren aurkezpenerako egindako lanari begira, argi dago atzerapenek efektua izan zutela, ez hainbeste proiektuan bertan, baizik eta proiektu honekin batera eta honen ostean martxan jarri behar ziren beste hainbatetan.

Hau dela eta, antzeko hurrengo proiektuei begira epeak betetzen direla ziurtatzea beharrezkoa da.

Bestetik, argi dago gidak oso harrera positiboa izan duela bai hezitzaileen nahiz gazteen testuinguruan. Bere sorrera eskertu dute eragile desberdinek eta baita aleak eskatu ere. Gainera, lehen gida honen aurkezpenaren bitartez, EGKren beste lan-arloetatik diseinatuko diren gidak berri ere eman da, hurrengo hauekiko interesa lortze aldera ere.

Urte osoa pasata argi gelditzen da hasiera batean antzeman zitekeen gidak inpaktua izan duela. Hedabideetan isla handia izan duen proiektua izan ez bada ere, mota desberdinetako eragileek interesa piztu du eta hasiera batean aurreikusia zegoen hartzaile kolektiboa gaintu du. Era nahiko argian erakutsi du Berdintasunerako heziketa, sexu-heziketa horien parte izanik, oraindik ere hobetu beharrezkoa dela eta mota honetako heziketa bideratzeko beharra dutenek oraindik ere materialak eta beste era batzuetako baliabideak botatzen dituztela faltan.

Azkenik, ikuspegi tekniko batetik, baloratzekoa da bai eragileek nahiz gazteek emandako harrera LGTBI+ kolektiboaren egoera sexismoaren eta emakume eta gizonen arteko Berdintasun ezaren ondorio bezala kokatzen duen gida baita hau. Alegia, badirudiela nolabaiteko adostasuna dagoela gida osatzeko burututako elkarrizketen diskurtsoarekin eta EGKren Berdintasun lan-arloan garatu den ikuspegiarekin.

5.2. GAUR8 BERDINTASUN LAN-ARLOKO LANTALDEA



2016an sortutako lantalde honen 2017ko erronka nagusia izan da parte-hartzea igotzea ez soilik zifran baita parte-hartzaileen aniztasunaren ikuspegiaren aldetik. Honetarako, deialdi irekiak, proiektuen arteko balorazio bilerak eta EGKren bitartez egiten diren beste arreta batzuez baliatu ahal izango da lantaldea bera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasun arloko lanaren egokitasuna, hedapena eta jarraitutasuna ziurtatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK barruko lan taldea sortu eta denboran mantentzeko oinarriak ezarri.
- Gazteriaren Berdintasun arloko egoeraz eztabaidatzea, premiak detektatzea eta eraldaketarako beste bide batzuk eraikitzea.
- Berdintasun eta LGTBI arloetako gabeziak detektatu eta eragin politikorako gune bilakatzea.
- Berdintasun Arloarekin bat proiektuak burutzea.

Garapena

Urte hasieratik Berdintasun lan-arloak dituen erronkak direla eta (Sexualitatearen Koloreak gidaren aurkezpena, EGKren I Berdintasun Planaren itzulpena...) abian egon den lantaldea da hau. Hona hemen izandako ibilbidea urtean zehar:

- Urteko lehen bilera: otsailaren 22an burutu zen Bilboko bulegoan. Honetara lehen aldiz gerturatzen dira Berribide Eskaut taldeko lau kide. Bereziki formakuntza jasotzean daude interesatuak eta EGKren egitura eta lantaldeen zereginaz ere informatzen zaie.

Hala ere, lehen bilera honetan mantentzen dira eta Sexualitatearen Koloreak gidaren aurkezpenera gonbidatzen zaie.

- Bigarren bilera: maiatzaren 12an burutu zen Donostiako EGKren bulegoan. Honek lehen bost hilabetetako proiektuen ebaluazioa egiten da eta erronka moduan aurretiaz ezarritako helburuen berrikusketa egiten da. Argi gelditzen da sarea indartu eta jende berria taldean txertatzea eta parte-hartzaile bat gehiago izatea zaila dela, gehienbat, talde eratua eta pertsona berrien arteko harremanak nolabaiteko desoreka zor dezakeelako. Hala ere, behin ekaina pasata irailetik aurrera erronka honekin jarraitzeko asmoa adosten da.
- Hirugarren bilera: irailaren 13an, ikasturtearen hasiera medio, Gaur8ren bilera deialdi bat burutzen da. Honetan, aurretiaz aritu diren hainbat parte-hartzailearen aldaketaz eta baxaz hitz egiten da. Izan ere, bi parte-hartzaileek lortutako enplegu berriak direla eta alde batera utziko dute asistentzia eta ordezkoren bat aurkitzen saiatuko direla adierazten dute.



Lantaldearen bigarren urte honetan, deialdi konkretuak izan dituzten bilerez gain, garrantzi berezia izan du parte-hartzaile bakoitzarekin posta elektroniko bitartez nahiz aurrez-aurreko banakako bileretan izandako harremana. Horrela, elkarte bakoitzak burutu nahi zituen proiektu desberdinei buruzko edo mahai gainean elkarte edo gazte bakoitzak zituen erronkei buruzko aholkularitza burutzea posible eginik.

Elkarte eta gazte bakoitzari dagokion aholkularitza konkretuaz gain, badago ere era telematikoan garatu ahal izandako prozesu bat. 2017an EGK-k Bilbao Pride-era atxikitzeko proposamena jaso zuen proiektuaren garatzaileen eskutik. Erabaki hau hartzeko, EGK-k ezinbesteko izan zuen Gaur8 lantaldearekin erantzuna kontrastatzea. Komunikazio honen ondoriozkoa izan da atxikimenduari uko egitea. Izan ere, Gaur8n parte hartzen duten elkarte desberdinek aurreko urteetan izandako esperientzian oinarriturik hainbat ekarpen egiten zizkioten 2018ari begira atxikimendu bat posible izan ahal izateko.

Ebaluazioa

2016an beraien parte-hartzea finkatu zuten elkarteek 2017an zehar mantentzen ari dira ia guztiak. Ordea, urtearen bigarren sei-hilabeteen parte hartzeari utzi dioten pertsonak baditugu eta, 2016an gertatzen zen bezala, eragile berriak erakartzeko zailtasunak daude.

2017an zehar, orokorrean luzatzen diren gonbitez gain, bi elkarte feminista eta astialdiko hezitzaileen elkarte bat izan ziren gonbidatuak. Hauetatik, soilik bi agertu ziren bileretako batetara eta hauetan beraien taldeari erreferentzia zuzenagoa egiten zioten gaiak landuko zirelako.

Argi gelditzen da errazagoa dela gazte talde aldakorrak erakartzea proiektu eta gai konkretuekiko, hala ere, EGK-k lantaldeen beharra du diskurtsoaren egituraketan eta sorreran aurrera egin ahal izateko, hala nola, elkartegintza sartzeko. Hau dela eta, 2017an izan den bezala, 2018an lantaldea sendotzea izango da helburuetako bat; bai parte-hartzaile berriak bilatuz nahiz parte-hartze formulak eraldatuz.

53. BERDINTASUN PROTOKOLOAK

Urte erdiz protokoloak onartuak egon ostean, argi gelditzen da aktibazio bakoitzak lan gehiegi eramaten duela honen erantzule nagusiak izan ohi diren bi teknikarientzat (Berdintasun teknikaria eta Komunikazio teknikaria).

Hau dela eta, salaketa prozedura arintzeari begira, 2017ko Martxoaren 11ko EGKren Batzar Orokorrerako Berdintasun Protokolo berrien proposamena lantzen da. Ordutik eta aurrerantzean, sareetan ohikoa den argitalpena egingo da, beti ere EGKren proposamenetarako esteka erraztuz. Ordea, prentsa-oharra hedabideei helaraziko bazaie ere, ez da ohiko webguneko albiste publikatuko, hau baitzen denbora gehien eramaten zuen prozedura.

Aldaketa honekin dezente erraztu ahal izan da lana, gainera gero eta kontzientziazio egonik, orduan eta salaketa gehiago jasotzen dira, beharrezkoa izanik ahalik eta tresnarik eraginkorrenak izatea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Indarkeria Matxista eta LGTBI+fobikoaren aurrean EGKren hobekuntzarako proposamenak eta salaketa jarrera gizarteratzeko tresna arina izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Indarkeria Matxista eta LGTBI+fobikoa salatzekeo testu itxia izatea eta honen erabilera aurreko urtean ematen zena baino arinagoa izatea.
- Gazterian ematen den Indarkeria Matxista eta LGTBI+fobikoa ikusgai egitea.
- EGKren hobekuntzarako proposamenak ezagutzera ematea.

Garapena

2017an zehar, kontuan izanik protokolo aldaketaren aurreko kasuak, 67 aldiz aktibatu da Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa eta 4 aldiz Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkakoa.

Aurreko urtearen antzera, nabaria izan da komunikabideengan izan den eragina salaketa hauen bitartez, bereziki Indarkeria LGTBI+fobikoa izan denean, kasuek arreta gehiago erakartzen dutelako oraindik ere hain ikusgaia ez den indarkeria mota bat izateagatik.

Gainera, Maiatzaren 17a LGTBI+fobiaren aurkako eguna dela aprobetxatuz, protokoloen erabilerari eta EGK-k dituen LGTBI+fobiari aurre egiteko proposamenak oroitzekeo argitalpena egin zen EGKren webgunean bertan (<http://bit.ly/2tnaX5W>).

Honetaz gain, protokoloen aktibazioak beste administrazio nahiz taldeekin harremana sortu ahal izatea bideratu du. Adibidez, Ortuellako Berdintasun lan-arloarekin harremana egon zen Berdintasun protokoloen nondik-norakoak azaltzearen harira. Era berean, Gasteizko talde feminista batekin hasitako aholkularitza prozedura protokoloen berri izatearen bitartez hasi zen.

Azkenik, aipatu beharrekoa da aurten Indarkeria Matxistaren salaketarako protokoloaren aktibazioak lehen ehunekora iritsi direla. Egoera hau azaroan eman da. Aurten EGK-k lan-ildo izan du ere Indarkeria Matxista eta aktibazio zifra hau izanik, Indarkeria Matxistaren egoerari buruzko gogoeta eta honen aurreko sentsibilizazioa sustatzeko asmoz, azaroaren 30ean

prentsurrekoa burutu zuen. Prentsurrekoaren nahiz garatutako proiektuen nondik-norakoak aurrerago azalduko dira, dagokion proiektuaren atalean. Hala ere, aipatu beharrekoa da bai aurten EGK-k egin duen ekimen berezia eta honek izandako harrera hedabideen partez.

Ebaluazioa

Protokoloen eragina aldatu egin da. 2016an hedabideen arreta dezente lortzen zen bitartean, bereziki beste elkarrizketak burutu ahal izateko, 2017an beste gizarte eragileen eta administrazioengan eragina da aipagarriena.

Ordea, hau sakontasun gehiagorekin azaldu aurretik, esan beharra dago aurten ere Indarkeria Matxistaren salaketarako protokoloak aurreko urteko aktibazio joera berdina jarraitu duela. Gauzak horrela, hedabideetara iristen diren kasu gehienak bikote testuingurutik at gertatzen direnak dira, alegia, Genero Indarkeria kategoriatik kanpo gelditzen direnak.

Honetaz gain, aktibazioek lurralde historiko bakoitzeko proportzioa nahiko mantendu dute. Gauzak horrela, kasu gehiago aditzera eman dira Bizkaian. Ordea, aktibazio gehien sorrarazitako bigarren lurraldea aurten Araba izan da; nahiz eta azpimarratu beharra dagoen kasu honetan Gasteizko kasuak direla ezagutzera ematen diren guztiak.

Garrantzizkoa da egun ematen den Indarkeria Matxistaren ikusgarritasunari erreparatzea, oraindik ere salaketak egiteko edota salaketa publikorako zailtasunak aurkez ditzaketen testuinguruak identifikatzeko lagungarria izan daitekeen datu bat baita.

Nola ez, udalerriek beraiek edota mugimendu feministek salaketa publikorako gaitasunaz gain, hedabideek beste arrazoi desberdinengatik kasuengan izan dezaketen interesak ere eragina izan dezake salaketen hedapena egiteko. Izan ere, ikusgarritasuna salaketarako erraztasunen adierazle izan daitekeen bezala, errealitatearekiko ezjakintasuna ere sorrarazi dezake eta hau azpimarratu beharra dago guztiz: errealitatean ematen diren salaketa moten eta proportzioek ez dute bat egiten publiko egiten diren salaketekin.

Aipatzekoa da hedabideek oraindik ere jasotzen dituztela EGKren salaketa adierazpenak, hala nola, EGK-k egiten dituen hobekuntzarako proposamenak, lehenago egin ohi izaten zuten bezala elkarrizketa gehigarrietarako ez badira erakartzen ere. Are gehiago, aurreko urtean

EGKren salaketa jasotzen ez zituzten hedabide gehiagotara iritsi dira 2017an zehar EGKren proposamenak.

Ondorioz, positibotzat jo daitezke aurten ere protokoloak izaten ari diren harrera eta erantzuna. Hauek ezinbestean eragina baitute EGKren bestelako proiektu eta Berdintasun lan-arloko helburuengan.

5.4. EGKREN I. BERDINTASUN PLANA

2016an aurreko urtean burututako EGKren Berdintasun Diagnostika oinarri, EGKren emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I Plana izango dena diseinatzen da. Honetan, Gaur8 lantaldeak, Batzorde Iraunkorrak eta baita Emakundek ere parte-hartze maila desberdinak dituztelarik.

Kontuan izan dira hasieratik zeintzuk diren EGKren markoan Berdintasun Plan honek erakartzen dituen zailtasunak. Izan ere, alde batetik gai bikoitza jorratzen da; ez delako soilik emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren ohiko mailan gelditzen eta LGTBI+ kolektiboaren egoeraren analisia ere kontuan duelako bere neurrien diseinurako. Bestetik, eginbeharreko lana edo eragite esparrua ere bikoitza da, izan ere, EGK lan-espazio bezala eta EGK gizarte eragile bezala izan beharreko paperak kontuan hartzen ditu. Bigarren zentzu honetan azpimarratu beharra dago ezarritako neurriak orokorrak direla.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKn emakume eta gizonen arteko Berdintasuna zeharkako balore bezala txertatzeko Plana izan eta garatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasuna zeharkako balore gisa izatea EGKn hau lan-espazio bezala ulertuta.
- Berdintasuna zeharkako balore bezala edozein proiektutan txertatzeko baliabideak izatea.
- Berdintasun lan-arloaren proiektuek hainbat gai jorratzeko ibilbidea sortzea.

Garapena

2017ko lehenengo hiruhilekoan Emakundek burututako ekarpenak txertatzen dira ondoren EGKren emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako I Plana onartua izan dadin martxoaren 11an Bilbon burutzen den 37. Batzar Orokorrean.

Ordutik aurrera onartua gelditzen da baina egunerokotasunak ez du baimentzen lehen seiuhilekoan bertan jasota dauden neurriei heltzea eta, ondorioz, hauen garapena bigarren urte erdirako gelditzen da.

Bigarren seiuhilekoan bulego lan guztia burutzen da. Kontuan izan beharra dago EGKren Berdintasunerako Plana bi ataletan banatzen dela: EGKrengan eragiteko diren neurrien atala eta gazteria nahiz gizartearengan eragiteko atala.

Lehen aipatzen den atala da urtearen lehen seiuhilekoan zehar garatzeko aukerarik izan ez dena eta bigarren honetan burutu eta ebaluatu behar izan dena. Izan ere, bigarren atalari lotuta daude EGK-k aurten gazteriari begira garatutako Berdintasun ikuspegiko proiektu desberdinak.

Ondorioz, Berdintasun Planaren lehen atala EGK-ko barne funtzionamenduari dagokionez eta honi lotutako hainbat neurri edo proposamen 2018ko Batzar Orokorraren aurretik landu eta honetan aurkeztuak izan beharko direnez, oraindik ere publiko egin ezin daitezkeen lan-ildo desberdinak garatu dira aurten, hurrengo urteetan era sakonagoan garatu ahal izango diren neurrietarako oinarriak ezarritik aurten.

Ebaluazioa

Positiboki baloratu behar da oso eragile desberdinek parte hartu ahal izan dutela dokumentuaren berrikuspenean, horien artean egonda Emakunde. Era honetara, orokorragoa zen Berdintasun Plan baten eskematik EAEn eta Emakunderen markoaren barruan garatzen diren Berdintasun Planetara egokitu ahal izan dira EGKrentzat diseinatutako neurriak.

Lehen seihilekoan barne-neurriak garatzeko izandako zailtasunaren ostean, argi dago 2018ari begira denbora-antolaketa kontuan izan beharko dela aurrerantzean EGKren barne-neurriak beharrezkoa duten sakontasunarekin garatu ahal izateko.

Izan ere, kanpo neurriak etorkizunean ere EGKren urteko Plangintzan txertaturik egongo dira proiektu eran. Ordea, hauen garapenak berak jada urteko lan-karga ia guztia beharrezkoa dute eta hauen artean barne-neurrien lan-ildoan aurrera egiteko denbora aurreikustea izan beharko da 2018an erabiltzeko estrategietako bat.

5.5. GUNE ANITZA

2016an Berdintasunarekiko eta Aniztasunarekiko aldeketasuna erakusteko zigilu hau sortzen da. Hau lortzeko Manifestu batekiko atxikimendua zen burutu beharreko gauza bakarra. Ordea, denbora pasa ahala ikusten da Manifestuarekiko atxikimendua burutzeko borondatea baduten baina, nolabait, Gune Anitzaren filosofia garatzea zail ikusten duten hainbat espazio daudela, hauen artean administrazioak izanik batzuk.

Hau dela eta, kontuan izanik EGKren helburu nagusia dela gazte beharrak administrazioetara helaraztea, 2016an zehar 2017an aurkeztuko den Gune Anitzaren itxura berriari buruzko gogoeta ematen da. Honetatik ondorioztatzen da, manifestu baten ordeztu, beharrezkoa dela espazioen kudeaketarako gida edo liburuxka modukoren bat eta 2017an hau argitaratu eta jada atxiki diren espazioen berri emateko aprobetxatzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gune Anitza diren eta hauen proiektuen Aniztasunaren arabeko kudeaketa baimenduko duen liburuxka sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gune Anitza zigiluarekiko interesa piztu eta espazio gehiago atxikitzea lortzea.
- Espazioentzat ere erabilgarria den baliabide bat sortzea.
- Zailtasunak dituzten espazio nahiz banakoei ere laguntza eta aholkularitzarako aukera luzatu.

Garapena

Zigiluaren liburuxka eraikiz:

Lehenik eta behin garrantzizkoa zen Gune Anitza izan zitezkeen espazio desberdinak identifikatzea. Ostean, hauek proiektuen garapenean eta egunerokotasunean izan zitezkeen Aniztasunarekiko beharrak zeintzuk ziren pentsatu ahal izateko.

Behin hauek Gaur8 lantaldean identifikatuta eta 2016ko manifestua oinarri, 'Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka' diseinatu da. Honetan, Aniztasuna zeharkako balore bilakatzeko neurri eta proposamen konkretu desberdinak jarri dira adibide gisa, beti ere espazio baten behar desberdinetan pentsaturik (azpiegiturak, proiektuen diseinua eta antolaketa...).

Honekin batera, 2016an Manifestuak oinarri izan zituen dekalogoak eta hiztegia mantendu dira, Gune Anitzaren filosofia ulertze aldera lagungarriak izaten jarraituko zutela ondorioztatu baitzen lantaldean. Era honetara, 2016an aurkeztutako Manifestua baino arinagoa, zuzenagoa eta ulerterrazagoa den gomendioen liburuxka lortu zen, aurrerantzean zigilura atxikiko diren espazio guztiei helaraziko zaiena (<http://bit.ly/2nMjl8m>).

'Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka'ren aurkezpena:

Gune Anitza zigiluaren oinarri berri honen aurkezpena uztailaren 4an burutu zen EGK-ko Bilboko egoitzan prentsaurreko baten bitartez (<http://bit.ly/2tYrvl1>). Aurkezpen honen ostean EGK-k ordura arte atxikitako eragileei aleak helarazteko prozesua hasten du eta azaroan Gune Anitza guztiek beraiei aleak izatea lortzen du.

2017an burutu diren atxikimenduak:

Honetaz gain, badago proiektuaren garapenean garrantzizkoa izan den beste pauso bat: UPV/EHUren atxikimendua. EGK-k 2017an erronka gisa hartu zuen UPV/EHUrekin zuen harremana sendotzea eta elkarren laguntzarako nahiz zubi-lanerako aukera desberdinak identifikatzea. Prozesu honetan Gune Anitzera atxikitzea bi entitateen helburu eta desira bilakatzen da.

Ordutik, UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritza eta EGK-ko Berdintasun lan-arloa harremanetan jarri eta atxikimenduaren prozesua adosten da. Gauzak horrela, azaroaren 10ean (<http://bit.ly/2ydbYvI>) prentsaurreko bitartez aditzera eman zuten bi entitateek burututako atxikimendua.

Prozesu honekin batera, azken espazio bat atxikitzen da 2017an Gune Anitza zigilura, jada 12 izanik atxikitako espazioak. Gainera, beste gazte elkarte bat eta bi administrazio atxikimendua baloratzen ari dira urte bukaeran.

2018an ‘Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka’ berrikustea, beharrezkoa balitz berriz ere argitaratzea eta espazio berriak bilatzea izango da erronka nagusia, UPV/EHUren bitartez honetan dauden gazte elkarte desberdinetara iristeko aukera ere egonik.

Ebaluazioa



Proiektuaren ebaluazioa bi ikuspegitik burutu behar da kasu honetan. Alde batetik, oinarrizkoa izango den material berriaren garapena eta aurkezpena eta, bestetik, urtean zehar izandako atxikimenduak.

Argi dago 2017an sortutako material berria, alegia, ‘Erronkak errealitatea bilakatzeko liburuxka’ eragile nahiz administrazio desberdinek adierazitako beharrei egokitzen dela. Izan ere, gomendioak ez dira derrigortasunetik planteatzen, hori hainbat talde nahiz elkarte txikirentzat oztopo edo zailtasun eragilea izan baitaiteke. Era honetara, oso testuinguru eta baliabide mota

desberdinak dituzten espazioetara egokitzen diren gomendio orokorrak dira, baina adibide konkretuak ere aipatzen dituztenak.

Materialaren egokitasuna ikus daiteke ez soilik sorrarazitako atxikimendu berrietan, baita jada atxikita zeuden espazioek adierazitako iritzietan hau jasotzerakoan. Nahiz eta ebaluazio formalik pasa ez den, guztiek adierazi dute beraientzat laguntza handikoa izango dela. Bereziki lan sail desberdinak eta Berdintasunean ez adituak direnak dituzten espazioek adierazi dute hau.

Esan bezala, proiektu honetan baloratu beharreko beste arloa da aurten lortutako atxikimenduak eta hauen prozedura bera baita ere. Argi dago UPV/EHU bezalako erakunde bat EGKren proiektu batetara atxikitzea eta Aniztasunarekiko duen konpromisoa EGKren baliabide baten bitartez ikusgarri egin nahi izatea oso pauso esanguratsua dela bi entitateentzat.

Izan ere, proiektuari ikusgarritasuna ematen dion atxikimendu bat dela aurten proiektuak izandako hau. Hain zuzen ere, atxikimendu honek sorrarazi baitu baita ere lehen aipatzen genuen gazte elkarteak ere atxikimendua baloratzea. Gainera, UPV/EHU egunero milaka gazteren espazio den hezkuntza eremua da. Alegia, gazterian ere badagoen Aniztasunarekiko onarpen jarrera sustatu eta erakusteko espazio aproposa.

Honekin batera, gazteei zuzenduta dauden gaztelekuetatik etorri da 2017ko beste atxikimendua. Kasu honetan, pasa den urtean informazio eskatu zuen espazioetako bat izan da hau, aurten berriro ere proiektuaren garapenaren berri izatean atxikimendua burutzera animatu dena. Kasu honetan Urnietako gaztelekuaren atxikimendua izan da.

Horrela, egun jada era formalean burutu diren atxikimenduak kontuan izanik, Gipuzkoa izan da zigiludun espazio gehien lortu dituen lurralde historikoa aurreko urteko proiektuaren hedapen baliabideak mantenduz, UPV/EHUK hiru lurraldeetan dituen zentro guztiak bildu baititu atxikimenduan. Kontuan izan behar da atxikimendua baloratzen ari diren espazioen artean hiru lurraldeetan ordezkariak duen gazte talde bat eta Bizkaia eta Arabako lurralde historikoei dagokien administrazioak daudela.

Gauzak horrela, 2017an aurreikusia zegoen proiektuaren hobekuntza prozesua hasi dela eta honen ondorioak agertzen hasi direla esan daiteke. Hala ere, ezinbestekoa da egun dagoen atxikimendu aniztasun bidean lanean jarraitzea eta hurrengo urtean ere espazioen atxikimendu gehiago izatea helburu nagusia.

Bukatzeko, kontuan izan beharko da 2018an ere urte honen bukaeran Estatu mailan emandako martxoaren 15eko 3/2007 legearen gaineko aldaketa. Izan ere, aldaketa honen bitartez Trans* pertsonen errealitatearen eraldaketarako bidea irekitzen da. Ordea, aztertu izan beharko da 2018an ea aldaketa honek jada kolektiboaren despatologizazioa ziurtatzen duen ala ez.

5.6. BERDINTASUN EZARI... #GUKUZETZ! RECACCIONA – BIDEO LEHIAKETA

Ikus. Komunikazio lan-arloa

5.7. 'INDARKERIA MATXISTARI... #GUKUZETZ!' KANPAINA



Indarkeria Matxista Euskadiko gazteriak ere bizi duen gizarte arazoetako bat da. Izan ere, Berdintasunera bidean gazteriak duen oztopo larrienetakoa da hau. EGK-k Indarkeria Matxista publikoki salatzeko protokoloa onartu zuenetik, etengabe jo izan behar du honen aktibaziora. Egoera ikusita, 2017ari begira, gaia sakonki lantzeko erabakia hartzen da.

Hamaika ahots baina mezu bakarra: Indarkeria Matxistari errefus osoa. Ideia hau adieraztearen nahitik jaiotzen da 'Indarkeria Matxistari... #GukEzetz!' kanpainaren proiektua, urtean zehar garatu dena eta zeinaren ondorioak berriro ere gizarteratu ziren azaroan jarraian azalduko den bezala.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Indarkeria Matxista identifikatzen lagundu eta honi aurre egiteko tresnak gizarteratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Indarkeria Matxistari buruz kontzientziatu eta honen forma desberdinak ezagutzera eman.
- Gazteek dituzten aurre egiteko proposamenak eta eskura dituzten baliabide desberdinak gizarteratu eta aditzera eman.
- Gaztedian arazo honek duen pisua eta seriotasuna gazte diskurtso batetik aztertzea.
- EGK-k Indarkeria Matxistaren aurka lan egiten duen entitate gisa duen konpromisoa berretsi.

Garapena

‘Indarkeria Matxistari... #GukEzetz!’ kanpaina ondoko pausoez osatu da:

Kanpainarako deialdia:

Apirila eta maiatzean zehar Gaur8 lantaldearekin nahiz lantalde teknikoarekin ‘Indarkeria Matxistari... #GukEzetz!’ izeneko kanpainaren nondik-norakoak diseinatu ostean, maiatzaren 25ean, aprobetxatuz jada abian zela RECacciona bideo lehiaketa, kanpaina parte hartzeko deialdia zabaldu zen.

Honen bitartez, gazte anonimo, elkarte, talde eta administrazioengana helaraztea izan zen helburu nagusia. Hauetaz gain, kulturaren munduko hainbat eragileren ekarpenak ere jaso ziren.

Ekarpenak bai mezu pribatuz nahiz sareetan argitalpen publiko bat eginez helarazi zitezkeen EGKra. Hauek bai argazki nahiz bideo laburrak izan zitezkeen. Nola ez, errespetuan eta Berdintasunerako gizartearen eraikuntzarako ideiatan oinarriturik egon behar ziren material guztiak eta, ondorioz, era anonimoan ere helaraztea posible zen, hainbat gaztek egin izan zuten bezala.

Ekarpen guzti hauetatik gehien errepikatzen ziren ideiak harturik, #GukEzetz kanpainako bi

bideoak osatu ziren ([teaser](#)-a eta [bideo osoa](#)) 'Berdintasun ezari... #GukEzetz!' RECacciona bideo lehiaketaren sari-banaketa egunean aurkezpena ere burutzeko.

Kanpainaren aurkezpena:

Ekainaren 22an astebete beranduago lekua izango zuen #GukEzetz ekitaldirako deialdia zabaldu zen. Honetan, esan bezala, RECacciona bideo lehiaketaren sari-banaketa eta #GukEzetz kanpainaren aurkezpena burutu ziren. Ekainaren 29an Bilboko Azkuna zentroan (<http://bit.ly/2kkYk4t>) ekitaldia aurrera eraman zen EGK-ko eta administrazioetako ordezkariez gain hogeita hamar gazte gerturatu zirelarik ekitaldira. Gainera, honen bukaeran, kanpainari ere doinua ezarri zion MadMuasel abeslariaren hainbat abesti entzun ahal izan ziren, maitasuna Berdintasun ikuspegi batetik, emakumeen ahalduntzea eta antzeko gaiak lantzen dituztenak.

Ekitaldian #GukEzetz kanpainaren hurrengo urratsa eta helburua azaldu zen: udalerri eta elkarte nahiz gazte taldeei udaran zehar kanpainaren berri eta hedapenean parte hartzeko aukera luzatzea. Honetarako, EGK-ko ohiko baliabideez gain, administrazioen bitarteko gonbitaren hedapena burutzen da eta bideoaren hedapenarekin batera honen mezua biltzen dituen eskumuturrekoak eta Indarkeria Matxistari aurre egiteko informazio baliabideak eskaintzen dira.

#GukEzetz kanpainaren hedapena:

Azkenean, jasotako proposamenak eta udalerrietako nahiz mugimendu desberdinetako proposamenak aztertu ostean, kanpainaren hedapena udaratik haratago luzatzea erabakitzen da; neguan ere dauden jai espazio desberdinetan eta baita azaroan bertan hedatu ahal izateko.

15 espazio desberdinetara iristen dira uztailetik eta azarora arte #GukEzetz kanpainaren hedapenerako materialak. Hauetatik bi espazio konkretu izanik Gipuzkoakoak (Donostiako jaietako eta Elgoibarreko jaietako txosnagunean, azken honetan udalaren Berdintasun sailaren bitartez helaraziak) eta bakarra Arabakoa (Gasteizko udalaren bitartez hiriko jaietan banatu ziren eskumuturrekoak Ai Laket! elkartearen informazio puntuan).

Ekarpen honetaz gain, kontuan izan behar da hainbat espaziok beraien sareetan ere ematen zutela kanpainaren berri eta egon zirela baita ere material eta informazio banaketarako giza

baliabiderik ez izatearren hedapena bertan behera utzi behar izan zituzten udalerriak edota sareetara murriztu behar izan zituztenak.

Hedapenarekin eta kanpainaren mezua zabaltzearekin batera, EGK-k Lehendakariarekin bilera izan zuen irailaren 5ean (<http://bit.ly/2gJi4AI>). Kanpainak lortutako hedapena, mezuarekiko gizarte mailan lortutako adostasuna eta kanpainatik eratorritako ondorioak izan ziren bileran aztergai.

#GukEzetz kanpaina esku-hartze adibide gisa:

EGK-k 2017an garatutako kanpaina eta honi emandako hedapena Donostiako Udaleko Berdintasun eta Gazteria sailetatik diseinatutako Indarkeria Matxistari buruzko jardunaldian partekatu zuen (<http://bit.ly/2gKyFV5>).

Urriaren 25ean burutu zen San Telmo museoan 'Indarkeria Matxista Nerabezaroan. Nola bizi dute eta aurre egiteko baliabideak' izeneko jardunaldia. Honen helburua izan zen bai nerabezaro zein gaztaro testuinguruetan Indarkeria Matxistari aurre egiteko egun jada badauden baliabideak identifikatu eta hauek hobetu nahiz berriak sortze aldera proposamenak jasotzea.

Kanpainaren eraketa eta hedapenerako prozedura azaltzeaz gain, honetan jasotako mezuetatik ondorioztatzen ziren ideia nagusiak azpimarratu nahi izan ziren. Ideia hauek aurrerantzean gazteokin Indarkeria Matxistaren gaia lantzeko gako izan baitaitezke:

- Indarkeria Matxista bikote testuinguruan ematen den indarkeriatik eta indarkeria fisikotik askoz haratago doa.
- Administrazioerik garrantzitsuenetik hasi eta azken hiritar eta gazterainoko inplikazioa eskatzen duen arazoa da.
- Lanean jarraitzea eta Berdintasunean oinarritutako gizartea helburu positibo gisa ezinbestekoa da gizarte arazo honi aurre egiteko.

Kanpainaren itxiera ekintza:

Azaroa izan zen prozesuari itxiera emateko hilabetea. Alde batetik, udaran parte-hartzeko aukerarik izan ez zuen Portugaleteko udalerriko Gazte informazio bulegoak antolatutako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizaziorako hainbat ekimenen artean, #GukEzetz kanpainaren hedapena burutu zuen.

Bestetik, EGK-k prozesuari itxiera emateko ekintza konkretu bat antolatu zuen azaroaren 22an burutuko zena egun osoan zehar UPV/EHUko Donostiako campusean. Honen deialdia azaroaren 6an zabaldu zen (<http://bit.ly/2BQs5RN>) EGKren ohiko baliabideen bitartez. Gainera, kasu honetan, UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritza ere jakinaren gainean ezarri eta ekintzaren berri emateko eragileetako bat izan zen.

Gainera, deialdiaren efektua indartzeko, azaroak 11 eta 20an EGKren sareetan argitalpen bereziak egin ziren Indarkeria Matxistari aurre egiteko informazioa partekatuz. Ordea, azkenean arratsaldeko ekintza bertan behera utzi behar izan zen, dinamikaren alde parte-hartzailerako gutxieneko taldea ez baitzen lortu.

Hala ere, goizean zehar burututako ekintzak ia hogeitaz gazteren iritzia jasotzea baimendu zuen. Horrela, Indarkeria Matxistari buruz kanpainak baimentzen zuena baino iritzi sakonagoa jasotzeko aukera izan zen goizeko ekintza, gazteen ezagutza eta iritzia ezagutzea baimentzen baitzuten. Ekintza honetatik ateratako ondorio nagusiak dira:

- Gazte guztiek adierazten dute egun legediak duen 'Genero Indarkeria' kontzeptua murriztegia dela. Kanpainan jada islatzen zen bezala, emakumeen aurkako edozein indarkeria, emakume izanagatik ematen bada Indarkeria Matxistatzat jotzen dute gazteek. Honetaz gain, aipatu egiten da ere LGBTI+fobikoa den indarkeriaren eta ideologia matxistan oinarritua dagoen indarkeria orori buruzko gogoeta egin beharra: zein mailara arte sar daitezke hauek ere Indarkeria Matxista kontzeptuaren barruan?
- Orain arte 'Genero Indarkeria' kontzeptuak legedi ikuspegitik izandako aurrerapenak txalotzen dituzte gazteek.
- Egokitze jotzen dituzte egun dauden Indarkeria Matxistari aurre egiteko baliabideak eta uste dute beharrezkoa dela eguneko 24 ordutan arreta eskaintzen duen telefonoa izatea, baina telefonoak mugikorrean arrastoa uztea kritikatu dute. Zentzu honetan,

beharrezkoa litzateke oroitzea emakume bakoitzak har ditzakeen babes neurriak (adibidez, dei-zerrenda osoa ezabatu edota egindako dei konkretu hori ezabatzea).

- Azkenik, kasu bakoitzari beharrezkoak dituen baliabideak eskaintzea beharrezkoa da. Hala nola, gizarte arazo honi aurre egiteko gizarte mailan beharrezkoa den laguntzarako prestutasuna ere garrantzizkoa da.

Ondorioen aurkezpena:

Urte osoan zehar garatutako proiektu honen ondorioak aurkezteko azaroa aukeratu zen uda ostean. Gainera, Indarkeria Matxistaren salaketa publikorako protokoloen aktibazioak 100 izatera iritsi ziren hilabete honetan.



Hau dela eta, EGK-k ezinbestekotzat ematen zuen Indarkeria Matxistarekiko izandako diskurtso eguneraketa eta zentzu honetan bai administrazioei nahiz gazte zein gizarteari helarazten dizkion hobekuntzarako proposamenak.

Ondorioen aurkezpen hau egiteko azaroaren 30ean prentsurrekoa burutu zen EGK-ko Bilboko egoitzan. Honen berri emateko, alde

batetik hedabideei bidalitako deialdia eta, bestetik, sareetan azaroaren 25ean bertan partekatutako mezua erabili ziren.

Bi deialdiek interesa piztu zuten. Adibidez, ikus daiteke twitterren azaroaren 25ean egindako argitalpenak izandako oihartzuna. Nahiz eta xumea iruditu, kontuan izanik EGKren sareek izan ohi duten interakzio maila eta azaroaren 25ean burutzen diren ekintza guztiak, positibotzat jo daiteke jasotako harrera hau.

Azkenik, esan bezala, azaroaren 30ean burutu zen prentsurrekoa (<http://bit.ly/2AKcNyw>).

Honen bitartez EGK-k gazteriak bizi duen gizarte arazoaren larritasuna azpimarratu eta urtean zehar jasotako nahiz aditzera emandako hobekuntzarako proposamenak oroitu zituen.

Ebaluazioa

Kanpainaren garapena azaltzerako momentuan egin bezala, ezinbestekoa da ebaluazioan kanpainaren atal bakoitza aztertzea:

- **Kanpainaren sorrera eta aurkezpena:**

lortutako ahots eta mezu aniztasuna zalantzarik gabe faktore positibo bat izan da kanpaina honen garapenean. Izan ere, oso testuinguru desberdinetako ahotsak lortu dira baina guztiek mezu berdina batu dute; Indarkeria Matxistarekiko aurkakotasuna.



Gainera, #GukEzetz ekitaldiak erakarritako gazte kopurua ere azpimarratzekoa da, hauetako hainbat elkartegintzaren mundutik at zeuden gazteak baitziren. Alegia, ordura arte EGKren berri izan ez zuten gazteengana gerturatzeko aukera izan zen.

- **Kanpainaren hedapena:** udan zehar eta honen ostean kanpainak lortutako hedapen maila azpimarragarria da. EGKren proiektua jai-giroarekin lotutako 15 puntu desberdinetan egon ahal izan da. Gainera, bai eskumuturreko eta informazioaren hedapena burutu ahal izan duten udalerrri nahiz mugimenduek zein ezin izan dutenek gizarte arazoa den Indarkeria Matxistari aurre egiteko hobekuntza esparruez asko adierazten dute:

- Baliabideak eta mezuak gehitzea positibotzat jo daiteke, lekuan-lekuko kanpainak indartu egin baitaitezke orokorrak diren markoen bitartez.
- Ezinbestekoa da lekuan-lekuko giza baliabideak izatea. Izan ere, hainbat udalerririk adierazi zuten eskumuturreko eta informazioaren banaketarako giza baliabideen falta hedapenean parte ez hartzeko arrazoi gisa.
- Aurretiaz lurralde historiko bakoitzean egindako lanketak eta sarerako joerak,

hala nola, EGK-k proiektua garatzeko izandako datak eragin zuzena izan dute lortutako emaitzetan.

- **Itxiera eta ondorioen aurkezpena:**

- Kanpainan eta azaroan burututako azken ekintzan jasotako gazteen iritzi eta hobekuntzarako proposamenek aurrerapauso bat dira eta 2018an gaiari jarraitutasuna emateko.
- Aurkezpenak izandako inpaktua ere era positiboan baloratu beharra dago, honen isla izanik berriak hedabideetan izandako agerpena (ikus. Eranskina)

‘Indarkeria Matxistari... #GukEzetz!’ kanpainak mezua hedatzea lortu du. Era berean, administrazioek, elkarteek, gazte talde desberdinek, gazte ezagun zein anonimoek gizarte arazo bati mezu berdinarekin bat egitea lortu du.

Hala ere, kanpainaren benetako inpaktua honen ondorioen aurkezpenean lortu dela esan genezake. Izan ere, egoeraren larritasunak beharrezkoa zuen erantzuna jaso zuen deialdiak.

2018ari begira eta jada 2017an onartutako EGKren Berdintasun Planean jasota zegoenari loturik, ordea, erronka berri bat marrazten du proiektu honek. Baiezta dezakegu emakume gazteek Indarkeria Matxista gehiago salatzen dutela, ordea, ezer gutxi dakigu honen arrazoiak.

Nahiz eta ezinezkoa den erabateko erantzun bat lortzea, kontuan izanda gazteek datu honen aurrean erakutsitako ardura eta zalantza, ezinbestekoa izango da galdera mahai gaineratu eta eztabaidatzea: salaketa gehiago ematen dira Indarkeria Matxistaren aurrean kontzientziazioa igo delako edo gazterian gertakari gehiago ematen direlako? Galdera honen erantzunak ezinbestean efektua izan baitezake aurrerantzean Indarkeria Matxistari aurre egiteko burutuko diren politika eta programetan.

5.8. #GAZTEOKBIZIKIDETZAN

Ikus. Bakea eta Bizikidetza lan-arloa

5.9. SEXBERDIN HIRUBURUA



EGK-k Gasteizko Udalarekin duen hitzarmenaren barruan Aniztasunari eta, bereziki LGTBI+ kolektiboko gazteen egoerari buruzko Hiruburuak burutu du aurten. Hiruburuak teknikariak, politikariak eta gazteak azken hauen interesekoa den gai bati buruz eztabaidan ezartzen dituen dinamika mota da. Honetan, EGKren helburu den zubi-lana errealitate bilakatzea da helburu; teknikari, politikari eta gazteak zuzeneko elkarriketan proposamenak eraikitzeko helburuarekin elkartuz.

Aurten burututako Hiruburu hau irailaren 27an burutu zen Gasteizko El Pilar gizarte etxean. Aurretik burutu izan diren Hiruburuengandik desberdinduz, hizlari desberdinek parte hartu zuten hasieran egindako gaiaren aurkezpenean. Era honetara Gasteizko hirian Aniztasunaren eta LGTBI+ gazte kolektiboaren errealitatea hobeto ezagutu ahal izatea erraztu zen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gasteizko Udalaren eta hiriaren egoera konkretuan Aniztasun ikuspegitik eta LGBTBI+ gazte kolektiboaren egoerari dagokionez egin daitezkeen hobekuntzarako neurri eta proiektuetarako proposamenak jasotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek antzematen dituzten desberdintasun eta bereizketa egoerei erreparatu eta hauei aurre egiteko proposamenak eraiki.
- Berdintasunak bizitza pribaturako balore gisa duen gaitasuna balioetsi.
- Udalarekin harreman zuzena duten eragileekin eta proiektuak garatzen dituzten pertsonekin eztabaidan hobekuntza proposamenak eraikitzea.

Garapena

Uztailan zehar Gasteizko Gazteria sailarekin koordinazioan definitzen dira proiektuarentzat beharrezkoak diren ikuspegi teknikoko baliabideak eta honetara parte-hartzera gonbidatzeko Udaleko nahiz honez kanpoko intereseko eragileak. Koordinazio honetatik Udalean dauden alderdi politiko guztiak eta Segurtasun, Berdintasun, Hezkuntza eta gazteria sailak gonbidatzearen erabakia hartzen da.

Behin hauek definituta, aurreko Hiruburuetan bezala, Gasteizko Udalaren esku egon da Hirubururako lekuaren erreserba nahiz Udalaren bitartez gonbidatu beharreko eragileekin harremanetan ezartzea eta hauek parte-hartzera animatzea. Bestalde, EGK-k ohikoak dituen baliabideen bitartez eta Gasteizko Udalaren laguntzarekin parte-hartzeko deialdia zabaldu zuen irailaren hasieran (<http://bit.ly/2wARjng>).

Uztaila eta irailaren hasiera baliagarriak izan dira bai EGK-ko Berdintasun lan-arloak nahiz Gasteizko gazteria sailak Hiruburuaren aurkezpen atalean hitz egingo zuten hizlariak adostu eta lortzeko. Azkenik, ondokoak izan ziren hizlariak eta beraiek landutako gaiak:

- Maria Alvarez-Rementeria Alvarez: ikerlariak 'Hezkidetza eta sexu-heziketako irakasleriaren formakuntza jarraitua. Genero ikuspegiko analisi bat' proiektuaren ondorio nagusiak aurkeztu zituen. Honetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoan irakasleriari eskaintzen zaion formakuntza jarraituak egun dituen hobekuntzarako esparruak identifikatu ziren.
- Aldarte Kualitate ikerketa taldea: 2017 urtean zehar talde honek LGBTBI+ kolektiboaren diagnostikorako ikerketa burutu du Gasteizko Udalarekin elkarlanean. Hiruburuaren momentuan ikerketa prozesu erdian aurkitzen da eta honetan emandako urrats desberdinak aurkezten dira, egun jada Udalak abian duen lan-ildoak sakontasunez ezagutu dadin.



- Gasteizko Udaleko Asexoriako sexologoa: aurkezpen honen bitartez Gasteizko Asexoriak 20 urte luzez eskaini izan duen zerbitzuaren eta ibilbide honetan antzeman dituzten

aldaketen berri eman zen, zerbitzua ezagutzera emateaz gain agian oraindik ezagutzen ez zuten gazteen artean.

Azkenik, Hiruburuaren estiloari jarraiki, sarrerako aurkezpenen ostean hiru mahai desberdinetan bildu ziren eguneko eragileak. Mahai bakoitzean gai bat lantzeko galderak partekatzen zituzten moderatzaileek, azken helburua izanik parte-hartzaile guztiak mahai guztietatik pasatzea eztabaidatzera ondoko gaiari begira hobekuntza proposamenak lantzeko:

- LGBTBI+ fobia eta kolektiboaren aurkako indarkeria.
- Aniztasun ikuspegia hezkuntzan sustatzeko baliabide eta neurriak.
- LGBTBI+ gazte kolektiboa eta elkartegintzaren erronkak.

4 politikari, 7 teknikari (gonbidatutako bi hizlari hauen artean) eta 4 gazte elkartu ziren Hiruburu honetan gaiari buruzko eztabaida aurrera eramateko. Hala ere, kontuan izan

beharra dago bai politikari nahiz gazteen aldetik azken momentuko hutsegiteak egon zirela.

Edonola izanik ere, azkenean bi ordu eta erdiko iraupena izan zuen Hiruburu honetatik (atzerapenak bukatzeko orduan eragin baitzuten) Gasteizko Udaleko testuinguru konkretura egokituak zeuden eta beste testuinguru batzuetara moldagarriak diren helburu eta ondorio mamitsuak lortu ziren. Hauek guztiak bai EGK-ko elkarrekin, egunean parte-hartu zuten eragile guztiekin eta Gaur8 lantaldeari helarazi zitzaizkien posta elektroniko bitartez. Ohikoa den bezala, ondorioak EGKren webgunean eskuragarri daude baita ere (<http://bit.ly/2gMpqR8>).

Ebaluazioa

Jarraian, lehenik, Hiruburu ereduko proiektuak hobetzeko proposamenak bilduko dira jarraian:

- **Parte-hartzea gehiago sustatzea:** Gasteizkoak diren gazteen artean parte-hartzea sustatzeko formula gehiago bilatzea. Izan ere, beste administrazio batzuekin erabiltzen diren baliabide guztiak aprobeztatu izan dira baina ez da eraginkortasun berdina lortu.
- **Ereduaren eraldaketari buruzko gogoeta:** gonbidatutako hainbat gaztek adierazten zituzten gaia lantzeko zailtasunak zituztela. Zentzu honetan, argi dago gaiaren ezagutza mailaren pertzepzioak zerikusia izan dezakeela azkenean parte hartzera animatzearekin. Horregatik, aurkezpen, testuinguruaren azalpena eta gaiaren lanketa gehiago susta dezakeen Hiruburu eredu bati buruzko gogoeta beharrezkotzat jotzen da, etorkizuneko deialdiek arrakasta gehiago izan dezaten.
- **Jarraitutasuna bermatzea:** kontuan izanda Hiruburuetatik hobekuntzarako proposamenak testuingurura egokituak egon izan ohi direla, garrantzizkoa da epe ertainera Hiruburuetan jasotako ondorioen berrikuspena egitea. Hau dela eta, hurrengo bi urteei begira hartzen den erronka da hau.

Bestalde, nahiz eta jada aipatua izan den Hiruburu honen ondorioen dokumentua argitaratua dagoela EGKren webgunean, jarraian jardunaldiaren ebaluazio osoagoa egitea baimenduko diguten ondorio orokor batzuk aurkezten dira:

- Indarkeria LGBTI+fobiko kasuek inoiz baino ikusgaitasun gehiago izan dute 2017an Gasteizen, artean gazteen aurkako erasoak egonik. Hauei erantzun egokia ematen dela

ziurtatzeko ahalik eta neurri gehien hartzea gomendatzen da, horretarako udaltzaingoaren formakuntza izanik gakoetako bat.

- Ildo berdinean, gertatzen diren kasuen jarraipen eta ikerketa prozeduratan hobetzea gomendatzen da. Erasoak burutzeko prozeduren arteko antzekotasunak daudenean, kasu desberdinen arteko lotura era egokian aztertzeke, bereziki.
- Erasoak jasan dituzten gazteei udaleko langile guztiek arreta egokia eskaintzea baimenduko duten protokolo eta formakuntzak sustatzea.
- Egun dagoen Aniztasuna sustatzeko heziketa indartzea, bereziki ondorengo esparruetan:
 - Esku-hartze sakon eta luzeagoak sustatzea.
 - Ikastetxe bati lotutako eragile guztiak inplikatzeko: ikasleria, irakasleria eta familiek bat egitea eta guztiek formakuntza jasotzea.
- Gazteekin bat egiten duten parte-hartze eredu berriak ikertu eta sustatzea. Era honetara, elkartegintza eta parte-hartze ohiko ereduak indartu ahal izango dira egun dauden komunikazio eta parte-hartzeko baliabide berriekin.

Ikusten den bezala, Hiruburutik lortutako ondorioak orokorrean oso konkretuak dira. Neurri eta ekimen konkretuak aipatzen dituzte. Ordea, LGTBI+ gazte kolektiboaren elkartegintzaz hitz egiterakoan askoz ere lausoagoa den proposamena lortzen da. Esan genezake oraindik ere diagnosi bat behar duen atala dela eta, ondorioz, etorkizunari begira ildo honetan aurrerapausoak eman beharko direla. Adibidez, Gasteizko Udalak 2017an egindako LGTBI+ kolektiboaren diagnosiak kolektiboko gazteez azaleratzen dituen errealitateengan fokua ezarri.

5.10. EGUNEROKO LANA

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, hala nola, ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, Berdintasun lan-arloaren kasuan, bere zeharkakotasuna dela eta, esfortzu hau handiagoa izan daiteke, bereziki I Planaren barne neurriak ezartzen joan heinean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste lan arloetako Berdintasun ikuspegiko ekarpenak egin.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.
- Hedabideetan agertu hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte-hartu.

Garapena

Urte honetan zehar hainbat izan dira egunerokotasunean agertutako erronka berriak Berdintasun lan-arloari dagokionean. Jarraian, elkarlanerako eta lehenagotik aurreikusiak ez zeuden ekintza desberdinak aipatuko dira:

- **Urtxintxa eskolarentzat EGKri buruzko aurkezpena:**

Otsailaren 11an eta Urtxintxa eskolaren eskaera bati jarraiki, Aisialdi Zuzendari ikastaroko ikasleriarekin EGKren aurkezpen tailerra burutu zen (<http://bit.ly/2tj9oVP>). Honen bitartez, EGKren funtzionamendu, antolaketa eta lan-arloen nahiz gazteen lantaldeen berri ematen da. Tailerrerako ikasleriaren parte-hartzea bultzatuko duen dinamika bat diseinatzen da, zeinetan gazteen ardurarik eta arazorik nagusienak zeintzuk diren identifikatzea planteatzen zaien.

Beste hainbat gaien artean, Berdintasunari dagozkion gai desberdinak ere aipatzen dira: lan-munduan oraindik ere dauden desberdintasunak, kontzilio zailtasunak, indarkeria eta beste bazterketa egoera batzuk...

Esperientzia positibotzat jotzen da bai Urtxintxa Eskola bai EGKren aldetik eta etorkizunean antzeko dinamikak egiten jarraitzearen aukera baloratzen da ere.

- **UBA zentroko gazteei lan-munduari buruzko saioa:**



Martxoaren 29an UBA zentroko adingabeko gazteei lan-munduari buruzko informazio saioa ematen zaie. Honetan, 2016ko azarorako aurreikusia zegoen 'Gazteok eta lan mundua' (<http://bit.ly/2dYJHRV>) jardunaldien eskema moldatuz lan-mundua eta generoa faktoreak gazterian biltzen direnean ematen den egoeraren berri ematen zaie.

Azalpenaren ostean, barneratutako kontzeptuen birpasa egiteko jokoak burutzen da, honetan lan-munduaren inguruan eta, bereziki, genero ikuspegitik lagungarriak diren gaietan, argibideak izatea baimenduko dizkieten galderak txertatuz.

- **Tirrintzi Txagorritxuko talde feministari aholkularitza:**

Jarraian Tirrintzi talde feministarekin eman den aholkularitza prozeduraren data esanguratsuak eta lortutako pausoak zeintzuk izan diren azalduko da:

- Martxoaren 15a: Tirrintzi talde feminista Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin harremanetan jartzen da. EGK-k egiten dituen Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloen berri izan dute, aurrekoetan beraiekin ere harremanetan ezarri beharra izan zuelako Kontseiluak berak eta beraien Indarkeria Matxistaren protokoloa sortzeko nahia adierazten dute. Lehen bilera data ezartzen da.
- Martxoaren 17a: Tirrintzi talde feministaren bi kiderekin bilera burutzen da. Honetan, EGKren Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa oinarri, Tirrintzi taldearen protokoloaren diseinurako oinarriak eta honen beharrak definitzen dira. Era berean, Tirrintzi taldeak dituen auzoan ezagutzera emateko zailtasunen gainean eta burutzen dituzten ekintzen gainean aholkularitza egiten da.
- Momentu honetatik aurrera, nahiz eta aurrez-aurreko bilerak egiteko nahia badagoen bi aldeetatik, astean zehar Tirrintzi taldeak dituen biltzeko zailtasunak eragiten du harreman guztia posta elektronikoaren bitartez izatea. Horrela, hilabete gehiagoz posta elektronikoaren elkar-trukaketa ematen da. Honen bitartez, Tirrintzi talde feministak egindako Indarkeria Matxistaren aurkako

protokoloaren gaineko ekarpenak egiten dira.

- Azkenik, Tirrintzi taldeak maiatzaren 19tik eta 21era emakume elkarte eta taldeen arteko topaketa batean parte hartzen du. Honetan, beraien protokoloa beste inguruko hainbat talderekin partekatu eta honen diseinurako azken erronkak definitzen dituzte.

Hartu-eman honen hasieratik Tirrintzi talde feminista gonbidatu da EGKren bestelako proiektuetan parte hartzera, Gaur8 lantaldea barne. Ordea, partaideen ordutegiak eta bestelako zailtasunak direla eta parte hartzea ez da aurrera burutu. Protokoloaren azken zirriborroa edo paperezkoa oraindik ere bukatzeke dagoen ala ez konfirmatzea falta da urteko momentu honetan eta, uztaillean, Berdintasun lan-arloaren proiektu berrien agerpena aprobetxatuz, harremana berriro ere sendotzeko saiakera egingo da.

- **Erandioko talde feministarekin harremana:**

Otsailean Erandioko talde feministako kideetako batekin harremanetarako aukera agertzen da Berdintasun Teknikariak Euskal Gazte Behatokian jasotako formakuntza batean. Honen bitartez adierazten zaio Erandioko talde feministak izandako zailtasun desberdinak 2017ari begira Emakundek irekitako diru-laguntzen eskaerarako.

Behin Emakunderekin kontrastea eginda, maiatzaren 11an Erandioko talde feministari diru-laguntza eskaeren zailtasunei buruzko galdeketa helarazten zaie.

Lehen harreman hau aprobetxatuz, EGKren beste ekintzen berri emateko eta harremana epe ertain eta luzerakoa izateko esfortzua burutzen da.

Ekainean oraindik ez dira jaso Erandioko Talde Feministaren ekarpenak. Hala ere, azpimarratu beharra dago taldearen gehiengoa biltzeko hurrengo bileraren zain egon beharko liratekeela galderei erantzuteko.

- **Bilbao Pride-era atxikimendu eskaera:**

Otsailaren 15ean Bilbao Pride-aren talde koordinatzailea EGKrekin harremanetan ezartzen da proiekturako EGKri atxikimendu proposamena luzatuz. EGKren ohiko dinamikari jarraiki, gaia Berdintasun lan-arloko Gaur8 lantaldeak lantzen du eta posta elektroniko bitarteko ekarpenak jasotzen dira. Gaur8 lantaldearen parte-hartzearen ondorioz erabakitzen da atxikimendua ez burutzea eta Bilbao Pride-aren antolatzaileei hainbat ekarpen egiten zaizkie Gaur8 lantaldean parte-hartzen duten elkarten proposamenak txertatuz.

- **GazteTalk Bilbao Europa:**

Maiatzaren 17 eta 18an Berdintasun eta Parte-hartze teknikariak bertaratu dira Bilboko Udalak antolatutako GazteTalk Bilbao Europa jardunaldietara.

Kasu honetan, gaueko aisialdia eta honek suertatzen dituen bizikidetzaz zailtasunak dira lantzen diren gaiak. Era honetara, Berdintasun ikuspegi batetik ere ekarpenak egiten dira, kontuan izanik gaueko aisialdiak segurtasun ikuspegitik sorrarazten dituen zailtasunak.

Espazioen diseinuan segurtasun eta genero ikuspegia txertatu ahal izatea eta gaueko aisiak bizikidetzan eta Berdintasunean oztupo ez izateko estrategiak pentsatzea, hala, kontsumoan oinarritzen ez diren gaueko ordezkari aisialdi bultzatzen diren proposamen nagusiak.



- **Ayala Maqueda eta doktoregoaren proposamena:**

Otsailaren 21ean mezu elektroniko bitartez Deustuko Etika Aplikatu Zentruko Ayala Maqueda ikerlaria ezartzen da harremanetan EGKrekin eta hilabete berdineko 27rako bilera bat ezartzen da. Honetan, Ayala Maquedak EGKren Berdintasun lan-arloaren eragite gaitasunari buruzko Doktorego Tesia egiteko proposamena luzatzen du. Bide batez, EGKren Berdintasun lan-arloaren sorrera eta garapen ildoak azaltzen da. Honen ostean, Batzorde Iraunkorrera pasa eskaera eta Batzorde Iraunkorrak onartzen du.

Urte amaiera den honetan, Ayala Maqueda oraindik ere bere tesi proposamenaren erantzuna jasotze bidean ikerketa lanetan ari da. Hortaz, 2018an jarraitutasuna emango zaio lan-ildo honi.

- **LGTBIQ+ Euskal Legea bidean mintegia:**

EGK maiatzaren 27an burutuko den 'LGTBIQ+ Euskal legearen bidera' izeneko mintegira bertaraten da. Hau, EH Bilduk antolatutakoa izanda ere, hasieratik adierazten da LGTBI+ legerako bidearen lidergoak kolektiboarekiko aldeketasuna lantzen duten taldeek bultzatu beharko luketen zerbait dela.

Gauzak horrela eta Kataluniako Eugeni Rodriguezen esperientziaren azalpena izan ostean, parte-hartzaileak bi lantaldeetan banatu eta gaiari dagozkion erronka konkrituak identifikatzen dituzte.

Lehen mintegi honetatik argi gelditzen da LGTBI+ kolektiboaren egoeraren hobekuntzarako neurrien beharra badagoela eta neurri hauen forma prozesu parte-hartzaile batez definitu beharko dela.

Azkenik, LGTBI+ Euskal Legea biderako 2. mintegia 2018ko otsailaren 3arte atzeratua izan da. Gainera, bidean estatu mailan ere aldaketa desberdinak egon dira, adibidez, martxoak 15eko 3/2007 Legearen eraldaketa. Ondorioz, ezinbestean LGTBI+ legearen gogoeta norabidea berriro ere definitu beharko da.

- **Urtean zehar Berdintasun lan-arloak egindako kontrasteak:**

2016an Berdintasun lan-arloaren barne-indartze prozesua bereziki garrantzitsua izan zen. 2017an egindako lanaren ondorioetako eta lan-arloak izandako ikusgarritasunaren efektuetako bat izan da honek administrazio nahiz elkarte desberdinekin izandako harremana. Hauetan bereziki garrantzitsua izan da bai aholkularitza bitartez nahiz jardunaldi edo antzeko dinamiketan parte-hartuz Berdintasun lan-arloak izandako kontraste agente papera.

- **EGKren barne koordinazioa:**

Lantalde teknikoari begira dagokion oinarritzko koordinazioaz gain Berdintasun lan-arloaren koordinazio arlo konkritu bat azpimarratu beharra dago, komunikazio ez-sexista eta Berdintasun arloko formakuntzari dagokiona. Kontuan izan behar da 2017an hiru lankide berri hasi direla lanean EGKn. Parte-hartze teknikariak hainbat hilabete pasa ostean lanez aldatu eta beste teknikari bat martxan jartzen da. Honeka, Parte-hartze eta Bakea eta Bizikidetza lan-arloetan Berdintasun ikuspegiaren gutxieneko formakuntza eta, bereziki, hizkuntza ez-sexistaren gomendioak ematen dira teknikari berriei.

Ebaluazioa

Alde batera utzita ezinbesteko barne.-koordinazio lana, 2016an zehar EGK-k burututako lana nolabaiteko oihartzuna izan duela eta jendeak Berdintasun lan-arloaren berri izan duela, hala nola, garrantzizkotzat eta baliozkotzat jotzen duela honetatik lortzen diren ekarpenak.

2018ari begira erronka nagusia izango da bi urte hauetako ondorio nagusiak jarraibide izanik administrazioekin harremanetan jarraitzea eta hauek egindako proposamenak txertatzeko dituzten erraztasun eta zailtasunen jarraipena egitea. Honekin batera, oraindik ere landu ez diren gai konketu desberdinak jorratuko dira bai Berdintasun lan-arlotik nahiz beste batzuetatik antzeman diren gazteen beharrei erantzunez.

6. KOMUNIKAZIOA

6.1. RECACCIONA 'BERDINTASUN EZARI... #GUKEZETZ!'



RECacciona bideo lehiaketa bosgarren aldiz antolatu da 2017an. Aurreko ekitaldi ia gehienetan bezala, bi lan-arloren elkarlana baliatu dugu proiektua sustatzeko. 2016an garatutako hainbat proiektuk –Emakume gazteak eta enplegua Hiruburua eta honen emaitza izan zen Ibilbide Moreak txostena; Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa eta Berdintasuna...Zertarako? Jardunaldiak, besteak beste– azaleratu zuten egoerari buruz gazteen iritzia jasotzea zen helburua nagusia, Berdintasun errearen gaineko hausnarketa sustatu ostean egoerari erantzuna emateko eta hobetzeko proposamenak batzea, gero hauek EGKren diskurtsoan gehitu eta administrazio eta arduradun politikoei helarazteko.

Lehiaketaren gaia 'Berdintasun ezari... #GukEzetx' izan da eta gazteei ondorengo galderei buruz pentsatzera gonbidatu zaie:

- Zure ikuspuntutik, Berdintasuna zeharkako balore txertatzeko, egokia al da gaur egun dugun hezkuntza sistema?
- Zein da gaur egungo gazteen egoera? Berdintasuna nabari ahal duzu zure eguneroko bizitzan?
- Emakume gazte bezala, zein arazori egin behar diogu aurre Berdintasun ikuspegia kontuan izanda? Eta gizon gazte bezala?
- Lan munduaren diseinuan, eraikuntzan eta kudeaketan genero ikuspegia txertatzearen beharra argia iruditzen zaizu? Ala egun txertatua dagoela esango zenuke?

- Kultura eta politika munduan dagokionean, emakumeok tratatu eta ikusgaitasun berdina al dugu? Adibidez, kirol munduan, zein desberdintasun nabaritzen dira oraindik?
- Berdintasunaren ikuspegitik, nola aldatu da gazteon egoera 30 urte hauetan? Hobeto gaude, berdina ala okerrago?
- LGTBI+ kolektiboaren egoerak bereizketa egoera izaten al dirau? Nola lotzen duzu hau emakume eta gizonen arteko Berdintasunaren lan-ildoarekin?
- Zeintzuk dira lehen ematen ziren erronkak eta gaur egun sortzen direnak?
- ... eta honen inguruan bururatzen zaizkizun bestelako ideiak.

Parte hartzaileei dagokionez, iaz egin bezala 16 urtetik aurrerako EAEko gazteei (bertan jaiotakoak edo bertan bizi direnak) eman zaie aukera lanak aurkezteko. Gainerako oinarriak aurreko urteen antzekoak izan dira: bi pertsona edo gehiagok osatutako taldeetan antolatu behar ziren gazteak, bideoek gehienez lau minutuko iraupena izan behar zuten, eta euskarak presentzia izan behar zuen lan guztietan.

Sariak hauexek izan dira:

- **Lehenengo saria: 1.000 euro**, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko*.
- **Bigarren saria: 400 euro**, hezkuntza mailan dituzun ideia eta planak aurrera eramateko, ala zure parte-hartze proiektuetan gastatzeko*.
- **Ikusleentzat saria: 50 euro** bidezko merkataritzako saltoki batean gastatzeko.

***Zertan erabili zitezkeen lehenengo eta bigarren sariak?**

- Berdintasunarekin **lotura duen** formazioa edo ikastaro bat egiteko.
- Berdintasun mailan dituzun **ideia eta planak** aurrera eramatek..
- Berdintasun zerikusia duen **proiekturen bat gauzatzeko** (bideo bat grabatu, argazki-erakusketa bat egin, koreografia bat muntatu, argitalpen bat editatu, jardunaldi batzuk antolatu...).

- Elkarre edo gizarte mugimendu batean **ekintzak** antolatzeke.
- Elkarre bati, gizarte proiektu bati edo Gobernu Kanpoko Erakunderen bati dirua **emateko** edo kolektibo batentzat **materiala** erosteko.

www.egk.eus atarian irakur daitezkeen oinarrietan jaso ziren bestelako zehaztapenak

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteok gaur egun dugun egoerari buruzko eztabaida sustatzeko abiatu du lehiaketa hau Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), bereziki euskal gazteek Berdintasun errealarari buruz dituzten ideia eta ikuspuntu ezberdinak jaso eta zabaltzeko ere. Era berean, konkretuki EGK-ko Berdintasun lan-arloak jorratzen dituen gaiekin bizi dituzten egoerak, arazoak eta kezak ikusarazteko aukera eman nahi genien. RECaccionak, izan ere, identifikatutako arazoei aurre egiteko proposamenak gizarteratzeko baliabidea izan nahi du.


HELBURU ZEHATZAK:

- Hainbat gazte eta gazte-elkartek dituzten egoerak ezagutu eta ikuspuntuak eta proposamenak jaso.
- Administrazioen Berdintasun Errealaren lortze bidean ezartzen dituzten politikei buruzko hausnarketa eta eztabaida eragin, gazteon ikuspuntutik, ekarpenak jaso eta Administrazioei helarazi.
- EGK-k egiten duen lana ezagutarazi.
- EGKren Berdintasunarekiko konpromisoa berresten jarraitzeko tresna hau erabiltzen jarraitu.

Garapena

- Lehiaketako oinarriak zehaztu: Berdintasun eta komunikazio lan-arloetako teknikariak lehiaketako oinarriak zehaztu zituzten lehenik, ondoren lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorarekin kontrastatzeko.

- **Izen emateak eta bideoen bidalketa:** Ekainaren 2a arte eta 5a, hurrenez hurren. Oinarrei egindako ekarpenak txertatu ostean, 2017ko maiatzaren 14an webgunean zabaldu zen lehiaketaren albiste [hemen](#) ikus daitekeen bezala. Horretaz gain, aurreko urteetan parte hartu zuten gazteei eta EGK osatzen duten elkarteei emaila bidali zitzairen. Azkenik, sare sozialetan ([Facebook](#), Twitter eta Instagram) eta Piztu! buletin digitalaren bidez zabaldu zen mezua.
- **Epea luzatu:** Lehen zabalpenaren ostean parte-hartzea ez zenez nahi zen bezain altua, parte-hartzaile batzuek izandako arazoan ostean eta jasotako bideo batzuek oinarriak betetzeko bigarren aukera eman ahal izateko, bideoak bidaltzeko epea luzatu zen 2017ko ekainaren 2an. Aurreko prozedura berdina jarraitu zen: [albiste webgunean](#), aurreko urteetako parte-hartzaile eta EGK-ko elkarteei emaila eta zabalpena sare sozialetan ([Facebook](#), Twitter eta Instagram) eta Piztu! buletin digitalaren bidez.
- **Bozketa eta epaimahaia:** oinarrietan zehaztua zegoen bezala, ekainaren 21a arte zen tarte lehen saria aukeratzeko. Epaimahaiak bideo guztiak ikusi ostean, Gu feministak, zu zergatik ez? bideoa hautatu zuen. Jarraian, bigarren saritua aukeratzeko Facebook-ek eskaintzen duen aplikazioa aktibatu genuen. Egindako publikazioa [hemen](#) ikus daiteke eta aplikazioa eta [honen emaitzak hemen](#). Bigarren saria publikoak erabaki zuen eta Ahotsaldunduz hautatu zuen:



- **Jakinarazpena:** Emaitzak jakin bezain pronto, sarituei telefonoz jakinarazi zitzairen eta ondoren parte-hartzaile guztiei emailaz. Azkenik, [webgunean](#) eta sare sozialetan ([Facebook](#), Twitter eta Instagram) zabaldu zen.

- **Sari banaketa:** Berdintasun lan-arloko XX puntuan azaldu den bezala, RECacciona bideo lehiaketaren sari-banaketa 'Indarkeria Matxistari #GukEzetz!' kanpainaren aurkezpen-ekitaldiarekin batu genuen. 2017ko ekainaren 29an Bilboko Azkuna Zentroan ospatu genuen #GukEzetz jardunaldia. Bertan izan ziren parte-hartzaileak zein jardunaldian interesa erakutsi zuten hainbat gazte. Unean uneko jarraipena egiteaz gain [Twitter-eko kontuan](#), ekainaren 30ean [webgunean laburpen albistea](#) zabaldu genuen.



Ebaluazioa

- **Jasotako bideo-kopurua:** Hasiera batean izen-ematean gorakada nabarmena eman bazen ere (10 pertsona), azken orduan parte-hartzaile batzuk atzera bota ziren eta sei bideo besterik ez genituen jaso. Horietako batek, gainera, ez zituen irizpideak betetzen. Epea luzatu izana ideia ona izan zen, azken orduan bideo gehiago jaso genituelako eta beste batzuek irizpideak %100ean betetzeko aukera izan zutelako orokorrean.

- **Jasotako bideoen mezuen edukia:** Jasotako bideo guztiek erantzun diote planteatutako galdera bat edo gehiagori. Alde horretatik, nabari da planteatutako gaia gertukoa egin zaiela eta bazekitela zer islatu nahi zuten.
- **Jasotako bideoen kalitatea:** Orokorrean, kalitatea altua izan da. Eta ez soilik alor teknologikotik. Gidoia, planteatzeko modua, edizioa, narrazioa... Irizpide ugaritan parte hartu duten gazteek euren ahalmena argi eta garbi erakutsi dute.
- **Bideoen ikustaldi kopurua:** Guztira jasotako bideoak eta irizpideak bete dituztenak bost izan dira: [Gu feministak, zu zergatik ez?](#) (856), [Ahotsaldunduz](#) (136), She Referees (bideoa YouTubetik kendu dute), [La historias de las dos cajas](#) (51) eta [El Tretas](#) (60). Bakoitzak izandako ikustaldiak batuz eta She Referees-enak jakin ahal izan gabe, 1103 ikustaldi izan dituzte bideoek YouTuben.
- **Sare sozialetan eragindako mugimendua:** Aurreko urteetan bezala, sare sozialek argitalpenak sustatzeko eskaintzen duten aukera erabili da, zehazki [Facebook-en](#). Ikustaldi eta erreakzioak (atsegin sakatu edo elkarbanatzeak) argi utzi du gaia interesekoa dela. Are gehiago, gazteek elkarri gomendatu izan diote lehiaketa argitalpenean bertan. Eta sarituak jakinarazi ostean ere oihartzuna izaten jarraitu du, [bereziki She Referees bideoak](#), udan zehar erreportaiak atera zirelako hedabideetan. Ordea, interes hori parte-hartzera eramatean ez da asmatu.
- **Komunikabideetan agerpenak:** Orokorrean ez du oihartzun handia izan. Lehiaketa zabaldu zenean bidali zen prentsa-oharra eta saiakerak egin ziren elkarriketa edo erreportajeak lortzeko. Sari-banaketak Irutxuloko Hitzan (Donostiako hedabidea) oihartzuna izan zuen, irabazlea bertakoa zelako. Hurrengo urteei begira bestelako formulak bilatu beharko dira oihartzun gehiago lortzeko. Bost urteren ostean hedabideek ez diote arreta handirik erakutsi lehiaketari.
- **Jasotako iradokizun eta proposamenak:** Berdintasun eza oraindik ere errealitate bat da gazterian, baita aurreko belaunaldiak landutako arloetan ere (lan-mundua kasu). Hala ere, ildo honetan baino, parte hartu duten gazteek beste gai batzuk landu nahi izan dituzte. Estereotipoak, egunerokotasuneko mikromatxismoak, Berdintasun ezik gabeko esparru berriak (aisia, adibidez) izan dira, beste batzuen artean, azpimarratutakoak. Hona hemen bideoetatik ondorioztatutako kezka eta proposamenak:
 - **Hezkuntza aldatu beharra:** hezkidetzak oraindik ez da sakontasunez txertatu gure heziketan ezta gizarteratzean ere. Estereotipoek pisu handia izaten jarraitzen dute eta honek gazteon garapen askea oztopatzen du; emakume eta gizon gazteongandik oraindik jarrera eta portaera konketuak espero dira.

- **Mikromatxismoak erronka:** egunerokotasunean eta era sotilean gazterian bizi diren bereizketa egoerengan arreta ezartzea eskatzen da. Hauen aurka lan egitea ezinbestekoa da, egoera larriagoen sustrai eta sostengu baitira. Adibide konkretu gisa ‘mansplaining’a agertu da; hau da, talde txiki nahiz handietan emakumeen ekarpenak publikoki mespretxatzeko eta oztopatzeko joera. Bereizketa mota sotala badirudi ere, emakumeen lidergorako oztopoa da.
- **Feminismoa Berdintasunerako tresna bezala:** aurreko puntuetan aipatutako nahiz beste gai batzuen harira oraindik ere bizi den Berdintasun eza bereizketa gisa ulertzeko feminismoaren beharraz hitz egiten da. Horrela, aisian eta denbora pertsonalaren erabilerari dagokionez ematen den Berdintasun eza azpimarratu da arakatzeko beste eremu bat bezala.
- **Berdintasunarekiko erronkak kirol munduan:** konkretuki arbitratzearen munduan oraindik ere bizi den Berdintasun eza landu da. Izan ere, 20 urtean aldaketak eman badira ere, arbitratzeaz beraien lanbidea egin nahi duten emakumeek adierazten dute beharrezkoa dela Berdintasunaren alde administrazio, klub eta federazioek lan aktiboago bat egitea.
- **Bi lan-arloen elkarlana:** Beste behin ere, gaia konkretuagoa egitea ideia ona dela argi geratu da. EGK-ko bi lan-arlo batzeak lehiaketari garrantzia gehiago ematen laguntzen du: ordu gehiago dedikatu ahal izatea, elkarlanean oinarri zein bestelakoak pentsatzea, etab.

6.2. PIZTU! HAMABOSTEROKO BULETIN DIGITALA



Piztu! Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2-3 astero bidaltzen duen buletin digitala da. Jaso ahal izateko harpidetu egin behar da eta puntu hau oso garrantzitsua da, hartzaileen interesak mezua helarazterakoan asmatzea errazten duelako.

2016an irudi korporatiboa berritu zen eta 2017an Piztu! buletin digitala. Eraldaketaren ostean, 20 buletin bidali dira. Aldaketak hainbat onura ekarri ditu: batetik, itxura aldatuta erakargarriagoa eta erabilgarriagoa egin da; bestetik, EGK-ko elkarteei garrantzia emateko, espazio propio bat eskaini ahal izan zaie; hirugarrenik, diseinu berriari esker buletina ordenagailu, tableta zein mugikorrean ongi ikus daiteke; eta, azkenik, hartzaile kopuruan gorakada nabarmena izan da.

2016 urte amaieran 2137 hartzaile zituen Piztu!-k. Berriztapena egiterakoan, hainbat korreo zaharkituta zeudela ikusi zen. Garbiketa egin ostean eta urte osoan zehar egindako ekimen edo proiektuetan harpidetzeko aukera sustatu ondoren, egun Piztu!-k 2400 harpidetu ditu, iaz baino 260 gehiago.

Bi-hiru astean behin jasotzen dute hartzaileek, honako edukiekin:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jardueren berri.
- Bestelako gazte eragileen jardueren berri.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak agenda atalean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK), gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikusaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k zein osatzen duten elkarteek egiten duten lana jakinaraztea.
- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Euskadiko administrazioek gazteei bideratutako proiektu eta egitasmoak gazteei helaraztea

hautentzako interesekoak badira.

- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Euskara sustatzea (%60-%70 euskaraz).

Garapena

Bi-hiru astean behin osatu eta bidaltzen da Piztu! buletin digitala, normalean asteazken edo ostegunetan lehen orduan. Etenaldiak egon dira opor garaietan albisteak gutxitu direlako eta hartzaileek ere atsedena hartzen dutelako, baina epe hauetan beti aurreikuspenarekin jokatu da eta egun libreak hartu baino lehen azken bidalketa bat programatu da.

Ebaluazioa

2016an egindako aldaketen ostean (diseinu erakargarriagoa, ordenagailu zein mugikorretan ikusteko modukoa, erabilgarriagoa), 2017a indartze urtea izan da. Lehenik, harpidetuen artean *garbiketa* egin delako; bigarrenik, edukien aldetik aldaketa eman delako; eta, azkenik, bidalketak modu erregular eta finkoan eman direlako –kasu oso puntualak izan ezean, guztiak asteazkenean bidali dira 8:30 eta 9:00ak artean–.

2016an inpaktuetan eman zen beherakadari itzulia eman zaio eta ohiko zenbakietan dago Piztu! buletin digitala. Bidali diren 20 aleak %30eko irekiera baino gehiago izan dute (hau da, harpidetuetatik herenak irekitzen du). Arraroa badirudi ere, ohiko zenbakiak dira. Jarraipena egiteko GetResponse aplikazioa erabili da, Piztu! buletinaren bidalketa egiteko erabiltzen den berdina. Puntualki, emaitzak oso onak izan dira. Esaterako, 2017an bidalitako lehena %50ak ireki zuen.

2018an asmoa bide beretik jarraitzea da, EGK-k egindako izen-emate orrialde guztietan Piztu!-n harpidetzeko aukera emanez, antolatutako ekitaldietan izen-emateko orrialdea eskainiz eta argitalpena sare sozialetan ere zabalduz. Era berean, EGK-ko elkartei pisu gehiago eman nahi zaie, baita gazteentzako egindako ekitaldi eta proiektuei ere.

63. www.egk.eus WEBGUNEA



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko kanal nagusia webgunea da (www.egk.eus). 2016an aldaketa garrantzitsua eman ostean –domeinua .eus-era aldatu eta diseinu eraberritzea– 2017an prozesua osatzen jarraitu da.

EGKren eguneroko albisten berri emateaz gain, 2010etik 2016rako albisteak berrikusi dira topatutako hainbat akats konpontzeko: batetik, optimizazioa, webgunea bilatzaileetako emaitzetan lehen orrialdean eta ahalik eta azkarren azal dadin; bestetik, esteka hautsiak konpondu dira, erabiltzaileari eskainitako informazioa egon behar den bezala egon dadin; eta, azkenik, EGK-k bere ibilbidean egindako txostenak horretarako aurreikusi zen atalean eskegi dira.

1986tik hona egindako lana handia izan denez, baliteke txostenen bat pasa izana. 2018rako asmoa prozesua amaitzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Aipatutako atarian EGKren jardueraren informazio gaurkotua argitaratzen da: antolatutako egitasmo eta proiektuen deialdiak, ekintza hauetan lortutako ondorio eta proposamenak, lan-arloen azken berriak, lan-arloetako lantaldeen deialdiak eta antolatutako bildura edo topaketen ondorio bezala sortzen diren txostenak. Era berean, lan-deialdiak ere zabaltzen dira.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko albisteen berri ematea (jarduerak, argitalpenak, manifestuak, iritzi-artikuluak...).
- EGK-ko elkarten eta EGK-koak ez diren elkarten jardueren berri ematea agenda atalean.
- Euskadiko gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak jasotzea (Agenda atalean).
- EGK osatzen duten elkarten direktorio gaurkotua eskaintzea.

Garapena

Helburu hauek bete ahal izateko, hau da egunerokotasunean egiten den lana:

- Webgunea (www.egk.eus) edukiz hornitzea: EGK-k antolatutako edo bat egiten duen ekintzen berri eman eta EGK-k nahiz bestelako eragileek antolatutako ekintzen berri agenda bidez eman.
- Webgunearen mantentze egokia bermatzea: gazteek egindako iruzkinak erantzun eta bideratu, kontaktu formulario bidez heldutako eskaerak kudeatu, spam iruzkinen ezabaketa, etab.

Ebaluazioa

Webguneako neurketak Google Analytics erremintaren bidez egin dira. 2015ean hartutako erabakien ostean 2016an hainbat aldaketa egin ziren eta, urte arraroa izan zenez, ebaluazioa egitea zaila izan zen. 2017an behin dena egonkortuta eta urte osoa arazorik gabe lan egin ostean, datu objektiboagoak ateratzea errazagoa da. Orokorrean, erabiltzaile kopuruak gora egin du eta www.egk.org webgunea duela urte batzuk ematen zituen zenbaki berdinetan dago www.egk.eus.

2016	Saioak	Erabiltzaileak	Bisitatuak orriak
Urtarrila	2172	1523	5167
Otsaila	1720	1141	4201

Martxoa	2183	1597	5256
Apirila	1877	1398	4157
Maiatza	2560	1872	5300
Ekaina	2076	1467	4000
Uztaila	1401	1130	2770
Abuztua	1007	824	1660
Iraila	3728	2806	7314
Urria	3781	2801	7633
Azaroa	3402	2621	6875
Abendua (11 arte)	800	621	1799
Guztira	26647	19801	56132

Taulan ikusi den bezala, webguneko erabiltzaile kopurua nahiko konstantea da. Oporraldian nabarmenki egin du behera EGK-k ere albiste kopurua gutxitzen duelako eta erabiltzailearen egunerokoa aldatzen delako. Kurtso berriarekin zenbakiek urteko emaitza onenak lortu dituzte, urte amaierako proiektuei esker hein handi batean.

Hemen webguneko beste datu interesgarri batzuk:


ADINA:

Aurreko urteetan bezala, erabiltzaileen gehiengoa gaztea da. 2016an ia %52a 18-34 urte bitartekoa bazen, 2017an proportzioak oso antzekoak dira. Beheko grafikoen ikusten den bezala, erabiltzaileen %39 25-34 adin tartekoa da eta %13,52 18-24 tartekoa. Azken urteetan ikusi den bezala, datu hau egonkortu da.

Métricas clave Sesiones


Edad

61,53 % del total de sesiones



GENEROA:

Google Analytics erremintak ez du ahalbidetzen hirugarren generoa aukera bezala ateratzea estatistiketan, horregatik daude soilik gizonezko ala emakume aukerak. 2016ko datuekin alderatuta, datu honetan ere apenas egon da aldaketarik. Aurreko urteetan bezala, erabiltzaileen gehiengoa emakumea da: 2016an proportzioa 66,4-33,6 bazen, 2017an 67,2-32,8 da.



BISITEN JATORRI DEMOGRAFIKOA Kopuruaren arabera ordenan, lehenengo hamarrek honakoak dira:

1. Bilbo
2. Donostia
3. Gasteiz
4. Madrid
5. Barcelona
6. Leioa
7. Ezarri gabea
8. Valencia
9. Eibar
10. Las Arenas

6.4. DISEINATZAILE GAZTEEN LAN-POLTSA BERRITU



Diseinatzaile gazteen lan-poltsa
Bolsa de trabajo de personas
jóvenes diseñadoras

2016an bezala Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren egunerokoan sortzen diren behar guztiei erantzuteko denbora faltagatik, diseinatzaile gazteen lan poltsa berritu da sortutako lanak banatzeko: kartelak, triptikoak, txostenen maketazioa, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k 2017an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea. Era berean, diseinatzaile gazteei aukerak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinua, maketazioa, etab. Euskarri hauek kartelak, esku-orriak, liburuxkak, txostenak, bideoak.. izan dira.
- EGKren hainbat kontzeptu zabaltzeko irudi espezifikoak..

Garapena

Lantalde teknikoak beharrak identifikatu ostean apirilean deialdia publiko egin zen webgunean. Horretaz gain, EGK-ko elkarteei emailaz jakinarazi zitzairen eta sare sozialetan zabaldu zen. Azkenik, gainerako lan-deialdietan bezala, webgune espezifikoetan eskegi genuen.

Albisteko oinarrietan azaldua zegoen bezala, hilabete amaiera arte izan zen CVak eta portfolioak bidaltzeko epea. Horren ostean, komunikazio teknikariak hartu zuen erabakia eta, azkenik, erabakia jakinarazi zen.

Ebaluazioa

Urtea oraindik amaitu ez bada ere, orain arteko balorazioa oso baikorra da. Beste urtebetez argi eta garbi ikusi ahal izan da aukeratutako diseinatzaileek maila altua dutela: eskatutako produktua helarazi dute epeak betez, lan egiteko metodologia egokia izan da eta eskainitako azken produktuak helburuak betetzen lagundu du.

6.5. TWITTER LEHIAKETA



Sare sozialak, bereziki Twitter, erabiltzen duten gazteen iritzia biltzeko lehiaketa da. Seigarren ekitaldian aniztasun funtzionalaren gaia jorratu da, duten gazteen egoera aztertzeko, lehen eskutik zailtasun eta oztopoak biltzeko eta ondoren proposamen guzti hauek administrazio eta arduradun politikoei helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (EGK) ideiak eta proposamenak ematea Aniztasun Funtzionalari buruz duen diskurtsoa ikuspegi barne-hartzaile batetik osatzeko. Era berean, asmoa gaia gizarteratzea da.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko gazteengana gerturatu.
- Euskadiko gazte eta gazte-elkarteei aukera eman EGKn eragiteko.
- 2018ari eta etorkizunari begira EGKren ahulguneak identifikatu eta konpontzeko neurriak hartu.

Garapena

2017ko abenduaren 8an hasi zen lehiaketa. Txio baten bidez, nahi zuen orok ondorengo galderak eta bururatzen zitzaizkion beste hainbat erantzun zitzakeen: Zein da Aniztasun Funtzionala duten gazteen egoera? Zein dira egunerokoan topatzen dituzten oztopoak? Bizitzako zein arlotan? Zertan hobetu behar du gizarteak barne-hartzaileagoa izateko? Ze motatako praktikak funtzionatzen dute ondo? Ezagutzen duzu adibiderik? Zer gai edo ekimen landu beharko genuke 2018an egoera ezagutarazteko? Zer mezu gustatuko litzaizuke EGKtik entzutea hurrengo urtean? Zer eskatu edo aldarrikatu beharko genuke erakundeekin biltzen garenean?

Txioak euskaraz, gaztelaniaz ala bietan izan zitezkeen eta #MugarikGabekoAniztasuna traola izan eta @GazteKontseilua zitatu behar zuten. www.egk.eus webgunean kontsulta daitezke oinarriak.

Ebaluazioa

Memoria hau bidaltzerako unean Twitter lehiaketa oraindik ez zen amaitu.

6.6. SARE SOZIALAK



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak sare sozialetan dituen profilak ia egunero eguneratzen dira. Orain asteburuetan ere. Batetik, Facebook-ek jarduerak programatuak uzteko aukera ematen duelako; eta, bestetik, Hootsuite erabiltzen hasi garelako. Honen bitartez Twitter, Google+ eta Linkedinen jarduerak programatuta uzten ditugu. 2017ko plangintzan zehazten zen bezala, sare sozialetan estrategia berria egin da aurten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren presentzia indartzea, elkarriketa sortzea (erabiltzaileekin eta gaiei buruz), jardueren informazio gaurkotua argitaratzea eta funtzioekin lotutako edukiak elkarbanatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Webguneko trafikoa handitzea.
- EGK-k egindakoaren berri ematea.
- Kanpaina zehatzen bidez diskurtsoa osatzea: RECacciona, #GukEzetz, #TrabajoDecente, #GazteokBizikidetzan, Twitter lehiaketa, etab.
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri jasotzea.
- Beste elkarte eta gazte-eragileen jardueren berri ematea.
- Gazteentzako interesgarriak izan daitezkeen egitasmo eta proiektuen berri ematea.
- Gai ezberdinak gizarteratzea.

Garapena

2017ko Batzar Orokorrean onartutako Plangintzan zehazten zen bezala, 2017an sare sozialetan aldaketa nabarmena eman da. Asmoa komunikazio gertukoagoa egitea izan da, instituzional kutsutik aldenduz eta gazteon hizkuntzara eta komunikatzeko moduetara gerturatuz.

Era berean, mezu berbera sare guztietan zabaldu beharrean, estiloa sare sozial bakoitzaren ezaugarrietara moldatzea izan da asmoa.

Azkenik, ikus-entzunezko mezuei garrantzi gehiago eman zaie. Batetik, mezuak zabaltzeko errazagoa delako. Horrek, noski, ez du esan nahi orain arteko txosten eta ondorio-dokumentuak egin ez direnik. Hauek zuzenean zabaltu beharrean, zabalpen-mezuaren parte izan dira bideo, irudi, GIF edo bestelako testuekin batera.

Twitter:

Estrategia berrian Twitter oso baliagarria izan da unean uneko jarraipena egiteko. Hari batekin – hau da, ekitaldiko txio nagusi bat izan eta ondorengo guztiak aurrekoari erantzuten joanda– elkarriketa antzeko bat eratu da. Edozein txiotatik egun osoan jorratutakoa irakurtzea ahalbidetzen da horrela, bai unean eta bai gerora ere webgunean edo bestelako sare sozial batean esteka jarriz.

Facebook:

Aipatutako aldaketa orokorraz gain, Facebook-en publizitatea erabili da are jende gehiagorengana heltzen saiatzeko. RECacciona bideo lehiaketa sustatu zen emaitza oso onekin. Horretaz gain, zuzeneko bideoak egin dira ekitaldien aurkezpena publikoari helarazteko – gainera, hauek gero webgunean eskegi dira–.

Instagram:

Aldaketa nabarmenen nabaritu den sare soziala. Eskaintzen dituen aukera guztiak baliatuz, gertukotasuna eta gardentasuna islatu dira. Gainerako sareetan elkarbanatutako ekitaldi berdinak zabaltu dira, baina mezua moldatuz: aplikazio gehigarriekin egindako bideo laburrak, EGKren egunerokoa islatzen duten argazkiak –lan-giroa edo bulegoko irudiak, esaterako–, istorioak eginda, etab. Horretaz gain, ekitaldi garrantzitsuetan unean uneko jarraipena eginda bideoak zuzenean igota eta amaieran laburpena eginez.

YouTube:

Erabilera handiagoa egin da, hainbat ekitaldiren laburpen bideoak eginda. Gainera, #GukEzetx! Edo #TrabajoDecente kanpainetarako bideoak egin dira.

Linkedin eta G+:

Aurreko urteetan bezala, ez da esfortzu berezirik egin bi sare sozial hauetan. Webgunearen posizionamendua hobetzeko besterik ez dira erabili.

Ebaluazioa

Twitter:

Twitter sare sozialak emandako estatistika eta datuak azaltzen ditu ondorengo taulak. Soilik martxotik aurrera zehazten dira, orduan hasi baitzen estrategia berria.

Hilabetea	Inpresioak	Profilera bisitak	Jarraitzaile berriak
Martxoa	92.500	3077	+30
Apirila	26.000	1000	+18
Maiatza	56.500	1803	+23
Ekaina	66.400	2226	+27
Uztaila	50.600	739	+21
Abuztua	39.800	799	-2
Iraila	69.800	1783	+23
Urria	57.300	1757	+22
Azaroa	50.000	2040	+29
Abendua (11 arte)	12600	220	+8
Guztira	498.100	15.444	198

9 hilabete ez da denbora gehiegi, baina aldaketa honen lehen ebaluazioa egiteko nahiko bai. Lehen ondorio argia estrategia aldaketak emaitza hobeak eman dituela da. Twitterren zehazki, elkarrizketa sortzeko asmo horretan proiektu orok bere traola izan du, elkarte eta eragileekin interakzioa bilatu da (argazkietan etiketatzen, une puntualetan zitatuz), unean uneko jarraipenak egin dira (eta hauek gero webguneko albisteetan jarri dira) eta ikus-entzunezko baliabideak areagotu dira: ekitaldien bitartean zuzenekoak, ekitaldien amaieran laburpen bideoak, GIF edo *memeak* erabiliz, etab.

Une honetan 2944 jarraitzailea ditugu. 2016ko abenduaren 21ean 2701 genituen. Hau da, urtebetean 243 gehiago.

Facebook:

Komunikatzeko moduan emandako aldaketa Facebook sarean ere nabaritu da. Tarteka iruzkinak izan ditugu galderak eginez, beste gazteren bati aipatzen den egitasmoa gomendatuz edo kritikaren bat eginez. Horretaz gain, interakzio-maila ere asko igo da. Sareak ematen dituen aukerak baliatuta joko gehiago atera zaio eta erabiltzaileek informazio gehiago eta hobea lortu dute.

Hilabetea	Jarraitzaile berriak
Martxoa	+4
Apirila	+4
Maiatza	+33
Ekaina	+36
Uztaila	-2
Abuztua	+6
Iraila	+17
Urria	+6
Azaroa	+10
Abendua (11 arte)	+10
Guztira	124

Horretaz gain, 3951 jarraitzailea ditugu. 2016ko abenduan 3821 genituen, hau da urtebetean 130 gehiago.

Argitalpenen Irismena

The number of people your posts were served to.



Instagram:

Gorakada nabarmena eman da Instagramen. Elkarriketa bilatu da erabiltzaileekin interaktuatuz, uneoro argitalpenak egiten eta gazte izaten komunikatzeko eran. Hau da, tokian tokiko eragileak etiketatu dira argazkietan, traola ugari erabili dira ahalik eta oihartzun handiena izateko eta kanpaina puntualetarako eragina areagotzeko gazte erreferenteekin kontaktatu da. Aplikazio gehigarriak (Boomerang, Layout edo Hyperlapse batzuk aipatzearren) erabiltzea ideia ona izan da, bestelako edukiak sortzen lagundu duelako eta horrela atentzioa gehiago deitu delako.

Horretaz gain, 406 jarraitzailea ditugu. 2016ko abenduan 183 genituen, hau da urtebeteen 223 gehiago.

YouTube:

Ikustaldi kopurua oso altua ez bada ere, hasitako bideak lehen emaitzak eman ditu. 2018ari begira haratago joatea da asmoa: bideo gehiago egin, ekintzek laburtzeko bideoak, etab.

LinkedIn:

Erabiltzaile aldetik ez dugu ia aldaketarik nabaritu. Hala ere, ikuspegi korporatibotik interesgarria da bertan egotea. Komunikazio lan-arloko plangintzan ez du denbora espezifikorik zehaztuta eta ez da aurreikusten kanpainarik egitea. Hootsuite plataformak emandako erraztasunengatik erabiltzen da, eta, batez ere, Google bilatzailean posizionatzen laguntzen duelako.

Google +:

Ez da gehiegi erabiltzen den sare soziala eta bertatik erabiltzaile eta inpaktu aldetik oso etekin gutxi ateratzen da. Komunikazio lan-arloko plangintzan ez du denbora espezifikorik zehaztuta eta ez da aurreikusten kanpainarik egitea. Hootsuite plataformak emandako erraztasunengatik erabiltzen da, eta, batez ere, Google bilatzailean posizionatzen laguntzen duelako. Egindako argitalpen bakoitzarekin webguneko loturak eta albisteetan erabilitako irudiak elkarbanatzen dira, honek SEOan inpaktu handia du.

Orokorrean, 2018ari begira ildo beretik jarraituko da, ahal den neurrian ikus-entzunezko material gehiago eginez eta eragile eta pertsonekin elkarriketa gehiago sortuz, EGK tresna eta baliabide interesgarri bezala erakutsi nahi da.

6.7. KOMUNIKAZIO KANPAINAK

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin (Berdintasuna, Bakea eta Bizikidetzak, Hezkuntza, Parte-hartzea, Enplegu eta Etxebizitza eta Koordinazioa) elkarlanean aritzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurrera eramandako proiektuek oihartzuna izatea hedabideetan
- Hedabideek egindako erreportajeetan gure ahotsa kontuan izatea
- Kanpaina espezifikoek bidez argitalpenarekin zerikusia duen oro zentralizatzea
- Jorratutako gaiak eta gazteok hauei buruz dugun iritzia gizarteratzea.

Hau guztia kudeatzeko, hainbat lan egin dira:

- Prentsurrekoak antolatu.
- Prentsa-ohar eta dosierrak garatu
- Iritzi-artikuluak idatzi hedabideetan.
- Sare sozialetan estrategia espezifikoak erabili: publizitatea, traola konkretuak, etab.
- Ikus-entzunezko materialak bultzatu
- Elkarriketak lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak kudeatu.

Garapena

Plangintzarekin lotuta, hauek dira urtean zehar egin diren eta antolatzeko bidean dauden komunikazio kanpaina nagusienak:

1.- Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa:

2016ko ekaineko Ezohiko Batzarrean onartu eta 2017ko martxoko Batzar Orokorrean moldatutako protokoloak. Berdintasun lan-arloarekin elkarlanean kudeatzen dira. 5.3. puntuan azaldu den bezala, lehen emakume gazte batek emakume izanagatik jasandako eraso oro salatzeko da; eta, bigarrena, LGTBI+ kolektiboko kide den pertsona batek jasandako eraso salatzeko. Bi kasuetan EGKren sare sozialetan deitoratzeko mezua zabaltzen da erasotuari elkartasuna adieraziz eta hedabideetara prentsa-oharra bidaltzen da administrazioari, gizarteari eta zehazki gazteriari egindako eskari eta proposamenak oroitaraziz.

2.- Enpleguko protokoloa

Enplegu eta etxebizitza lan-arloko Emantzipa... Zer? Lantaldeak sustatuta eta EGK-ko Batzar Orokorrak berretsita, Euskadiko langile gazte batek lanean ari dela larriki zauritu edo zendu bada gertakaria salatzeko protokoloa da. 1.7 puntuan zehazten den bezala, lan-arloak EGKren sare sozialetan gertakaria deitoratzeko mezua zabaltzen da eta hedabideetara prentsa-oharra bidaltzen da administrazioari eskari eta proposamenak oroitaraziz

3.- Garraio gastuen txostena

Ikasleen artean hautemandako beharrian eta proposamenei erantzuna emateko proiektua. 2.8 puntuan zehazten den bezala, Hezkuntza Forotik bideratuko lan honek urtebetean gazteek haien ikasketak burutzeko zenbaterainoko gastuak dituzten jakitea izan da. Hemen ikus dezakezu [albistea](#) eta [hemen txostena](#).

4.- Bakea dokumental eta liburu aurkezpena

Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzako Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenaren barnean egindako hainbat tailer, formakuntza eta ekitaldi barnebiltzen dituen *‘Gazteak eta Bakea. Iraganari buruzko hausnarketak, orainaldiko aukerak, etorkizuneko erronkak’* liburua aurkeztu eta *‘Gazteon aukera: elkarbizitzaren erronka’* dokumentala proiektatu ziren, 4.1 eta 4.2 puntuetan azaltzen den bezala. [Eguneko albistea hemen](#) ikus dezakezu eta [txostena hemen irakurri](#).

5.- 37. Batzar Orokorra

2017ko martxoaren 11an Bilboko La Bolsa auzo etxean (John Jauregian) ospatu genuen. Urtean behin EGK osatzen duten elkartei aurreko urteko memoria eta hurrengorako plangintza aurkezten zaizkie bozka ditzaten. Era berean, elkarteek euren proposamenak mahai gainean jartzeko aukera dute bertan onartu daitezen ala ez. [Aurtengo Batzar Orokorrean](#), Maialen Olabe beste bi urterako presidente bezala berraukeratu eta Batzorde Iraunkorra berri zuen.

6.- Sexualitatearen Koloreak gida Eusko Legebiltzarrean agerraldia

Berdintasun lan-arlotik gidatuta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean hezitzaileentzako sortutako gida-bildumaren lehen alea da. 5.1 puntuak adierazten den bezala, hainbat elkarte eta eragilerekin elkarbizitzan izan ostean, marko teoriko eta praktikoa osatu dira hezitzaileek Aniztasuna lantzeko tresnak izan ditzaten. Hemen irakur dezakezu [laburpen albistea](#) eta [hemen txostena](#) irakur dezakezu.

Horretaz gain, 2017an Eusko Legebiltzarrean [agerraldia egin zuten](#) Maialen Olabek, EGK-ko presidentek, eta Norma Ageitosek, EGK-ko Berdintasun teknikariak, legebiltzarkideei gida aurkeztu eta bertako proposamenak helarazteko.

7.- Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna

Gazteok pairatzen dugun prekaritatea eta honek gure ongizatean dituen ondorio latzak salatzeke, apirilaren 28an manifestua kaleratu genuen. *Emantzipa... Zer?* enplegu eta gazteria

lantaldean batutako hainbat gazte elkarte, kolektibo eta sindikatuk osatu dute lana eta beste hainbat elkarte atxiki dira manifestura. Hemen irakur dezakezu [albistea](#) eta [hemen manifestua](#).

8.- Gazteak, enplegua eta aniztasun funtzionala

Bilboko Boluntan antolatutako ekitaldia Enplegua, gazteria eta aniztasun funtzionala landu, egoera aztertu, bizipenak lehen eskutik entzun eta denon artean hobekuntza eta irtenbideak proposatzeko. 13 puntuan adierazten den bezala, gaia jorratzeko hainbat eragile batu genituen lehenik mahai-inguru batean eta ondoren talde-dinamika batean. Hemen duzu [eguneko albistea](#).

9.- Eusko Legebiltzarrean agerraldia

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua urtero agertzen da legebiltzarkideen aurrean. Aurten, Enplegu, Gizarte Politika eta Gazteria Batzordean egindako [agerraldian](#) hiru izan dira mezu nagusiak: batetik, 2016ko memoria eta 2017ko plangintza legebiltzarkideei aurkeztea; bestetik, gazteen egoera sozio-ekonomikoa mahai gainean jartzea; eta, azkenik, egun dirauen Berdintasun eza egoerak gazteok arduratzen gaituela. Komunikazio lan-arloaren zeregina presidentziari mezua prestatzen laguntzea eta bertan egindako agerraldiaren mezua hedabideetan, webgunean eta sare sozialetan zabaltzea izan da.

10.- #GukEzetz! kanpaina

Berdintasun lan-arloko Gaur8 lantaldetik sortutako Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa hainbatetan aktibatu ostean arazoari erantzun bat eman nahi eta beharretik diseinatutako [kanpaina](#). 5.7 puntuan azaldu den bezala, hainbat gazte eta gazte elkarterekin harremanetan jarri eta sare sozialen bidez parte-hartzeko aukera eman zen. Azaroaren 22an itxiera ekitaldia egin zen Donostian, gazteen iritzia batzeko eta kanpainan zehar lortutako mezuak osatzeko.

11.- Gune Anitza prentsaurrekoa

2016an Gune Anitza zigilua aurkeztu ostean atxiki ziren hainbat espaziok izandako zalantzak ikusita, 2017an hauek argitzea helburu duen 'Gune Anitza: Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka' [aurkeztu da](#) Bilboko egoitzan. Zigiluaren bitartez, Euskadiko gune fisiko zein birtualek aniztasunaren aldeko konpromiso adierazten dute. Prentsaurrekoa prestatu, prentsa-oharra idatzi eta mezua sare sozial eta webgune eta zabaltzea izan zen komunikazio arduradunaren lana.

12.- GazteOlinpiadak

Kirola, inklusioa eta parte-hartzea uztartzen dituen ekimenaren helburua balore sozialak zabaltzea da, lehiakortasunetik urrun eta aniztasuna eta laguntasuna uztartuz. 2017ko irailean Antiguako frontoian (Donostia, Gipuzkoa) ospatu genuen. GKEF eta GPFe laguntza izan genuen antolatzeko eta Uba Gazteak elkarteko eta bestelako hainbat gaztek parte hartu zuten. [Laburpen albistea hemen](#) ikus dezakezu eta [eguneko bideoa hemen](#).

13.- #GazteokBizikidetzan

Euskadin etorkizunean Bizikidetza errealitate bilakatzeko egin beharreko aldaketez gogoeta egiteko [ekitaldia](#). 4.7 puntuan adierazten den bezala, Bilboko Udalarekin elkarlanean antolatua, elkarriketa, gogoeta eta adierazpen artistikorako eremu bat ireki zen Bizikidetza eta Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako kulturaren garapena sustatzeko. [Eguneko ondorioak](#) gure webgunean eskuragarri daude.

14.- Mugarik gabeko aniztasuna gida

Hezkuntza eta Parte-hartze lan arloetatik gidatuta, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean hezitzaileentzako sortutako gida-bildumaren bigarren ale honen asmoa bikoitza da: batetik, Aniztasun Funtzionalaren gaia gizarteratzea; eta, bestetik, hezkuntza ez-formaleko hezitzaileentzako erreferentziazko euskarria izatea. 2.7 puntuan azaldu den bezala, hainbat elkarterekin elkarriketak egin dira urtean zehar diskurtsoa garatu, erronkak identifikatu eta hauei erantzun bat emateko. [Eguneko albistea hemen](#) ikus daiteke eta [txostena hemen irakurri](#).

15.- Lan Egokiaren kanpaina

Lana eta enpleguaren gaiari buelta bat emateko eta Euskadiko gazteriarentzat lan egokia eta hobetu beharrekoa zer den jakiteko kanpaina. 1.6 puntuan azaltzen den bezala, maiatzean abiatu eta urriaren 7an amaitu zen, Nazioarteko Lan Egokiaren egunarekin kointzidituz. Gehiago jakiteko [albistea hemen duzu](#), ekarpen oro biltzen dituen [manifestua hemen](#) eta bideo eta argazkiekin [egindako bideoa](#) hemen.

16.- GaztEztabaida

Parte-hartze lan-arlotik gidatutako proiektua, hauteskunderik ez zegoen urte honetan gizarlean pil-pilean zegoen gaia hautatu zen: erabakitzeko eskubidea. Eusko Legebiltzarreko alderdietako ordezkariak izan ziren Leioako unibertsitatean, euren iritzia plazaratzen eta gazteek planteatutako galderak erantzuten.

17.- Boluntarioria-kanpaina

Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean egindako proiektua lurralde historikoko gazte boluntarioek egindako lana azpimarratu eta balorean jartzeko eta gazteen artean boluntarioria sustatzeko. 2.1 puntuan zehazten den bezala, 2016ko #IzanZuAldaketa kanpainari jarraipena eman zaio.

Ebaluazioa

Aurreko urteetan bezala, EGK-k komunikabideetan izan dituen agerpen guztien jarraipena egin da. 2017an zehar komunikabideetan izandako agerpen guztiak ikusi nahi izanez gero, esteka honetan bilduta daude: <http://bit.ly/2kh2TAe>

Azken urteotako goraka mantendu da emaitza aldetik. Plangintzan zehaztutako proiektu ia guztiek euren prentsa-oharra izan dute. Eta ekimen bereziki garrantzitsuetan jarraipen berezia egin da: hedabideetara deitu, elkarrizketak lotzen saiatu, etab.

Bereziki Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloak izan du oihartzuna hedabideetan eta askotan eskatu dizkigute adierazpenak protokoloan zehazten diren eskarien gainean.

Aipamen berezia merezi du EGK-ko presidenteak Gazteberri aldizkarian hilero iritzi-artikulua idatzi duela.

6.8. BARNE KOMUNIKAZIO KUDEAKETA ETA BESTE BATZUK

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua lantalde teknikoak, Batzorde Iraunkorrak eta elkarteek osatzen dute. Edozein plataformatan bezala, barne komunikazioa funtsezkoa da funtzionamendu egokia izateko. Horretarako, egindako egitasmo edo proiektu ororen berri ematen zaie guztiei: lehenik, deialdia egitean; ondoren ekintza egin denean webguneko albistearen loturarekin; eta, azkenik, ekitaldiak ondorioak izan baditu hauek helaraziz.

Era berean, lantalde teknikoak barne komunikaziorako tresna ugari ditu. Egunerokotasunean koordinatze aldera, Skype kontu bat du teknikari bakoitzak eta taldea gai orokorrak jorratzeko. Horretaz gain, teknikari orok sortzen diren ekintza eta txostenen berri izateko, bi astean behin barne bilerak egiten dira eguneratzeko.

Azkenik, teknikari bakoitzak Batzorde Iraunkorreko loturarekin bilerak egiten du maiztasunarekin, lan-arloko berriak eman eta koordinatzeko. Honekin batera, Koordinatzaileak deituta, lantalde teknikoa Batzorde Iraunkorrarekin biltzen da

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren baitako barne-komunikazioa hobetu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko arlo teknikoen arteko komunikazioa erraztu.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa indartu.
- EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.
- EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio-laguntza eman..

Garapena

EGKren barne komunikazioa ahalik eta onena izateko, hainbat saiakera egiten dira:

- EGKren egitekoarekin zerikusia duten gaia jarraipena egiteko egunero hainbat egunkari eta aldizkari begiratzen dira. Horietan zerbait interesgarria aurkituz gero, lan-arloko teknikariari bidaltzen zaio. Gaia orokorragoa bada edo eragina zabalagoa bada, lantalde osoari bidaltzen zaio.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak lan-arloko teknikariari bidali eta Excel batean gorde (Excel-a lantaldearekin elkarbanatua dago teknika bakoitzak nahi duenean kontsulta

dezan). Era berean, kanpaina bakoitza egiten denean, emaitzen berri ematen zaie: sare sozialetan izandako inpaktua, erabiltzaileengandik jasotako erantzunak, etab..

- Sare sozialetan tarteka bilaketak egiten dira lantaldeak eskuartean dituen gaien gainean zer esaten den jakiteko: gazteon iritzia, hitzarmena sinatua dagoen administrazioek zerbait esan duten, etab.
- Batzorde Iraunkorrak eta Batzarreko elkarteek EGKren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGKren tresnen bitartez (buletin digitalak, e-maila...). Administratiboarekin batera egiten den lana da hau.
- Teknikariei (eta Batzorde Iraunkorrari hala eskatzen badu) komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Ebaluazioa

Barne-komunikazioa arintzea eta hobetzea izan da asmoa. Hein handi batean lortu da, bai lantalde teknikoaren barnean bai honen eta Batzorde Iraunkorraren artean. Hala ere, 2018an gehiago sakonduko da alor honetan.

6.9. IRUDI KORPORATIBOAREN GARATZE ETA BERRITZEA

2015ean webgunearekin eta 2016an irudi korporatiboarekin hasitako prozesuaren azken ukituak eman dira 2017an Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hainbat esparrutan irudi homogeneoa izan dezan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren irudi korporatiboa berritu

Garapena

EGKren lantalde eta Batzorde Iraunkorrak falta ziren elementu guztien zerrenda egin du, ondoren hauek lehentasunaren arabera zehaztu eta banan-banan berritzen joateko:

- Kareta korporatiboa: proiektu garrantzitsuen laburpen bideoetarako edo proiektua beraren helburua bideo bat egitea denerako baliagarria izango da.
- Bulegoetako biniloak: EGK-k hiru lurralde historikoetako hiriburuetan dituen bulegoetako leihoetako biniloak berritu dira, 2016an garatutako irudi korporatiboa baliatuz: logo berria, hautatutako kolore korporatiboak, etab.
- Aurkezpen-triptikoa: antolatzen diren ekitaldietan eta urtean zehar sortzen diren bileretan aurkezteko erabiltzen den triptikoa.

Ebaluazioa

2017an zehar identifikatu diren beharrak asetzea zen asmo nagusia eta alde horretatik helburua bete da.

7. PRESIDENTZIA

7.1. BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkari osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

Urte honetan, legeak ezartzen duen moduan, Batzorde Iraunkor berria osatu da. Batzorde Iraunkorreko kide berriek EGKren gainean daukaten ezagutza sakondu beharko dute, Batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu.

Bestalde, presidenteak zubi-lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziaz Batzorde Iraunkorra gai guztietan jakinaren gainean mantentzeko lana egingo da, baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren gaineko erabaki nagusiak bideratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren elkarteekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu eta taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.

- Ardura banaketa errespetatu.
- Batzorde Iraunkorreko kideen parte-hartzea sustatu.

Garapena

Batzorde Iraunkorra data hauetan bildu da 2017an zehar.

- Urtarrilak 17 eta 24
- Otsailak 6, 15 eta 27
- Martxoak 7 eta 20
- Apirilak 4 eta 26
- Maiatzak 2, 8 eta 16
- Ekainak 8, 19 eta 27
- Irailak 14 eta 26
- Urriak 9
- Azaroak 27
- Abenduak 13 eta 18

Ebaluazioa

Urte honetan, legeak ezartzen duen bezala, Batzorde Iraunkor berri bat sortu da eta horregatik aldaketak egon dira. Hasieran aipatu den bezala, Batzorde Iraunkorra 11 ordezkari oso daiteke, baina aurten 9 ordezkari sartu dira.

Taldekieen inplikazioa eta konpromisoa oso ezberdina izan da. Bakoitzaren lan-arloarekiko jarraipena eta egunerokoarekiko interesa, batetik bestera, erabat ezberdina izan da. Horrek desoreka handia ekarri du langileekiko. Batzordeko bileretan behin baino gehiagotan gogorarazi da kideen oinarritzko egitekoak zeintzuk diren, baina, hala ere, ez da lortu konpromisoa orekatua izatea.

Nahiz eta kide berrien presentzia eta inplikazioa nabaria izan, presidentziatik ez da lortu oraindik iraunkorkideak ekintza, agerraldi, negoziazio-bilera eta abarretan inplikatzetik.

Une oro taldeari informazioa eta egunerokoaren berri emateko ahalegina egin da, bilerak, emailak, WhatsApp-ak edo audioak bidalita.

Orokorrean taldekideak bileretara joan dira, baina guztietan jendea falta izan da. Batez bestekoa lau pertsonakoa izan da bilera bakoitzaren hasieran.

Bilerak, gehien bat, informatiboak izan dira EGK-k duen egunerokotasunaren gainean erabakiak hartzeko kapaz izateko.

Erabakiak ez dira beti bileretan hartu, gertatu izan da inoiz WhatsApp-a edo posta elektronikoa erabili behar izatea berehalako erabakiak hartzeko. Orokorrean, nahiz eta iritzi ezberdinak izan, ez da zailegia izan erabakiak hartzea.

Elkarteen erantzuna ohikoa izan da, eta ez da Batzorde Iraunkorreko taldeen parte hartzea ohi baino handiagoa izan.

Batzar Orokorrean Batzorde Iraunkorra berritu denez, kideak aldatu dira. Kide-berritze honetan, elkarte berri bakarra sartu da: Alevines Vascos.

7.2. LANTALDE TEKNIKOAREN KOORDINAZIOA

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero, eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen guztiak eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatzen dira eta zubi-lana egiten da Batzorde Iraunkorraren eta Lantalde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrenengora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lantalde Teknikoa hilabeteen behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardurak presidentearenak dira. Horrez gain, gutxienez bi astetik behin, Skype bidezko bilera teknikoak egiten dira.

Aurten, hainbat aldaketa eman dira Lantalde Teknikoan. Alde batetik, hiru lan-deialdi eta aukeraketa-prozesu burutu dira, hezkuntza, bakea eta bizikidetza eta berdintasun lan-arloak une ezberdinetan aldatuz joan dira. Prozesuak presidentziaz koordinatu dira Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu eta zubi-lana egin honen eta Batzorde Iraunkorraren artean.

Garapena

Lantalde Teknikoaren bilerak:

Bilera hauek, hilean behin presentzialak izan dira, lurraldeak txandakatuz. Horrez gain, hamabost egunero Skype bidezko bilerak martxan jarrita daude. Honekin, koordinazioa hobetzeaz gain, eraginkortasuna eta denbora aurreztu dira.

Batzorde Iraunkorrarekin bilerak:

Bilera bakoitzaren aurretik, talde teknikoak aurre prestaketa bat egin du.

Jarraipen bilerak:

Egunerokoaren erritmoak ez du hainbat gai lantzeko aukerarik ematen. Bilera teknikoetan gai gehienak jorratzeko ahalegina egiten bada ere, zenbait gai bakarka eta aurrez aurre landu daitezke soilik. Urtean behin gutxienez presidentea teknikari bakoitzarekin elkartzen da banan-banan. Bilera horretan, lan-arloaz, teknikariaren lanaz eta EGKren gainean hitz egiten da.

Aukeraketa prozesuak:

Aurten hiru izan dira egin behar izan diren deialdiak. Deialdirako irizpide batzuk ezartzen dira Batzorde Iraunkor eta Lantalde Teknikoaren artean. Ezarritako irizpideen arabera lehen aukeraketa bat egiten da; ondoren, idatzizko frogak; eta azkenik, elkarrizketa egiten da.

- Bake-teknikaria: otsailean.

- Hezkuntza-teknikaria: urrian.
- Berdintasun-teknikaria: abenduan.

Eguneroko lana

Hiru egoitzetan lan egiten dela kontuan hartuz, egunerokoan jarraipena egiteko hainbat baliabide erabiltzen dira: WhatsApp talde-teknikoa, Skype talde-teknikoa, “teknikoa” posta elektroniko distribuzio taldea, besteak beste.

Horrez gain, lan taldearen giroa eta baldintzak zaintzeko ahalegina egin da. Koordinazioaz gain, giza baliabideak gizatasunetik landuz eta behar ezberdinak asetzeko ahaleginak eginez.

Ebaluazioa

Azken urteetan lan-taldea murriztu eta hazi da berriro ere. Hazkuntza hori asko nabaritu da proiektuen ugaritzean, egutegia data garrantzitsuz bete delako, besteak beste. Taldeak aldaketa asko jasan dituen sendotasuna lortzen ari du, gaitasun eta ezaugarri ugari ekipoa da.

Oro har, egitasmo guztiak arrakastaz burutu dira eta plangintzan zegoena bete da.

Aurrerantzean, langileen arteko komunikazioan, kohesioan eta koordinazioan sakontzen jarraituko da EGKren egitekoari kalitatez eusteko.

73. BATZORDE EKONOMIKOA

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko administrariak, diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2017ko aurrekontuaren kudeaketa egin da eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, erakundeekin hitzarmenak negoziatu dira. Horrez gain, beharrezkoak izan diren gastuak baloratu eta onartu dira.

Azkenik, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatu dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.

Alor honetan unean-uneko erabakiak hartu.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2017ko aurrekontua prestatu.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa prestatu.

Garapena

Batzorde Ekonomikoaren bilerak

Jarraipena maiz egin da. Urtean 2-3 bilera besterik egin ez badira ere, koordinaziorako gainontzeko baliabideak erabili dira administraria, diruzaina eta presidentearen artean (posta elektronikoa eta telefono deiak batez ere).

Aldundiekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkaritza.

Eusko Jaurlaritzarekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkaritza.

Batzar Nagusietako alderdiekin bilerak

*Ikus 7.5. Elkarlana eta ordezkaritza.

Ebaluazioa

Aurtengo egoera ekonomikoaren egonkortasunak ahalegin handiak eskatu ditu, hainbat bilera, negoziazio luzeak eta lankidetzaz hitzarmen ugari. Zoritxarrez, 2017an zehar, beti bezala, hainbat ezusteko ekonomiko gertatu dira, izan ere, azken momentuko hitzarmenak izan dira eta horrek eragina izan du.

Urtez urte, esfortzu berdina errepikatu behar izateak zailtasunak ekar ditzake etorkizunean. Zentzu horretan, administrazio eta erakundeekin lankidetzaz sendagoak negoziatu beharko lirateke, Kontseiluak egiten duen lanari jarraipena eta egonkortasuna emateko.

7.4. BATZAR OROKORRA

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan EGK-ko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria eta urte horretarako plangintza aurkezten zaizkie onartu edota atzera bota daitezkeen. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean. Aurten horrela izan da, Batzorde Iraunkorra berritu da.

Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, presidentea da Batzarreko Mahaiko arduraduna eta Batzarra bera dinamizatzen duena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2017ko Batzar Orokorraren koordinaketa eta dinamizazioa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarten proposamenak jaso eta aurkeztu.

Garapena

Memoria eta plangintzaren prestaketa

Honek izugarrizko lana suposatzen dio EGK-ko lantalde teknikoari eta bereziki koordinazio lanak egiten dituen presidenteari; izan ere, dokumentu guztiak honen eskutik pasa behar dira.

Bi dokumentu hauek fase ezberdinetan teknikari bakoitzak, talde tekniko osoak eta Batzorde Iraunkorrak aztertzen dituzte Batzar Orokorrari aurkeztu aurretik. Honekin, koherentzia, zuzentasuna eta egokitasuna bermatu nahi dira.

Batzarreko gai ordena eta antolaketa

Oinarrizkoa mantentzen da eta urtean urteko beharren arabera gauzak gehitu. Batzarrera begira, memoria eta plangintzen aurkezpen lanak banatzen dira, pertsona ezberdinen artean egin dadin.

Elkarten proposamenak jaso eta aurkeztu

Deialdia egin eta batzarra bitartean, elkarten proposamenak jasotzen dira. Horietako batzuk Batzorde Iraunkorrak aztertu behar izaten ditu aurretik.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu

Batzorde Iraunkorrak aztertu behar ditu elkarte guztiei zabaldu aurretik.

Ebaluazioa

Erabaki berriak hartu ziren bilera honetan, Berdintasun-planaren eta Bake-protokoloaren onarpena besteak beste.

Kontuan hartuta oso denbora gutxi pasa zela aurreko Batzar Orokorretik ez zen elkarte berririk sartu oraingo honetan.

Honekin batera, Batzorde Iraunkorraren aukeraketa egin zen. Batetik, presidentzia Maialen Olabe(k) hartu du; eta, bestetik, beste 9 kide sartu dira, orain arte egondakoak gehienak Alevines Vascos izan ezik, berria zela BI-ean.

7.5. LANKIDETZA ETA ORDEZKARITZA

7.5.1. EUSKO JAURLARITZA.

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla-eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik jasotzen da.

Urtean zehar, aurreko urtean lortutako harreman berriak, zein zaharrak, sendotu egin dira nabarmenki: Gazteria Zuzendaritzarekin, Bake eta Bizikidetzak Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Kanpo Harremanen Idazkaritzarekin, Lanbiderekin eta Hezkidetzak Planaren Batzordearekin, besteak beste. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2018an elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatu eta eragin politikoa izan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zuzendaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatu.
- Mahai interinstituzionalean parte hartu.

EGKren aurrekontua egonkortzeko eta handitzeko lan egin

Garapena

Egindako Bilerak:

- **Gazteria Zuzendaritza**
 - Urtarrilak 26
 - Martxoaren 15ean
 - Maiatzaren 23an
 - Urriaren 3an
 - Azaroaren 9an
 - Abenduaren 13an
- **Enplegua**
 - Marcos Muro, Enplegu eta Gazteriako sailburuordea, maiatzaren 23an
- **Bakea eta Bizikidetza**
 - Jonan Fernandez Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren idazkari nagusiarekin
 - Maiatzaren 2an
 - Uztailaren 6an
 - Azaroaren 14an
- **Emakunde**
 - Maiatzaren 3an
 - Abenduaren 21ean

Esan beharrik ez dago, aurrez aurreko bilerez gain harremana telefonoz zein emailaz mantendu dela gehien bat.

Ebaluazioa

Atal honetan, esan daiteke helburuak zein ekintzak neurri handi batean bete direla. Elkarlanerako guneak identifikatu eta gauzatu dira, eta harreman berriak lortu.

Azkeneko urtean aipatu zen bezala, Kontseilua erreferente argi bat bihurtu da eta ahal den neurrian, hainbat arlotan aholkularitza ematen eta hainbat proiektutan parte hartzen ahalegindu da. EGKren presentzia eskatu denean, erantzuten saiatu da.

Aurten Gazteria Zuzendaritzarekin bilera presentzial gehiago izan dira eta mantendu da telefonoz zein emailaz izandako harremana.

7.5.2. Aldundiak

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla-eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen gainean lan egiten da. 2017an lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin martxan jarritako hitzarmenak aurrera joan dira. Orain arte, Bizkaia eta Gipuzkoarekin bakarrik lan egin da, baina aurten Arabako Foru Aldundiarekin koordinazioa eta elkarlana martxan jarri da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...).

HELBURU ZEHATZAK:

- Hitzarmenak adostu.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egin.

Garapena

- **Bizkaiko Foru Aldundiarekin bilerak**
 - Martxoak 29 eta 31, Uztailak 5 eta Azaroak 7
- **Arabako Foru Aldundia**
 - Apirilak 4, Ekainak 22 eta Abenduak 13
- **Gipuzkoako Foru Aldundia**
 - Martxoak 13

Kontuan izan behar da bilera hauek instituzionalak izan direla. Beste hainbat koordinazio-bilera egin dira lantalde teknikoarekin.

Bileren eraginkortasuna

Urte honetako lankidetza asko hobetu da. Erakundeek gehiago ulertu dute zein den EGKren funtzionamendua, nahiz eta batzuetan zailtasunak egon hasiera batean. Lortutako lankidetza-hitzarmenak sendoagoak bihurtu dira.

Lankidetza gune berrien sorrera

Aurreko urtean aipatu zen bezala, aldaketa asko eman dira erakunde hauetan baina haiekin lanean jarraitzen da, adibidez Bizkaian lau urteko hitzarmenarekin jarraitzen dugu.

Arabian, lehenengo urtea izan da elkarlanean koordinazioa burutu dena eta harreman ona egon den arren, denborarekin hobetzen joatea izango da erronka.

Gipuzkoari dagokionez, aurreko urteko lankidetza-hitzarmena mantendu da eta elkarlan bilera gehiago eman dira. Datorren urtera begira elkarlanean jarraitzeko asmoa dago.

Hiru aldundietan Gazteriako arduradunekin biltzeko aukera izan da eta hori aurreko urteei begira aurrera pauso bat izan da.

Lankidetzaren eraginkortasuna

Zaila da neurtzea EGKren parte hartzeak eta egindako kontraste, txosten eta adierazpenek zenbaterainoko eraginkortasuna izan duten Aldundietako politika publikoetan.

EGK-k aurreko urteko ildoak jarraitu du proposamen zehatz asko eginez. Hala ere, agian ez dira politika publikoetan oraindik islatu. Bizkaia egindako apustuan, batez ere, 2018ra begira posible izango da egindako proposamenak islatuta ikustea.

Aurrekontuan eragina

2017an, Bizkaia eta Gipuzkoak EGKrekin zuten akordioa mantentzea lortu da partida ekonomikoak ere bere horretan mantenduz. Honi, Arabarekin martxan jarri den hitzarmena gehitzea lortu da.

7.5.3. Eusko Legebiltzarra

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordean, Sustapen Ekonomikokoan edo dagokionarekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gaineko erantzuna emateko, bertaratu eta hala egiten da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
- Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.
- Gazteen egoeraren berri eman instituzio eta gizarteari.

Garapena

2017ko agerraldiak: maiatzak 9 eta irailak 19

Ebaluazioa

Agerraldien kalitatea eta eragina

Kalitateari dagokionez, informazio, datu eta material nahikoa ematen ahalegindu da EGK. Gainontzekoa, hizlariaren abileziaren araberakoa izan da. Eraginkortasun maila neurtzea zaila da. Alderdi gehienek galderak egin dituzte, baina ezin jakin zenbatean eragin duen diskurtsoak. Azken aldian, inoiz baino gehiago aipatzen da Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

Legebiltzarrean. EGK-k erabilitako argudioak eta proposamenak gehiagotan aipatzen dira lehen baino. Kontuan izateko da, aurtengo agerraldiaren ostean interes gehiago piztu dela eta EGK-k beste behin ere bertaratzeko deia jaso duela.

7.5.4. Udalak

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla-eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Orokorrean EGKren ekarpena gazteria politikari egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Arduradunekin egiten diren bilerez gain, eratuta dauden estrukturan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela-ere, elkarlana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea, besteak beste, presidentziaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikari ekarpenak egitea.

Garapena

Udalekin izandako bilerak 2017an:

- Bilboko Udala: martxoak 28, apirilak 6, eta urriak 9
- Gasteizko Udala: otsailak 16, maiatzak 19 eta urriak 25

- Donostiako udala: martxoak 30, ekainak 20 eta azaroak 24

Ebaluazioa

Orain arte izandako lankidetzaz hitzarmenak mantendu dira Bilbon zein Gasteizen, eta elkarlana sustatu da. Gehiago lan egin da Gasteizen Gazte Plana dela medio, baina biak elkarlan positiboa izan dute EGKekin. Donostiako udalarekin aurre sinatu da hitzarmena eta hurrengo urteetara begira asmoa dago elkarlanean jarraitzeko.

7.5.5. Beste erakundeak

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua izan da Presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Euskadiko Eskola Kontseilua, Drogomenpekotasunen Batzordea, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, etab.

Horiez gain, EGK-k hainbat entitatekin (EGK barruko zein kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Horren guztiaren helburua, gazteen ahotsa eta EGKren diskurtsoa ahal bezain beste zabaltzea da, eta Kontseilutik egiten den lanak eragina izatea gazteen bizi-baldintzetan eta eskubideetan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- EGKren ordezkaritza egin.
- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatu.
- EGKren hitza eta iritzia zabaltzea.

Garapena

- Espainiako Gazte Kontseiluarekin bilerak
- Nafarroako Gazte Kontseiluarekin bilerak
- Euskararen Aholku Batzordeko bileretan parte hartu
- UPV/EHU-rekin harremanetarako bilerak
- Euskaltzaleen Topagunearekin bilerak
- Saharako bidaia

Ebaluazioa

Espainiako zein Nafarroako gazte kontseiluekin harremana izan da, batez ere, bigarrenarekin. Proiektuen informazioaren hartu-eman bat egiten da komunean dauden proiektuetan elkarlana sustatzeko.

Euskararen Aholku Batzordearen kide da EGK eta aurrera eramaten diren bileretan parte hartzen da. Era berean, Euskaltzaleen Topagunearekin batera, proiektu bat hasiko da gazteen artean euskararen erabilera aztertzeko.

Bestalde, aurten bilerak izan dira UPV/EHU-rekin, izan ere, lankidetzaz hitzarmen bat martxan jartzea lortu da.

Saharako bidaia egin da urria aldera. Bidaia honen helburua Saharako gazteei formakuntza ematea da parte-hartze eta elkartegintza arloan. Proiektu honen bitartez asko garatu da EGK, NGK eta Kataluniako Gazte Kontseiluaren arteko harremana.

Honetaz aparte, beste hainbat bilera egin dira EGKren barne zein kanpoko elkarrekin.